- Jaun-andreak.

Ongi etorriak izan zaitezte Doneztebera Malerreka, Baztan, Bortzerriak eta bertze hainbat lekutatik hurbildu zaretenok.

Orain dela 75 urte egin ziren hemen bertan Euskaltzaindiak antolatu zituen II. Euskalegunak. Doneztebek gogo eta asmo onez hartu zuen bilgune izatea, Malerreka, Baztan eta Bortzerrietako hainbat herrik parte hartuz, hiru egun iraun zuten Euskalegun haietan.

Gure eskualde honetan euskarak behar zuen bultzadaren abiapuntu izan ziren ospakizun haiek eta uste dugu erraten ahal dugula orduan ereindako ha-ziaren fruitu batzuk bederen biltzen ari garela, hondarreko urte hauetan batez ere. Baina horren guziaren berri hemen ditugun hiru hizlariak berehala emanen digute.

Eta orduan bezala, orain ere atsegin zaigu Euskaltzaindia bi egunez hemen izatea. Gaur goizean euskaltzain osoen hileroko bilkura izan da Udaletxean, arratsaldean Jagon Saileko III. Topaketak egin dira eta gaur arratsaldean hasiera eman zaien Ahoskerari buruzko IV. Jardunaldiek biharko egun osoa irau-  
nen dute.

1923ko Euskalegun haiek akitu ondotik, Damaso Intza, Euskaltzaindiko idazkariak, idatzi zuen Euskaltzaindia eta Doneztebe esker oneko korapilo es-tuan lotu zirela behin-betiko. 75. urteurrena ospatzeko asmoa azaldu zigute-nean, pozez hartu genuen eskaintza eta atseginez erraten ahal dugu ez bakarrik Intza jaunaren hitzek oraindik ere irauten dutela, baizik eta gure arteko korapilo hori indarberritu eta sendotzeko aukera ematen digula.

Ziur gaude, Malerreka inguru honetan euskararen aurrerapena nabariagoa izanen dela hemendik aitzina, eta hori zuzenean egiaztatu ahal izateko eskatu nahi nioke Euskaltzaindiari ez uzteko pasatzen bertze 75 urte honat itzuli artio, gehienez ere 25 urte. Euskalegun haien mendeurrena eta, aldi berean, aurtengo jardunaldien zilar-ezteiak ospatzea parada on bat izan liteke. Gure gonbita luzatua uzten diogu, bada, Euskaltzaindiari.



## **EUSKALTZAINDIAREN II. EUSKALEGUNEN 75. URTEURRENA**

*Doneztebe, 1998-IX-25*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Miguel San Miguel, Doneztebeko alkate jauna.  
Fernando Perez de Vinaspre jauna.  
Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.  
Euskaltzainkideak.  
Jaun-andereak, agur.

Eskertu nahi zaitut, Doneztebeko alkate jauna, egin diguzun ongi etorri samurrarengatik, zure hitz goxoengatik.

Gaur bildu da Euskaltzaindia Doneztebeko Udaletxean, Hiztegi Batua zue-la gai nagusia. Gero, arratsaldean, Jagon sailak azaldu du eta argitu Euskaltzaindiaren araugintza eta sartu gara Ahoskera jardunaldietan bihar eztabaidatuko direlarik Ahoskera batzordeko lan taldeak eskaintzen dituen emaitzak.

Donozteben biltzen balinbada Euskaltzaindia irail honetan da bereziki ospatu nahi dituelakotz, duela 75 urte hain zuzen, Donezteben apailatu zituen bigarren Euskal Egunak. Alabainan Euskaltzaindiak, orduan berrikitan jaioa, hartu zuen Euskal Egunen sortzeko erabakia, lehenak egin zirela Durangon, bigarrenak, 1923ko irailean, Donezteben.

Ene aitzinean daukat orduko egitaraua salatzen duelarik zer zen orduko giroa, nola jokatzin ziren euskararen sustengatzeko. Gure aitzineko horiek me-rezi dute gure errespetu eta ezagutza osoa.

75 urte iragan dira eta ikus dezakegu bertze garai batean bizi garela. Eus-kara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako eremu batean, hain zuzen Doneztebe dagoen eremuan. Euskara sartua da osoki es-kolan, bereziki D ereduan eta Doneztebeko haurrak dabilta euskara ikasiz, euskara landuz, euskara maitatuz. Nola ez ager gure poza ikusiz nola doan aurrera euskara Nafarroako erreinu zaharrean!

Aurten Euskaltzaindiak 80 urte betetzen ditu. Urteak dira, baina beti gazte gelditzen da kide zendu bat ordezkatzin baitu kide gazte batek. Beti gazte, beraz, eta sekulan baino gehiago lotua lanari. Daude lekuko *Orotariko Euskal*

*Hiztegia XI.* liburukia agertuko delarik datorren abenduan, Euskara Batuko batzordearen lanak hilabetero eztabaidatuak direnak euskaltzain osoen bilkuran, Gramatika batzordearen emaitzak aztertu ditugunak Areatzako jardunaldietan joan den uztailan, Euskal Herriko Atlasari buruz egin diren inkestak gauzatuak direnak laster, lehen mapa liburukiarekin, Onomastika batzordearen eskaintzak toki izen (hiri, herri, auzo, mendi, ibai eta abar), jende deitura eta izen, nola erabili eta idatzi behar diren euskaraz, Literatura batzordeak antolatzen dituen biltzar eta jardunaldiak gure idazleen ohoretan eta, jadanik aipatu baitu, Ahoskera batzordearen ikerketak eta proposamenak. Batzordeetan egiten diren lanei esker Euskaltzaindiak oraikotzen du gure hizkuntza zaharra, euskara batua, eskainiz idazle, kazetari, erakasle, ikasle, hitz batez euskaldun eta euskaltzale guzietan, hizkuntza idatzia, XXI. mendeko hizkuntza, euskalki guzietan oinarritua, euskaldunen arteko lokarri sendoa.

Denek jakin bezate, eta oroitarazten dut gaur, lehenbiziko euskaltzainek amestu zutela idatz-euskararen sortzea, txosten bat galdeginez Arturo Campion nafarrari eta Pierre Broussain lapurtarrari. Arantzazuko Biltzarretik honara gure belaunaldiak gogoan hartu du haien ametsa eta lanari lotu. Hor daude hogeita hamar urteren buruan (1968-1998) ezagun diren urratsak, euskara batuari urratu zaion bidea literaturan noski eta halaber komunikabide guzietan, ahantzi gabe erakaskuntza.

Euskaltzaindiak betetzen du osoki bere eginbidea eta lehen euskaltzainen xedea. Jadanik erran dudana bezala Doneztebek eskaini dizkigun baliabide guzietan lan ederra egin da gaur, egiten bihar. Euskaltzaindiaren esker onaren adierazteko eskaintzen dizut, alkate jauna, gure ohorezko medaila egun hauek oroitzen gisa eta denbora berean zenbait liburu Doneztebeko Udalari, Institutuari eta Malerrekako Mankomunitate edo Erkidegoari.

Berriz ere bihotzetik milesker.

## 1923. URTEKO II. EUSKALEGUNEN OROIMENEZ

*Doneztebe, 1998-IX-25*

*Andres Iñigo,  
euskaltzain urgazlea eta  
Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria*

Euskaltzaindiak antolatutako II. Euskalegunak Donezteben egin zirenetik 75 urte hilabete honetan bertan bete dira, 1923ko irailaren 7an, 8an eta 9an izan baitziren.

### ZER ZIREN EUSKALEGUNAK?

Lau urte lehenago, 1919an alegia, sortua izan zen Euskaltzaindia eta hasiera hartan hartutako erabakietako bat, bi urtetik behin eta eskualde desberdinetan, Euskalegunak ospatzekoa izan zen. Eta zein zen Euskalegunak antolatzearen helburua? Galtzen ari zen euskarari eustea eta, aldi berean, gure hizkuntza indarberritu eta hedatzea. Lehendabiziko Euskalegunak Durangon egin ziren 1921ean eta bigarrenak Donezteben 1923an.

### ZERGATIK EGIN ZIREN DONEZTEBEN?

a) Alde batetik, Nafarroako Diputazioa euskarari bultzada ematea beharrezkoa zela ikusten ari zen. Hori zela eta, aitzineko urtean, 1922an, Etxarri-Aranatzen egin ziren Euskal Jaiak hain ongi atera zirela ikusirik, berehala onartu zuen Diputazioak Euskaltzaindiak hurrengo urtean Donezteben Euskalegunak egiteko luzatu zion eskaria. Eta ez onartu bakarrik, lagundu eta bertara etortzeko ere eginahalak egin baitzituzten diputatu batzuek. Eginahalak diot, hona etorri behar zuten egunerako, irailaren 9rako, antolatuak zirelako Iruñeko Burgoen elkartearen V. mendeurreneko ospakizun ofizialak. Azkenean, Iruñeko konpromizuei uko eginez, hemen izan ziren, Diputazioaren ordezkari gisa, Manuel Irujo diputatua eta Goñi idazkaria. Haiekin batera, Manuel Aranzadi, Madrilgo Gortean Nafarroako diputatua zena ere, azaldu zen (1).

---

(1) Ikus *El Pensamiento Navarro*, 1923ko irailaren 12koa.

b) Bertze aldetik, euskarari eutsi eta bultzada eman behar zitzaion herrietako bat Doneztebe zela argi ikusten da. Adierazgarriak dira egoera hori islatzen duten testigantza hauek:

1. Bidasoa inguruan, euskara atzerakadarik haundiena jasaten ari zen herri-ritzat jotzen du Doneztebe garaiko prentsak eta, horregatik, pozgarri zela Euskalegunak egiteko hautatua izatea (2).

2. Euskaltzaindiak berak hemen egin zuen batzarrean hartutako erabakien artean bi hauek ageri dira: bata, Berako Eskolapioei eskatzea guttienez fraile euskaldun bat edo bi jar zitzatela ikastetxean eta elizkizunetan euskara erabili ahal izateko, eta bertzea, Doneztebeko Rosa Seminariok sortutako patronatopean funtzionatzen zuen nesken ikastetxean zeuden lau mojak erdaldunak zirenez, guttienez haietako biren ordezkari bi euskaldun jar zitzatela. Hau bera izan zen Azkue euskaltzainburuak azken eguneko ekintza publikoan Doneztebeko alkateari egin zion eskarietako bat.

3. Jardunaldi haietan emandako hitzaldietan ere, garaiko zenbait apezki eta emakumeri orokorrean zuzendutako salaketa sakonak egin zituzten bospasei hizlarik. Adibide gisa, Eguskiza eta Bitorio Apeztegiak apezki buruz diotena aipatuko dut. Euskara bizi bada, batez ere apezki esker izan dela argi utzi ondotik, salaketa gogorra egin zuten erranez, hala ere, badirela apez batzuk "aundi-putz, arro... erdal-itz asko, andikeriz, arrokeriz sartzen dituztenak" (3), edo "eliz-itzaldietan erdi euskaraz erdi erdaraz bi izkuntzak nagasten dituztenak porru salda bat balitz bezala" (4). Eta Eguskizak emakumeei buruz zioena hau da: "Gaur egunean ere euskaldun askok, batez ere andere ta neskatxak euskara utzi eta erdera parra-parra erabili ezker, aundizki usaya artzen dutela uste

---

(2) 1923ko irailaren 11ko *El Pensamiento Navarroren* lehenengo orrialdean, POR EL EUSKERA titulupeko Editorialak honela dio: "Estos días viene celebrándose en la linda villa de Santesteban los actos de cultura y propaganda que anualmente celebra la Academia en diversos puntos del país vasco. [...] Sin perjuicio de tratar este asunto más adelante, y de señalar la conveniencia, mejor dicho, la urgencia de que se celebren en otros puntos de Navarra, amenazados por la desaparición del Euskera, actos análogos y si es posible más importantes todavía, debemos consignar la satisfacción que nos ha producido el que este año se haya elegido Santesteban como punto de ataque en el camino de renacimiento de nuestra lengua, porque era el que más flaqueaba de toda la comarca del Bidasoa [...] Hacía falta en Santesteban una inyección de euskalismo porque se notaba desde hacía ya algunos años un decaimiento grande en el uso del euskera que algunas gentes parecía que tenían a gala el no usarlo. Pero por lo visto han reaccionado, y prueba de ello viene siendo la distinguida concurrencia que se observa en todos los actos que se celebran. ¡Muy bien por los doneztebarras! Pero que el entusiasmo de estos días no sea como el rocío de las eras. Para ello es necesario que se traduzca en hechos, y ninguno más persuasivo que el ejemplo: el uso dentro de las familias, en las relaciones sociales, en una palabra, en todas cuantas partes sea posible [...] Nosotros como tradicionalistas, necesariamente tenemos que ver con la más viva complacencia fiestas como las de Santesteban, pues ellas contribuyen a restaurar una de las tradiciones más hondamente nuestras, la de nuestra expresión de nuestra alma".

(3) Eguskiza, *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak Doneztebe-n*, Gaubeka inprimategia, Bermeo, 11-12. orr.

(4) Apeztegia, B., *Ibid.* 50. orr.

dute: ori egin ezkeru, bertzerik gabe aberats eta aundizkien alabak dirala beren buruetan sartzen zaye, ta amaren magalean ikasi zuten euskara, gauza lotsagarria bai litzan, nioz ez dute erabili nai; euskaraz mintzatu ezkeru, beren ezpañak zikinduko ote-zitzaizkien beldur bide dira. Arrokeri zoro onek euskarari kalte andia egiten diola gere begiz dakusgu” (5).

## II. EUSKALEGUNETAKO EDUKIAK

Hiru motatako ekintzak antolatu zituzten:

a) Alde batetik, ekintza akademikoak.

Euskaltzainek udaletxean bi bilera egiteaz gain, hamalaren bat hitzaldi ere eman ziren areto honetan. Ez ditut denak aipatuko; bai, ordea, eskualde honekin zerikusi zuten gaiak edo parte hartu zuten bertako hizlariak.

— *Erranera*k titulupeko hitzaldian, Pablo Fermin Irigarai, Larrekok, 150 erranera inguru azaldu zituen.

— Cruz Goienetxe, Amaiurko erretorea zenak, *Martin Azpilkuetaren* bitzaren ekarpen zehatza aurkeztu zuen.

— *Agoteak Naparroan* gaiari buruz hitz egin zuen Jose Zalbak.

— Bitorio Apeztegia, garai hartan oraindik apezgai zen amaiurtarrak, euskararen aldeko hitzalditxo sutsu bat eman zuen.

— Joakin Azpiatzuk *Euskera zarraren apurtxoak* titulutzat zeraman hitzaldian, historian zehar euskararen aldeko ekarpenak egin dituzten hainbat personaren artean XVIII. mendeko Anjel Bizente Zabaleta, leitzarraren bitzaren laburpen bat azaldu zuen.

— *Lakoizketa apez jauna eta Euskera* izan zen Aingeru Irigaraien gaia. “Lakoizketa zenaren ooretan zerbait egin bear giñuke” erranez eman zion amaiera hitzaldiari. Hurrengo urtean, oroigarri gisa, plaka bat jarri zitzaion bere sortetxeari, Narbarteko Lakoizketa baserriari alegia, eta Euskaltzaindiaren ordezkari bat bertan egon zen. Honela dio plakaren testuak: “*Lakoizketatar Jose M.<sup>a</sup> / apez zenari / 1831ko otsailaren 2an 1889ko abenduaren 25ean / etxe ontako seme zen / Lakoizketa jauna landare jakintzan euskaldun nagusia / euskaldunak zor diogun aipamenaz jasotako oroitarria / 1924n urtean*”. Hala ere, inguru honetako zientzilar ospetsu honekin (ospetsuena izan ez bada) oraindik ere zorretan gaudela dirudi. Eduardo Gil Berak, *Lakoizketaren Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con otros*

(5) Eguskiza, ibid. 12. orr.

*vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*, 1994an berrargitaratu zenaren prestatzaileak behintzat hala dio liburuaren hitzaurrean (6).

b) Ekintza akademiko eta hitzaldietatik aparte, Malerreka, Baztan eta Bortzerrietako 17 herritako 7 eta 14 urte tarteko mutiko eta neskatokoei, Euskalegunak hasi baino egun batzuk lehentxoago, azterketak jarri zitzaizkien euskaraz irakurtzen eta idazten ematen zuten maila ikusteko. Hoberenak sarituak izan ziren eta hona deituak sariak hartzera. Parte hartu zuten herriak hurrengo hauek izan ziren:

— Bortzerrietako bortzak.

— Malerrekatik: Doneztebe, Legasa, Narbarte, Oieregi, Donamaria, Elgorriaga eta Sunbilla.

— Baztandik: Oronoz, Arraioz, Irurita, Lekaroz eta Gartzain.

Erran beharra dago, Damaso Intza eta aipatu ditudan herrietako apezak, hilabete batzuz lehenago, gogor aritu zirela neska-mutikoak prestatzen.

Tolosa eta Donostiako euskal ikastetxeetan ikasten ari ziren neska-mutikoei ere azterketa publikoak egin zitzaizkien areto honetan.

c) Horietaz gain, Lau Herrietako eta Legasako umeek abesti emanaldiak egin zituzten hitzaldi tarteetan. Narbartearek jai haietarako espreski erreperatu omen zituzten jendeak ahaztuak zituen kantu batzuk, eta sunbildarrek eman omen zuten mailarik altuena, bi eta hiru aldiz ere errepikarazi baitzitzaizkieten kantu atsegingarri batzuk.

Gainerako ekintzak, Errenteriako antzerki eskolakoen teatro emanaldia, Leitza eta Urrozko bertsolarienak, Bertizarana eta Baztandarren arteko *Laxoa* partida, eta Elizondo eta Doneztebeko dantzarien emanaldiak izan ziren. Aipatzekoa da Azkuek berak Doneztebeko dantzei buruz dioena. Euskalegunak antolatzen zuten lehenengo aldian, hemengo Anastasio ttuntuneroari galdetu omen zion ea bazen herrian dantza bereziren bat, eta Anastasiok erantzun omen zion “baziren, orain ordea illak dire”. Azkuek, berriz, “jo itzazu, otoi”. Anastasiok jo ahala, Azkuek paperean idatzi eta ondoren alkateari eskatu zion eginahalak egin zitzaizkien dantza haiei biziberria emateko. Euskalegunen amaieran, alkateak hasiera emanez, dantzatu zituzten *Dantzaluzea* eta *Trapatan*.

## ERAGIN SOZIALA

Alkateak arestian erran bezala, Doneztebek gogo eta asmo onez hartu zuen Euskaltzaindiaren proposamena, eta Damaso Intzak aktetan aipatzen du herri

(6) “Ese ser veleidoso que es —y ahora somos— la posterioridad tampoco se ha portado con justicia con José María Lakoizketa, el botánico de Narbarte”, op. cit. 3. orr.

honek erraztasun osoak eman zizkiela Euskalegunak antolatzeke. Inguruko herrien erantzuna eta partaidetza ere paregabeak izan zirela aipatu dut.

Garaiko prentsak, alde batetik, partaidetza hau azpimarratu zuen (7). Aldi berean, prentsak berak —*El Pensamiento Navarro*ok, alegia, *Diario de Navarra* ez baitzuen baloraziorik gabeko aipamen pare bat bertzerik idatzi— nahi adina leku ezin ematearen pena adierazi zuen (8), eta bai Euskaltzaindiari baita Doneztebeko udalari ere zorionak eman zizkien (9).

## ONDORIOAK ETA GERORAKO ASMOAK

Azkuek, azken hitzaldian, bi gauza eskatu zizkien alkateari eta herritar guziei:

1. Trapatan dantza galtzen ez uzteko, hurrengo urteetan segida emateko. Baina berehala bota zien garrantzitsuago zen bigarren eskaria.

2. Doneztebearren euskalduntasuna ez zedila dantzara, txistura eta ttuntunera mugatua geld. Hizkuntza, euskara, salbatzen eta indartzen egin behar zituztela eginahalik haundienak. Hasieran erran dut nesken eskolan euskara zekiten mojak jartzeko eskatu ziela eta, horretaz gain, mutikoen eskolan ere, beranduegi izan gabe, alfabetizazioaren alde zerbait egin zezatela erregutu zien. Donezteben pauso hori ematen bazen, inguruko bertze zenbait herritan ere, Beran, Lesakan eta Elizondon erraterako, bertze hainbertze egingen zutela espero zuen Azkue jaunak.

75 urte geroago, bai Doneztebek bai inguruko herriek, irakaskuntzan eta gainerako arloetan ere, eman duten aurrerapausoa seguraski Azkuek eskatutakoa baino haundixeagoa izan da. Dena den, emandako aurrerapauso hori, gauregungo gizartearen beharrak betetzeko nahikoa ote den izanen da, nik uste, hemen gauden guziori burura datorkigun galdera. Maria Jesus Perurena eta Periko Míndegia izanen dira horren berri berehalaxe emanen digutenak.

(7) Jaiak hasi baino egun batzuk lehenago honela zioen: "Por las impresiones que se reciben de toda aquella pintoresca comarca, ha tenido una acogida entusiasta la idea de la Academia". Eta akitu ondotik, berriz, [estas fiestas] "han superado todos los optimismos que augurábamos en las impresiones de que nos hacíamos eco en la nota publicada en la prensa días antes de estas fiestas [...] según aseguraban todas las personas mayores de la villa, no recordaban fiestas de ninguna clase en que la concurrencia de forasteros haya sido tan extraordinaria como estos días". *El Pensamiento Navarro*, 1923ko irailaren 2koa.

(8) "Hubiéramos deseado darle en nuestras columnas toda la importancia y realce que merecen, pero el escaso espacio de que disponemos nos impide con hondo sentimiento el hacerlo", *El Pensamiento Navarro*, 1923ko irailaren 11koa.

(9) "Reciba nuestra más cordial enhorabuena la merítisima Academia por los actos que con tanto éxito viene celebrando estos días en la bella población bidasotarra y las autoridades de la misma por la entusiasta cooperación que les ha prestado y por el cariñoso recibimiento con que ha recibido a los dignos miembros de esta docta Academia", *El Pensamiento Navarro*, 1923ko irailaren 16koa.





## EUSKARA IRAKASKUNTZAN AZKEN 23 URTEOTAN DONEZTEBE ETA MALERREKAN

*Doneztebe, 1998-IX-25*

*Maria Jesus Perurena Santesteban,  
Doneztebeko DBH Institutuko irakasle  
eta udal zinegotzia*

Andres Iñigo 1923az mintzatu zaigu, eta ordurarteko denboraz.

Garai hartako komunikabideetan agertzen zen euskararen atzerakadaren kezka, horixe izan zelarik 23ko Euskalegunak Donezteben ospatzearen arrazoa edo arrazoi bat behinik bebin.

Nik azken 23 urteok hartu behar ditut kontuan, hau da, “Donezteben irakaskuntza euskaraz hasi zen urtetik gaur arte”.

Hala ere, hor gelditzen da 50 urte pasatako tartea.

Zer gertatu ote zen deboran horretan?

Tarte horretan izan zen nire eskolatzea, eta badauzkat zenbait oroitzapen nire buruan. 23a bitartean atzerakadaren kezka baldin bazegoen, hortik aintzina ez zen egoera hobetu.

Euskara, etxe xokoan funtzionatzeko baliagarria zen zerbait zen; handik kanpo ez zeukan inolako prestigio sozialik: Belateraino joateko bakarrik balio du, erratan zen.

Guzti hau horrela izanik...

1975. urtean Doneztebeko kontzentrazioak urte bat zeraman martxan, eta eskolarik gabe gelditu ziren inguruko zenbait herritako umetxoak kontuan hartuz, Nafarroako Diputazioak, Escuela de Temporada bilingüe bat ideki zuen, aipatu ditudan herri horietako 4 eta 5 urtetako neska-mutikoak ere eskolatuak izan zitezten.

Eta nik izan nuen gela horretako 1. irakaslea izateko zortea eta, ez hori bakarrik, euskal adarra hartu zuen lehendabiziko promozioarekin (25en bat) egin bainuen ia-ia OHO osoa, 3. mailatik 8.era horren ondotik OHOn zuzendari bezala eman nituen 3 urtek eta azkeneko 3 urteotan DBHko zuzendari izateak aukera ezin hobea eman dit euskeraren ibilpidearen lekuko hurbila izateko 23

urteotan, eta hori ikuspegi desberdinetatik: irakasle bezala, zuzendari bezala eta guraso bezala ere bai, nere seme gaztena bigarren promozio-idea izan baitzen.

Gela elebidun horren hasiera kontatuko dut:

Zenbait urte lehenagotik Donezteben bazen eskolaurrea (erderaz), eta kurtsu hartan, 75ean 4 eta 5 urtetako 53 haur zeuden matrikulaturik.

Irekitzeko zegoen gela elebidun hartarako, berriz, 28 haur zeuden guztira eskolak itxi zituzten herrien artean.

Bi eskolurreko gela haien arteko matrikulen desoreka haundia zen, eta kontzentrazioko zuzendariak nolabaiteko oreka aurkitu nahian. Doneztebeko gurasoak deitu zituen eskaera konkretu bat egiteko, eta hauxe izan zen: Hamar haur euskaldun eskatzen zituen gela elebidunera pasatzeko.

Hamar baino gehiago ziren guraso euskaldunak eta etxean euskaraz egiten zuten haurrak urte hartan hasten zirenean artean, baina bat bakarra izan zen pasatzeko borondatea agertu zuena.

Erantzun honen arrazoiak bazeuden, nire ustez ZEIN?

Ba, bertze batzuren artean...

— Lehen erran bezala. Euskarak ez zeukan inolako prestigio sozialik (erdaraz egitea zen dizdira ematen zuena...).

— Donezteben ez zegoen euskaraz eskolatzearen esperientziarik.

— Guraso batek baino gehiagok edo hurbilekoren batek esperientzi txar aunitz bizi izanak zituzten euskaraz erdaraz baino gehiago zekitelako, eta ez zuten horrelakorik nahi heren seme-alabendako.

Erran beharrik ez derrigorrez pasatzea izan zutela, ez baitzaiteken lanik egin bertzela 53ko taldearekin.

Horrelakoxea izan zen euskarazko irakaskuntzaren hasiera Doneztebe eta Malerrekan.

Hiru kurtsoz gela horrek bakarrik funtzionatu zuen eta oraintxe hogeitun urte, 78/79an jarri zen martxan OHoko 1. maila (bitartean 2 promoziotako haurrak erderazko EGBra pasatu ziren).

Eta geroztik euskaraz eskolatutako 10 promozio atera dira! (Hezkuntza Sistemaren aldaketaren ondorioz 2 urtetan ez baita talderik irten):

Urteak pasahala, gela bakar hori progresiboki haunditzen joan zen, gela bat izatetik bi izatera pasatuz eta azkeneko 5 urteak hartzen baditugu erreferentzi bezala. Donezteben matrikulatutako 129 haurretatik 123 euskaraz izan dira eta 6 erdaraz.

Aurtengo ikasturtea hartuz amaieratzat, erran behar da matrikula osoa, 1 ezik, euskaraz, egin dela Haur Eskolan: zehazki, 23 etatik 22.

Doneztebeko Eskolan 3 urterekin matrikulatzerakoan egiten dute ereduaren aukera eta eskolatze prozesu osoa kontutan hartuz, kontatuak dira hizkuntza aldaketa eskatzen dutenak.

Denok badakigu gauzak ez direla hain ximpleak izaten, tartean aunitz oztopo gainditu behar izan dira eta zenbait egoera ilun eta lainotsu samarrak jasan ere bai.

Gaur Doneztebeko eskolak batera hartuz, hau da, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, 466ko matrikulatik, 413 Euskal ereduaren daude eta 53 gaztelera ereduaren.

Parean jartzen haditugu 23 urte hauetako 1.a eta azkena ikus dezakegu piramidearen itzilipurdia:

— 75.ean ia 600 haurretatik 4 eta 5 urtetako 40 inguru zeuden gela elebidunean

— Gaur, 98an 466 haurretatik, 3, 4 eta 5eko 3 haur daude erdal ereduaren.

Orain dela 23 urte arrazoiak baldin bazituzten euskaraz eskolatzea ez hain errez omartzeko, orain ere badaude arrazoiak, nola ez, egiten duten aukera egiteko.

— Egiatzatua dago euskaraz eskolatzea ere posible dela eta gainera ongi.

— Euskaraz eskolatzea da aposturik onena (euskaraz eskolatuak hainbat erdara ikasteaz gain, euskera ikasten baitute).

— Gaurko egunean badauka pretigio soziala eta naturaltasunez hartua izaten hasten da: erdal adarreko ikasleen guraso batzuk, adibidez, beren umeak, euskarazko taldetan sartuz aukeragai batzuk euskaraz egin ahal izatea eskatu dute inolako problemarik gabe.

Horrelako jarrerak laguntzen dute euskararen normalizazioan ikastetxeko esparruan...

... zeren euskararen normalizazio osoaz eta zabalaz aritzeko... administrazioarekin eta bertze zenbait esparrurekin sartu beharko litzateke, eta hau gaurko nere gaiatik kanpo gelditzen da...



## **EUSKARAREN EGOERA BAZTAN, BORTZERRI ETA MALERREKAN**

*Doneztebe, 1998-IX-25*

*Pedro Mindegia,  
Malerrekako Euskara batzordeburua*

Malerreka eta Bidasoa erreka honetako bertze eskualdeak ere, Bortzerri eta Baztanaldea, eskualde eskualdunak izan dira betetik. Eskuarak sortu ditu haien herriak, errekek, mendiak, parajeak, etxeak baita etxe horietako biztanleak ere, errateko izen eta hitzak. Hemen eskuarak bertze edonon tokiko hizkuntzak egin duena egin du mendeen joanean: gizatalde oso baten bizitza eta bizi-aukerak senetz bete. Eskuara hemengo gizon-emakumeen bizitza esperientziaren haria zen, lokarria. Bertze edonongo gizataldea bezala bizi ziren hemengo eskualdunak beraien herrian, beraien hizkuntzaz, nahiz eta afera jakin batzuetarako bertze hizkuntza arrotz bat ibili behar. Joan den mendea artio zen ohikoa.

Baina gaur egun egoera bertzelakoa da. Joan den mendetik hasi zen gure herririk handienetan (Donezteben, Beran, Lesakan, Elizondon eta Iruritan) egoera hori aldatzen eta eskuara, poliki-poliki, hasi zen bere-bereak zituen funtzioak galtzen: Estatuaren politika (ez bakarrik elebakarra, baizik eta bertze hizkuntza ttipiendako erasotzailea ere dena) ezarri zuten eskoletan, administrazioan, karriketean eta desberdintasunaren diskurtsoa (hizkuntza eta hiztunen artean desberdintasuna sortu eta legitimatu egiten duena) hedatu zen.

Diskurtso oker hori dago indarrean, gaur egun ere, gure herrietan, bai eta Euskal Herri osoan ere. Diskurtso horren kontra jo behar dugu lehenik gure hizkuntzarendako normaltasuna sortu nahi badugu.

Hori bertzerik ez da gure egoera, diskurtso berri bat hedatzen saiatzen gara: herrien arteko berdintasunaren diskurtsoa. Diskurtso honek Euskal Nazioaren autopertzepzio kultural egokia ahalbidetuko du. Eskualduna izatea gizon-emakumea izateko modu bat da, eta Eskual Herria —eskuaraz mintzatzen den Herria— munduan diren bertze herrien batera gizadiaren funtza eta aniztasunaren partaidea da. Berdintasunaren etika honetatik bakarrik ulertu eta baloratzen ahal da eskualdunon berezitasuna, giza mintzaireren artean gure eskuarak duen lekua.

Baina egoera da oraindik normaltasun-berdintasun horretatik urrun gaudela. Bertzenaz, nola ulertu aunitz zerbitzu oinarritzotan (mediku-erizainek;

Estatu, Foru eta Udal administrazioetako langileek ematen dituzten batzuetan) euskaldunak ezin hartuak izatea haien hizkuntzaz, eta erdaraz izan behar? Nola ulertu, adibidez, eskualde honetako medikuen artean, gehienek zerbitzua eskuaraz ezin eman izatea?

Nola ulertu, oraindik eskualde honetan eskuaraz ikasi nahi duten ikasleek beren ikaste prozesua ez edukitzea ziurtatuta eskuaraz, baina gaztelaniaz ikasi nahi dutenek, berriz, bai? Nola ulertu heziketa ziklo berrietan eskuaraz ikastea ezinezkoa izatea? Nola ulertu Berako Labiaga Ikastolako DBH legezstatugabe egotea?

Nola ulertu, Udal Euskaldunen Mankomunitatean sartuta dauden udaleei Estatu eta Foru Administrazioek traba baizik ez paratzea administratiboki eskuaraz funtzionatu nahi dutelako, eta gaztelania hutsean aritzen diren udalek inolako arazorik ez izatea, ez eta herritar eskualdunen hizkuntza eskubideak begiratzeko premiarik ere?

Nola ulertu hainbertze urte bertako berriak zabaltzen emanda, duela zenbait aste bakarrik Xorroxin Irratiak lizentzia lortu izana (Nafarroa osoan bakarra)? Urtez eta urtez aritu da alegaldade-ilegalidade osoan, Foru Administrazioak erdara hutsezko bertze irrati batzuei emititzeko lizentzia segidan ematen ziela ikusiz.

Nola ulertu gure euskaldeen dugun eskualdun zahar alfabetatugabe pila hori, beraien hizkuntzaz kulturizatu eta horren pertzepzio egoki eta landua izateko aukera izan ez dutenak, eta ikasi duten guti-askoa, nahitaez gaztelaniaz ikasi behar izan dutenak. Gure herritar aunitzi, dagoeneko gazte gazteak ez diren horiei, ukatu egin zaie eskualdun osoak izatea, desberdintasunaren diskurtso maltzur hori sartu diete buruan, eta aunitzek sinistu dute. Aunitz eskualdunek uste du eskuararen egoera naturala dela, eskuara berez gaztelera, frantsesa edo bertze edozein erdara baino guttiago dela, ez deus dela, mundu honetan eskualdun izatea deus ez izatea dela. Desberdintasunaren konplexua sartua dute.

Desberdintasuna garbia da, begi bistan dugu egunero, nonahi. Baina jakiñ badakigu desberdintasun hori ez dela naturala, ez dela berez eskuarari eta eskualdunoi dagokiguna. Eskualdun aunitz aritzen gara gure hizkuntzaren alde lanean, administrazioak ere neurriak hartzen hasiak dira. Aunitzetan, gure gogoz bertzera, urrats bat aitzin eta bi gibel egiten ditugu, baina guk garbi dugu gure nahiaren eta lanaren zulentasuna.

## **IV. AHOSKERA JARDUNALDIAK**

*Doneztebe, 1998-IX-25/26*





## AHOSKERA LANTALDEAREN ERRENDAPEN TXOSTENA (1)

*Donostia, 1998-VII-30*

*Miren Lourdes Oñederra,  
euskaltzain urgazlea,  
Ahoskera azpibatzerde arduraduna eta  
Euskal Herriko Unibertsitateko  
irakaslea, Gasteizen*

### 0. LANTALDEAREN NONDIK-NORAKOAK

Txosten honen helburu da Ahoskera Azpibatzerdearen Lantaldeak, 1995eko akabuan abiatu zenetik hona, egin duenaren berri ematea. Ahoskera Batzerdearen 1994ko txosten hartan bezala, hemen ere egindakoaren baldintza, arrazoi eta neurriak agertzen saiatuko naiz (2).

Esan genezake Lantaldearen lanak bi aro nagusi izan dituela. Batetik, 1995-1996 eta 1996-1997 ikasturteetan 1994an Leioako Biltzarrean plazaratu arau-proposamenen azterketa teoriko eta praktikoa egin zen lantaldekideen artean (aintzat hartu behar da irakaskuntza eta komunikabideetako ordezkari dagoe la osatuta taldea). Ikasturte honetan, 1997ko azken hiruhilabetekoan zehar, Lantaldetik kanporako mintegiei ekin diegu, oraingo Nafarroako IBIn eta Donostia, Bilbo eta Gasteizko IRALEn egin direlarik.

Gure iritzian, hemendik aurrerako Lantaldearen egitekoak lirateke datorren iraileko Ahoskera Jardunaldien prestaketa eta mintegiak komunikabideetara zein Iparraldera zabaltzea, Euskaltzaindiak asmo horiek ontzat ematen baditu.

---

(1) Donostian, 1998-I-30ean aurkeztua Euskaltzainen Osoko bilkuran. Nire esker zintzoena urteotan, bileraz-bilera, ahoskeraren korapiloez gehiago ikasteko indar eta gogo eman didaten lantaldekideei. P. Etxeberria, A. Kintana, J. Urrutia, J. Aurre, J.C. Hernández, J. Kortabarria eta I. Etxebarriaren lan eta denborei asko zor diete lerro hauek.

(2) Ikus testua Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarari eskainiriko *Euskera* aldizkariaren alean (*Euskera* 39 (2. aldia), 1.589-1.605). Hemendik aurrera, Ahoskera Batzerdearen Txosten hori aipatzeko, ABT laburdura erabiliko da.

## 1. LANTALDEAREN EMAITZEZ, ALDEZ AURRETIKAKO GOGOETA OROKOR BATZUK

Lan praktiko, enpiriko, esperimentalaren ezaugarri da moteltasuna, kon-tatzeko berri gutxi eta poliki sortzen dela, ondorio diztiraturik apenas dagoela, alegia 1994kotik aldaketak ez direla nabarmenegi.

Gogoeta horren osagarri eta ozen esan beharrekoa da saiatu gabela ondratu izaten eta ez gure ustea eta nahia nola edo hala sartzen, saiatu gara hizkuntza-ren erabilera errealetan zer gertatzen den entzuten eta aztertzen. Gure beste ahalegin inportantea izan da taldelanaren bidez komunikazio-zubiak eraikitzea akademiako (*sensu lato*) araugile eta arauerabiltzaileen artean, azkenon jarrera pasiboa, kontsumitzailearena hausten saiatu garelarik mintegi eta bileretan. Zai-la da. Besterik gabe, aginduak edo aholkuak ematea baino zailago behintzat. Lehen urtea zenbait inertzia hausten joan zitzaigula uste dut neurri handian. Garrantzitsu iruditu zait gaur hau hemen esatea ahoskeraren arautzearekin da-torkigunaren neurria eman dezakeelako.

Baten batek galdutako balu zertarako sartu nahi izan dugun zailtasun ho-rietan, gogoraraziko nioke 1994ko aurkezpenaren azkena (ABT, 1.604-1.605). Onartu zuen Euskaltzaindiarekiko zorra eta gure buruarekiko zintzotasuna izan ditugu gidari. Izan ere, orduko gure usteen eta ondorioen gainean ekin zion lanari Lantaldeak, gogoan harturik:

a) Ahoskera ezin dela idatzia bezala arautu, baina horretaz luze aritu gi-nen 1994koan (ikus ABT, 1.954 orrialdekoa, besteak beste).

b) Araugintzaren arrakasta eta baita hizkuntzari egin diezaiokeen mese-de-kaltea ere zuzenean daudela loturik arauen nolakotasuna eta egokitasuna-rekin.

Egokitasun eta nolakotasun horiek, ahozkoan, bi aingura dituzte: hizkera-mailak eta prosodia. Hizkera mailak ulertu eta landu ahal izateko prosodia (ez azentua bakarrik) aintzat hartzea ezinbesteko da, prosodia delako hizketa eta hizkuntzaren arteko muga eta zubia den errealitatea. Hizketa, ahoskera arau-tzean arautu nahi den hori, prosodiaz jantziriko hizkuntza da. Prosodia ezber-dinak dira hizkera-maila ezberdinen oinarri eta bide. Oso presente izan dugu hori guztia gure lanetan. Sortzen diren zailtasun didaktikoak izan diren gure bilera eta iharduera askoren gai.

## 2. HIZKERA-MAILAK

Gure ustez, Euskaltzaindiari dagokio beste inori baino lehenago eta neurri handi batean, arauekin batera —oso batera edo lehenago, baina, batik bat, oso

argi— Euskara Batuaren erabilera-esparruak finkatzea (ikus ABT, 1.589, 1.oi-noharra ere).

Egia da zailtasuna dela hemen ere erraztasuna baino ugariago. Egia da gure arteko maila edo errejistro falta ez dela linguistikoa bakarrik. Euskaraz aritzen garenek gutxi(ago) eta ezagun(ago) gara edo izan gara behintzat. Dударik gabe orain hizkera jasoa justifikatuko luketen erabilera eremuak gehiago dira eta hiztun klaseak ere ugaltzea indartu beharreko kontua dela esango nuke. Guk aldagarritasunaren aukera linguistikoez arduratu beharko genuke behintzat (3). Hizkera jasorik ez bada, ez da ahoskera arau baturik behar.

Alde horretatik Batua, Euskara Batua, oso zaindu beharreko kontzeptua delakoan nago, *bere* onerako (euskalkiak babestu beharraz gehiago hitz egin dela dirudi): Ahoskera Lantaldean ahoskeraren funtzionamendua bideratzeko ezinbesteko izan zaigu Batuaren definizio edo berdefinizioaz jardutea.

Norbaitek esan beharko du Batua euskararen estandarra izatea nahi badugu (hizkera jasoaren euskarri, euskalkien arteko zubi, e.a.), zer den estandarra, nork eta zenbat erabili behar duen; beharbada, gainera, hiztun askori nahikoa zaiela estandarren ezagutza izatea, Batua arrotz ez gertatzea; % 100ean erabiltzea nori dagokion (badagokio), e.a. Ahoskera arauak ezin dira hori gabe eman (hemen luzeegi gertatuko litzatekeen ahoskera eta gramatikaren diferentzia garrantzitsua dago arautzeari dagokionean). Hizkera estandarren erabilera-neurri eta -esparruak finkatu aurretik ahoskera arauak eman eta eskatzeak ez lekarke euskal ahoskeraren babesa, izozte eta heriotza baizik.

### 3. PROSODIA

Erabiltzaile profesionalei, eredu moldatzaile eta zabaltzailei dagokie neurri haundi batean prosodiaren zaintza. Izan ere, irakasleei, bikoizleei, itzultzaileei, esatariei, antzezleei zuzentzen diegun mezua da: prosodia aintzat hartu behar da kontsonanteak eta bokalak bezainbat, kontsonante eta bokal horiei euskal ahoskera egokia (“sinesgarria”) eman nahi bazaie. Benetako hizketa ez da letraka gertatzen esaldika baizik, laburrena hitz bakarreko esaldia izanik (silaba bakarrekoa daitekeena <hi!> edo <ah!>, <ez> bezalako esaldietan). Ikasi behar dugu eta irakatsi behar dugu, beraz, hitz andanak erritmo, azentu eta entonazio eredueta txertatzen: benetako esaldi diren hitzak esaten. Bestela, hiztegi-gramatiketatik ateratako hitz hilez betetako esaldi baldarrak ahoskatuko ditugu.

---

(3) Nahasketa handia da: beren euskalkian egiten duten politikariak (irradi elkarrizketa batean, esaterako), irakasle eta euskaltzainak inolako aldaerarik egiten ez dutenak jendaurre ofizialek bazkalondo lasaira. Alderantziz, bestalde, i(r)akasle asko, intentzio onez beterik, Batuaren dogmak irentsi ditu eta etxekoa inoiz ez erabiltzen saiatzen dira.

Euskaraz ez dirudi gauzak azentuaren kokalekua aurkitzearekin konponzen direnik. Gero eta zehazkiago bilatu, erantzunak ugaldtu eta korapilatu egiten baitira. Gero eta azpisistema gehiago agertzen dituzte agian behar baino gehiago (gure kontu praktikoetarako) entzuten duten makinek. Euskal azentuaren kokalekuaz 1982az geroztik (gogora Azkoitiko Ahoskera Jardunaldiak) gutxienez bagabiltza eta *ad aeternum* ibil gintezke. Ikaskuntza kontuetarako, euskal azentua izan ez duen hiztun berriarentzat edo hizkuntza dotoretu nahian galdu duen zahararentzat, txarra da euskararen azentua oro har: ez da prosodikoki erregular izaten, lexiko-gramatikalki erabat sistematikoa ere ez da eta, denean, sintaktikoki aldakorregia da, akustikoki ez da nabarmenegia euskalki askotan (zabalduenetan agian) eta, ziurrenik horrekin lotua dena, aldagai akustikoak ez dabilta beti (inoiz ez?) batera (inguruko hizkuntzetan baino beregainago direla, esaterako, intentsitatea eta altuera). Honetaz luzeago arituko gara P. Etxeberria eta biok irailako Ahoskera Jardunaldietan.

Labur esanda, horrek guztiak oharrenaren aldetik iheskor gertatzen den azentua ematen digu: i(ra)kasteko orduan, azentu txarra dugu. Ez dut uste kasualitatea denik zenbat kostatzen zaigun antzematea, makinarik ez baina beldarra bazuten euskalari zenbaitek ez zegoela esatea eta, batez ere, Batuarekin gertatzen ari dena.

Prosodiazko arazoak zintzilik geratu ziren 1994an. Garbi dago eta fonetikarien datu akustikoez ziurtasun hori areagotzen dute (ik. urteotako Gaminde, Gandarias, Hualde eta besteren deskribapenak): euskal azentu-sistemak bat baino gehiago direla. Panorama nahasi horretan, dena den, bada euskaldun zaharri oso nabarmen gertatzen zaion banaketa, honako multzoetan jaso genezakeena (4):

- a) Euskalkiak eta bere sistemak.
- b) Batuak eta bere sistema (esango nuke sistema bat baino areago "tipo" bat dela) (5).

Gertatuaren historia posible bat asmatzen jarrita, aitortu behar dugu gutako askok Batua ikastea egin dugula hizkuntzaren ezagutza formala: ikasi dugu gramatika-arau jakin batzuen bidez egituratzen gure esaldiak eta gero eta lotuago datorrigun hiztegi baten bidez azaltzen gure kontzeptuak. Ahoskerazko arauen ezean letrak, ortografia aurkitu berria, hartu dugu nolabait gidari.

Horregatik edo bestela, ez dugu gure ahoskera baliatu euskara berria geureganatzeko... ez du norberak berea erabili. Nola, *det* esan beharrean, *dut* esan

(4) P. Goenaga irakasleari entzun nion, hitzaldi baten ondorengo eztabaidan, arazoaren formulazio gardena. Azkoitiko Jardunaldietan ere presente zen gogoeta.

(5) Ezaugarri orokorren zerrendan jarri beharko genuke, besteak beste, prosodikoki erregularra dela gehienegian eta fonetikoki —akustikoki (intentsitate eta maiztasunaren aldetik)— monolitikoa beti. Azentu-kokatze erregularra gazteleratikako eredu lexiko zenbaitek hausten dute (cf. *paténte*, *kompatíblea*, *ebidénte*a bezalako ez-paroxitonoak).

behar den eta, *neban* esan beharrean *nuen* esan behar den, doble-salto-mortallean, [esta] esaten zuenak [ezda] esaten du, *telefon[ua]* esaten zuenak *telefon[oa]* esaten du eta [estet] > [ezdut] bihurtu da.

Alegia, hizkuntza estandartzeko eman arau gramatikalak betetzear, ahoskerari lekua ukatu zaio Batuan. Aldaketa gramatikal hutsak esan nahiko luke [estet]-etik [estut]-era pasatzea, ez gehiago. Nik dakidala, honen aurrean zerbait esan zuen bakarra Txillardegia izan zen.

Prosodiaren kasuan agertzen dira gauzak garbien ziurrenik. Geure hotsak atera eta josteko modua utzi dugu. Batzuek gehiago besteek gutxiago, geure doinua utzi dugu. Baina, nola ezin den ebakera gabe hotsik atera, nola ezin den doinurik gabe hitz egin, beste zerbait erabili beharrean aurkitu gara. Azken batean hitz egitea hitzak musikan jartzea baita (David Stampe eta Patricia Doneganen eran esanda). Euskara berriak (batzuentzat beste batzuentzat baino berriago, ezberdinago) doinu berri bat hartu du, forma berriek, forma “h”dunek, “det” edo “dot”en ordezeko “dut” eta “gira”ren ordezeko “gara”k, musika berria ekarri digute: azentu erregularra, prosodia “on” bat, “erraz” bat. Non-nahi entzuten dira <joatén bagára kótxez>, <burúko mína dáwkat> eta antzekoak.

Eredu zabaldu xamarraren ezaugarri orokor dugu itxura trokaiko hori: funtsean azken aurreko silabaren indartze erregular eta nabarmen horietan gauzatzen dena (ikus goragoko 5. oinoharra ezaugarri fonetikoetz). Zentzuzko dirudi eredu horrek gaztelaren laguntza duela pentsatzeak. Bestalde, gogoratu behar da zenbait euskalkitan ere ez dela erabat arrotz (ez naiz zubereraz bakarrik ari, baina joera honetarako bilakaera beteenaren etxeko adibide dugu) eta edozein euskalkitikoa zenbait hiztunek gutxi-gehiago erabiltzen dutela modu ezberdinetan (6).

Hemen bi aukera ditugu: berritasun prosodiko emankor horri bide eman, gerta dadila, ala saiatu lehengo neurri eta doinuak gordetzen eta estandarra horiekin konpatible egiten. Lantaldeak bigarrenaren alde egin du apustu, pentsatuz prosodia dela gainerakoaren oinarri ahoskeran.

Gure lan eta eztabaiden ondorioen arabera, prosodia da hizkuntza baten fonologia ulertzeko giltza, behar bezala ahoskatzen ikasteko funts ezinbestekoa eta normaltze bilakabidean, arautze-egokieran, hortik hasi beharko genuke. Ikusi dugu, esate baterako, hitz neurriak direla ekialdeko euskalkien dipton-gatze ugariagoen oinarri, errazago dela gaztelarazko <z> horzkaria ez egitea esaldia prosodia egokiarekin esaten bada, e.a. Hori ikasgeletara eramateko ariketa bereziak prestatu beharko lirateke eta horien nondik-norakoak asmatzen ere saiatu gara. Nahiko genuke irakaskuntz metodoetan lan egiten dutenekin zenbait gauza eztabaidatzeko aukerak sortzea.

(6) Ez bide da halabehar hutsa prosodia eredu hauen oparotasunean enfasiak (zenbait hiztunek garatuago dituzten kode hiperbolikoak) bat etortzea berritasunekin (hiztun berriak, baina baita ere hiztegi berriak, hizkera-modu berriak hiztun zaharrentzat).

Oraingoz esan dezakeguna da, gure ustez hizkuntzaren prosodiaren ziria erritmoan duela euskarak eta hori behar genukeela ikaskuntzaren ardatz. Erritmoa, metrika sendo eta nabarmena ditu euskarak. Izan ere euskal ahoskeraren bereizgarri oinarrikoenak ziurrenik erritmoan daude sustraituak. Ziurrenik euskal fonologiak silaba egitura du bizkarrezur eta azentua horrek eskatzen duen erritmoaren menpeko.

Gainera, prosodia esandakoagatik beti bada garrantziko, ahoskeraren arautzeak areagotu egiten du prosodiaren garrantzia. Ahoskerarekiko sentiberatasuna handitzen du jakinaren gaineko arauak bete beharrak eta horrek ugaldu egin ditzake desegokitzat jo ditugun azentu-erak. Beraz, arautzeak behar bezalako irakaskuntza eskatuko luke: lehendabizi esaldiaren prosodia, kantua, funtsean eritmoa den horretaz jabetu; gero hor sartu, hor txertatu kontsonante eta bokal kateak.

#### 4. 1994an AURKEZTU ARAU-PROPOSAMENEN BERRIKUSKETA

1993 eta 1994 urteetan Ahoskera Batzordearen lanean ere oso aintzat hartu zen *fortitio* (indartze)/*lenitio* (ahultze) ahoskera fenomenoaren sailkapenarekin jarraitu dugu lanean (7). Orduan bezala, sailkapen horretatik, indartze edo fortitioak hobetsi ditugu, oharrenaren mesedetan gertatzen direnak baitira eta, beraz, arautu nahi den hizkera maila eta erabilera esparruetarako aproposen. Fortitibo edo indartzaile direlako, uler daiteke guk zaintzea eta hobestea afrikatzeak, heskari hasperendunak, zistukariaren ondorengo ahoskabetzeak, hasperena, hiatoak diptongoen gaineratik, e.a. *Fortitio* dialektologikoki zatituegiak bakarrik baztertu dira orain ere orduan bezala (-*iya*, *ixa*, *ia*, bezalakoak).

Horrela, formulazio batzuetan atzera egin behar izan dugu, proposamenak zehaztu eta malgutu (esaterako, bokal solteena, [ü] gehituaz) eta zabaldu: goranzko diptongoena (ekialdeko euskalkien prosodiaren eskari), prosodiarekiko zailtasunaren aitormena, eta abar. Hau lanaren zintzotasunaren eta errealitatearen komplexutasunaren seinale da.

Irakaskuntz erraztasunari begira, eskatzen diren hots-bereizkuntzen artean mailak daudela ikusi dugu, hala nola, errazagotik zailagora ordenaturik: r/R (“erran”), s/z (“hasi”/“hazi”), ll/y (“silla”). Halaz ere eta *fortitio* edo kontrasteen indartzea hizkera zainduaren ezaugarri delako eta oraindik bereizten dituzten hiztunak nahikoak direla berretsirik, Ahoskera Batzordeak 1994an artamendatuaren bidetik ezberdintasunei eustea proposatzen dugu.

Beti ere hizkuntzaren errealitatea aintzat hartuta, gure arau-proposamenak honela sailkatuko genituzke:

(7) Ikus, zatiketa horren aurkezpenarako, M. Lourdes Oñederra, 1986, “Hizkuntzen fonologia”, *Euskera* XXXI (2), 327-332.

a) Aukera bakarra (“ez[t]akit”, “ez[t]u”).

b) Aukera zaindua.

b.1. Gutxienez hizkera maila horretan erabili beharko litzatekeena: “bio-  
lo[g]ia” edo hasierako “j” [y] ahoskatzeko gomendioa “jan” bezalako hitzetan;  
alegia, beste hizkera mailetan ere erabil daitezkeenak.

b.2. Gehienez hizkera maila horretan erabili beharko litzatekeena, hiz-  
tunak bestelako aukerarik duenean bere euskalkian; alegia, gainerako ahoske-  
rak ere bultzatu beharko lirateke: “ari” [aʔi], [ai], [aj]; “edan” [eðan], [eʔan],  
[ean]; “esnea” [esnia], [esnie] eta horrelakoak).

c) Aukera askotarikoa (euskalkien araberakoa: esate baterako, palatali-  
zazioa vs. despalatalizazioa; “garaje” edo “erlijio” bezalako hitzetan dauden “j”  
horiek; <h> ahoskatuak eta isilak, eta abar.

## 5. MAILEGU ETA HITZ-ERAKETA EDO HITZ GAZTEAK ETA LE- TRAREKIKO MENPEKOTASUNA (EUSKALDUNAK IRAKURLE BERRIAK GARA)

Eremu honetakoak dira beste batzordeetatik eta kanpotik etorri zaizkigun  
kezka guztiak. Garbi dago euskal hitzunez (erabiltzaile aktiboenek) irakurri eta  
idazten ez zutenean, euskal fonologia osasuntsuago zela askoz. Saia gaitezen,  
bada, gauzak bideratzen alfabetizazioaren zalantzarik gabeko abantaila handiei  
etekina ateratzeak ez dezan hizkuntzaren ahoskera ahuldu. Mendez-mende eta  
belaunaldiz-belaunaldi hiztunen belarri eta ahoak atondu ditu mailegu, kon-  
posatu eta eratorriak euskal hiztegian sar zitezten, horrela gure aukera lexikoak  
zabalduz eta aberastuz.

Orain gauzak konplikatu egin zaizkigu. Gure arbasoen espontaneitatea,  
bat-batekotasuna, inozentzia galdu dugu (8). Alde batetik lexikoa zabaldu be-  
harra handitu, larritu eta azkartu egin da. Bestetik, gure ziurtasunik eza, gure  
kultura linguistiko falta dago: dena letretan jarri da, kasurik onenean, Batuaren  
letretan, txarrean, erdarazkoetan (9).

Honek guztiak ahoskera arautu beharra indartzen du. Saiatu gara malgu-  
tasunez jokatzeko (hizkuntzatik teorizatzen eta ez gure aurre-irizietatik) eta hiz-  
kuntzaren errealitate historikoa (diakronikoa eta sinkronikoa) aintzat hartzen.  
Hortik emandako erantzunen norabidea. Pentsatzen dugu idazkerak gardenta-

(8) Hori, gramatika ikasteko ona izan daiteke, baita batasunerako edo zatiketa ez areagotzeko  
duen kazetaria, zintaren ardura izan duen operadorea, grabazioa aineratu duen errealizadorea edo inguruan ibili den beste erredakzio laguntzaile, ingeniari, soinu nahasle, muntatzaile, grafista, artezle, artxibozain, makilatzaile eta abar. Beste hamar minutu egon naiteke telebistan betetzen diren zereginak zerrendatzen, baina ez nituzke denak aipatuko, pantailan azaltzen den hots-irudizko une bakoitza prestatzen eta jagoten langile mordoa ibiltzen da eta, tartean hizkuntzalaria.

Badirudi errazago imajinatzen dugula hizkuntzalaria orri horituetako letren artean edo hiztegi-tako hitz apainen artean, lente, kable, antena, magnetoskopio eta chromakey artean baino. Baina, horren guztiaren barruan betetzen duen lekua garrantzi handikoa da. Izan ere, telebista uhinen bidez zabaltzen denaren ehuneko berrogei, gutxi gorabehera, hitzezko berbakuntzak dira.

Gainera, norbaitek pentsatuko duenaren kontra, hizkuntzalariak ez du esklusibarik hizkuntzaren gaineko arduran. ETBko beharginak jakitun dira lehengai bi dituztela, irudia eta hitza, eta batari besteari adina arreta ematen diote. Kontuz ibiltzen dira produktua biribil irten dadin, oso sarri behingo produktuak izan arren —halakoak izan dira orain arte, behintzat, birziklatze programazioak asmatu dituzten arte—. Telebistako produktuak, gorabeherak gorabehera, erabili eta botatzekoak izaten dira, iraungikorrak, airean galdu eta lekukotasunik uzten ez dutenak, baina, hala eta guzti, helburu zehatza dute, komunikatzea, eta horregatik ahalegindu beharko du sortzaileak lehengai biez ondo baliatzen, irudia eta hitza ondo bilbatzen. Asmatzen badu, lana ondo beteta egongo da.

## ZELAN KOMUNIKATU

Laburpen gisa, hitz bitan azalduko ditut telebistako produktuen ezaugarriak: iraungikorrak eta komunikagarriak izatea. Behingotasuna, produktua behin erabilia baliogabe bihurtzea, sortzailearengandik kanpoko ezaugarria da, batik bat edukiak erabakitzen baitu hala izatea. Sail dramatiko batean, esate baterako, bosgarren kapitulua airera irteten denean, laugarrena eta aurreko guztiak ezdeus bihurtzen dira, zakarrontzira bota litezke, ikuslea, zer edo zergatik bosgarrena baino lehenagoko kapituluak galdu arren, berehala jarriko baita istorioaren jakitun eta, hortaz, atzera barik telesailan aurrera egin nahiko du eta.

Besterik da komunikagarritasuna. Definizio modukoa ematearren, produktu komunikagarria komunikazio egoeraren araberkoa dena izango da. Jakina da komunikazio egoerak hainbat osagai dituela. Lehenengo, mezua. Telebistan, era guztietakoak izaten dira mezuak, baina sailkapen laburra egin dezakegu.

— Informatiboak: albisteak eta berriak ematen dituztenak.

— Jakingarriak: zientzietako, historiako, giza bizitzako eta abarretako gaiak eta gorabeherak azaltzen dituztenak.

— Entretienigarriak: gogoan hartzeko daturik ematen ez dituztenak.

Ondoren, mezuak lotzen dituen jarduleak daude.

— Igorlea: telebistaren kasuan kazetari, aktore, aurkezle edo bestelako profesionalen bat izaten da.

— Hartzaila: etxean egoten den teleikuslea. Ez da hartzaila bakarra, eza-guna ere ez da, eta nekez zehatz daitezke batez besteko ikuslearen ezaugarriak. Hortaz, telebistako produktuak sortzeko zama eraman behar du, honako zama, Manu Arrasateren hitzetan esanda (1): “Ikusentzule gehienek ulertu behar dute adierazitakoa”. Salvador Mendieta (2) hitz gehiagorekin baina gauza bera dio: “Telebistako erredaktoreak ez ditu entzuleak aukeratzen; ezagun ez dituen persona era guztietakoei zuzentzen zaie eta ahalegina egin behar du denek ulertzeko moduko hizkera erabiltzen”. Horren ondorio zuzena telebistan, gehien-gehienetan, hizkera estandarraz baliatzea da.

Hori izaten da, gainera, jokabiderik zuhurrena, igorlea ez baita egoten komunikazioaren zirkunstantzien jakitun. Beraz, hizkera estandarrak eskainiko dio, aldi berean, hartzailarekiko hurbiltasun gutxien eta urruntasun gutxien, hotsasun gutxien eta amultsutasun gutxien, seriotasun gutxien eta lagunartekotasun gutxien, alegia, erdibideko erdigunerik erdikoena.

Kanalari buruz ez dago asko esaterik, uhinak direla besterik ez. Kodeari buruz, ostera, asko. Lehendabizi, telebista bidezko komunikazioan ez dela kode bakarra erabiltzen. Guri, hizkuntzalari garen aldetik, hizkuntza kodea baino ez zaigu interesatzen, baina ez dezagun ahaztu badirela beste asko. Kolore kodea da horietako bat. Seriotasuna eta sinesgarritasuna aditzera eman nahi izanez gero, urdina izango da nagusi pantailan, albistegietako dekoratueta, esate baterako. Kode berak telebista kateak ezagutzeko balio digu: ETB-1en adierazgarria gorriaren inguruko su koloreen sorta da, ETB-2n urdina eta kolore hotzak dira nagusi, Canal Plusen partxiseko margoen jokoaz baliatzen dira, eta abar.

Hori dena hala da, baina telebista komunikazio interfazea den heinean bakarrik. Gehienetan, ostera, kuxkuxeatzeko leiho irekia izaten da, hain zuzen ere pelikulak, marrazki bizidunak, telesailak eta beste hainbat gauza aireratsen direnean. Horrelako kasuetan komunikazio egoera ikuslearengandik kanpokoa izaten da guztiz. Komunikazioa pantailaren alde batean gertatzen da eta beste aldean, teleikuslea dagoen aldean, ostera, behaketa.

Hizkuntza kodeari begira, beraz, funtsezkoa da komunikazio egoeren zelanbaiteko sailkapena egitea, kasuan-kasuan komeni den tratamendua zehazteko irizpideak finkatzen hasteko helburuz.

(1) ARRASATE, M.: *Euskarazko Albistegietarako Esku-Liburua*, 1992.

(2) MENDIETA, S.: *Manual de estilo de TVE*, 1993.

— Egoera neutroa edo eztabadakoa: Lehenago azalduko da. Hartzaila teleikuslea izanik, zor zaion adeitasuna aintzat hartuta eta tipo bat zehazterik ez dagoenez, nahitaezkoa da hizkera estandarraz baliatzea.

— Hurreko egoera: Honetan ere teleikuslea da hartzaila, baina, lehenagoaren aldean, ikusle tipoa mugatuta egoten da. Kasu honetan hizkera estandarra da oinarria, baina joera nabarmena egoten da ikuslearengana hurbiltzeko; modu bitan: hizkera adierazkorra erabiliz edo, tarteka, lagunarteko hizkerara jauzi eginez. Denon gogoan egongo dira egoera honen adibide ezagunak: kirol saioak eta umeei zuzendutako programak.

— Antzirudi egoera: Telebistan azaltzen diren antzekizunei dagokiena. Ezaugarria lehen esanda dago, alegia, egoera ikuslearengandik kanpokoak izatea. Baina hortik aurrera, antzekizunetako egoerak nekez bil daitezke eredu apur batzuetara. Batean zirujau bi ikusiko ditugu ebakuntza gelan, bihotzeko gaitz baten gainean hitz egiten. Bestean alproja talde bat, hiri handi bateko kalezulo batean, ahoberokerietan. Benetako bizitzan jazo daitezkeen egoera guztiak eta askoz ere gehiago gertatzen dira pantailan. Jakina, kodea modu batekoa edo bestekoa izango da, egoeran-egoeran.

Bada, oraindik ere, telebistako komunikazioari buruz ahaztu ezinako alderdia. Batzuetan, komunikazioa bat-batekoa izaten da: mezua sortu ahala hartzailari bidaltzen zaio besterik gabe. Telebistan nekez aurkituko dugu horrelakorik. Askozak ohikoagoa izaten da mezua asmatzen denetik igorri arte sortzaileak astia hartzea. Gehienetan egokitzen gertatzen da orduan.

Era askotakoak izaten dira egokitzen, kodearena adibidez. Hain zuzen, telebistako hizkuntzalarien lana, batez ere, sorkuntza prozesuaren atal horri lotuta egoten da. Baina komunikazio egoerako edozein osagarri egokitu daiteke. Adibide argigarria ematearren, har dezagun garbigarri marka baten iragarkia. Mezua honakoa izan daiteke: “Izara hori XXXekin zuriago garbituko duzu”. Asmatuiko komunikazio egoeran igorlea ama bat izan da eta hartzaila haren alaba. Gaur egungo publizista zorrotz batek horren egokitzena egin behar izanez gero, hartzaila aldatuko luke eta alabaren lekuan semea ipiniko luke.

Esan nahi dut, beraz, telebistan, komunikazio egoerak teleikusleari begira sortzen direla, nahiz eta ikusle horrengandik kanpokoak izan. Hartara, ia beti jarriko da helburutzat lehengo esaldia: “ikusentzule gehienek ulertu behar dute adierazitakoa”.

## HIZKUNTZA MAILAK TELEBISTAN

Beste hedabideen aldean, telebista askozaz aberatsagoa da. Ez dut esan gura diru gehiago erabiltzen duela, hori ere egia izan arren, ezpadaze telebista bidez gertatzen den komunikazioa dibertsoagoa dela. Horrenbestez, kodea ere

hainbat erataraz erabiliko da, komunikazio egoera osatzen duten gainerako elementuen arabera. Komunikazioaren tonuari begiratzen badiogu, alegia, egoera bakoitzean zaindu beharreko adetasuna, azturak eta gizalegea aintzat hartuz gero, kodearen erabileran maila bi bereziko ditugu.

— Maila zaindua: Egoera neutro edo eztabadaoari dagokio. Formaltasun handiko harremani, komunikazio alor teknikoei eta mezua artegai bihurtzen duten egoerei ere maila zaindua dagokie, baina telebistan nekezago azalduko zaizkigu horrelakoak.

— Maila arrunta: Igorlearen eta hartzaillearen artean nolabaiteko kidea, hurbiltasuna edo harremana existitzen deneko egoerei dagokie.

Maila bakoitzaren barruan, gehiago sakondu nahi izanez gero, graduak banatu ditzakegu. Maila zainduan, esate baterako, harreman oso formalek, zientzien eta tekniken esparruak eta abarrek gradu jasoagoa dute. Hala ere, funtsean, horrelako egoeretan erabili beharreko hizkera hizkera estandarra da, bai batua bai euskalkietako norma estandarra. Hizkera estandarri kutsu jaso ematen dion elementua lexikoaren hautaketa izaten da beste barik. Zientzietako hizkeran, adibidez, nekez topatuko dugu beste elementu bereizgarririk; agian, egitura sintaktiko bereziren bat, baina gehienetan formula bihurtuta egoten dira.

Maila arruntari dagokionez, aukerak askozaz gehiago dira. Batetik, aldaera bizi batez baliabide gaitzke lagunarteko kutsua emateko edo etxe barruko bizitza girotzeko edo bestelako egoerak hitzez hornitzeko. Baina hizkera estandarretik aldentu gabe, baliabideak bat baino gehiago dira. Maila jaso gura dugunean gertatzen den legez, erraz-erraza da hizkera estandarra lexikoraren hautaketa eginez moldatzea. Hartara, “txapeletik eginda egon”, “aitzurra”, “kriston aitzurra”, “ospa egin”, “Aitarenekin egin orduko” eta horrelako hitz eta lokuzioen bitartez hizkera estandarra mozorrotu eta mailaz jaitsiko dugu. Morfosintaxia ere oso lagungarria izaten da, batik bat hizkako adizki alokutiboak erabiliz gero, berez lagunarteko eta kidea kutsuko harremani dagozkien eta. Badira beste baliabide morfosintaktiko batzuk, baina, gehienetan, ez doaz kodea murriztetik baino harago.

Azkenik, ahoskera moldatzea izan daiteke hizkuntza maila apalagoa adierazteko bidea. Moldaketa era askotara egin daiteke, bokalen arteko [ɣ] eta [δ] hotsak eraztetik edo harmonia bokalikotik hasi eta hitz laburketa eta amalgamataraino.

Telebistak hizkuntza baliabide horien guztien beharra du pantailan erakusten duena sinesgarri egiteko. Dena dela, benetakoa baino sinesgarriagorik ez dago eta, horregatik, oso garbi izan behar dugu hizkuntza maila bakoitzaren muga non dagoen. Zentzugabekeria izango litzateke, adibidez, albistegietako esatari guztiei, maila zainduan aritu behar duten aitzakiaz, /h/ ahoskatzeko eskatzen hasia, aspiraziodun ebakera aspiraziorik gabekoa bezain zaindua da eta.

Donostiako korrespontsalek, hortaz, Baionakoek ez bezalako ereduak izango dute, baina denak izango dira egokiak. Hari beretik, bai [maila] eta [baina] moduko ebakerak bai [maɫa] eta [ba ɲa] modukoak maila zainduari dagozkio eta nork bere erara ahoskatzea bultzatu behar dugu. Nahastea da eragotzi beharreko gauza bakarra. Hartara, [korapiɫo] esaten duenak ez luke [mutila] esan behar edo, ahal dela, pertsona beraren hizkeran [baina] eta [espa ɲ ola] agertzea saihestu egin beharko litzateke.

Maila zainduan, horrenbestez, bat baino gehiago dira ereduak, aspirazioa edo palatalizazioa edo beste zelan ebazten diren. Inportantea da horrelako gauzak aintzat hartzea. Are inportanteagoa da, ostera, ahoskerari buruz ari garela, hortik aurrerako urratsa, alegia, barbarik berbako ebakeratik harantzago doana. Dagoeneko, batzuk jakinak dira eta arauetan jasota daude, "bait" menderagai-luak eragindako kontsonante bilkuretako fenomenoak esate baterako. Beste arlo batzuetan lehen pausoak eginda daude, azentuaren gorabeheretan batik bat. Dena dela, oso gogoan izan behar dugu, telebistan eta oro har ahozko komunikabideetan, hitzak andanaka esaten ditugula, esaldien barruan sartuta. Horri arreta berezia eman behar diogu.

Behar bezalako erritmoa, azentua eta entonazioa erabili ezean, alferrik ari gara [jokalari] gora eta [xokalari] behera, telebistaz zabaltzen diren berbaldiak ez baitira sinesteko modukoak izango "euskarazkoak ez badira nekez sinetsiko baititu inork". Horregatik, hain zuzen, azken urteotan, Euskal Telebistako hizkuntzalarion ahaleginak arlo horretara bildu ditugu.

Orain arteko esperientziatik ondorio xume bi atera dugu. Lehena, errazagoa dela euskal prosodiaren araberkoa zer ez den esatea, zer den esatea baino. Bigarrena, euskal doinu jatortzat har ditzakegunen artean ez dugula arrazoirik aurkitu bat hobesteko edo beste bat gaitzesteko. Eta korolario gisakoa: zail baino zailagoa dela inori euskaraz ondo entonatzeko irakastea.

## EGUNEROKO JARDUNA

Euskara batuak ez du orain arte arauzko ahoskerarik izan, baina horregatik ez da latinaren moduko hizkuntza mutua izan, euskalki bizien oinarria izan du eta. Hartara, batzuetan hobeto, beste batzuetan txarrago, gehienetan paperean idazten denari hurbiletik jarraituz, euskara batua mihi-ezpainetan ibili da ia hasieratik eta ahozko komunikabideetara ere heldu zen orain dela urte asko.

ETBn bide zabala utzi diegu euskararen berezko doinutzat har ditzakegun guztiei eta ebakera kontuetan oso murriztapen gutxi ezarri dugu. Konturatuta geunden maila zaindurako eredu baten premia zegoela eta murriztapen apurrak horri begira pentsatu ditugu. Ahoskeraren gaineko IV. Jardunaldion ostean,

Euskaltzaindiak erabakita utziko du maila zainduari dagokion ebakera. Arau berriak samur-samur hedatuko dira Euskal Telebistan, orain arte bultzatu dugun eredia ez baitabil oso urrun.

Gure esperientzia inori baliagarria bazaio, orain arte urratu dugun biderean berri eman gura dut labur-labur. Zehaztu ditugun jarraibideen artean badira batzuk batere zalantzarik egin gabe onartu direnak, /s/ eta /s/ edo /ts/ eta /ts/ bereizi beharra adibidez. Hala ere, nekeza da ohitura hartzea, batik bat bereizketa berez egiten ez dugunontzat. Arazorik handiena, dena dela, hizkuntzatik kanpoko eraginak sortzen digu. Oso zabal dabil euskal abizenak erdarazko moduan ematea eta ohartu ere egin gabe esatariek [arφaλus] eta horrelako bihurrikeriak ahoskatzen dituzte [arsaλus] behar den lekuan. Esan gabe doa eragin txar hori euskal abizenen azentuan ere nabari dela. Horren errua ezin zaio axolagabekeriari egotzi, esatariek jartzen duten arduraren adibideak ere asko dira eta: [gonsales] eta [barrjónwebð] esate baterako.

Beste kasu batzuetan aldez aurretik jakin dugu ohitura aldatzea gaitzagoa izango zela eta, horrenbestez, mailakako prozesua pentsatu dugu. Hori izan da /j/ hotsaren kasua. Batetik, albistegietako aurkezleei beti /j/ ahoskatzeko eskatu genien eta hala egin dute aspaldi honetan. Gainerako esatariei /jan/, /jo/ eta horrelako hitz hasieretan saiatu daitezela eskatu diegu eta dagoeneko nahiko errotuta dago ebakera hori, are haragoko kasuetan ere. ETBn sarri-sarri entzuten da, adibidez, [juštisia]. Honetara heltzeko, zalantza barik, aurkezleen ospez baliatu gara, bai baitakigu eredu direla beti. Oso lagungarria izan da, halaber, “ihardun”, “iadanik”, “Yerusalem” eta horrelako trikimailu grafikoak erabiltzea.

Izen berezietan, gainera, aparteko ahalegina egin dugu /j/ ebakera indartzen joateko, batik bat Euskaltzaindiak erabakitako toponimoen kasuan. Gehienetan, beraz, /aljeria/ eta /jamaika/ ahoskatzen dute ETBko esatariek. Hari beretik, oso ohizkoa izaten da /georgia/ eta /norbegia/ ahoskatzea ere.

Horrelako ebakerak bultzatzeko, esan dudan legez, trikimailu grafikoez baliatu gara askotan. Gauza jakina da nahi gabe idatzizko testura makurtzen dela ahozko hizkuntza sarritan. Gure kaltetan barik gure onerako aprobeixatu dugu begietatik sartzen denaren indarra eta, hartara, “Yaponia”, “eztuzu”, “batipat”, “egin ezker” eta beste hainbat grafia bitxi erabiltzen dugu hobesten ditugun ebakerei leku egiten joateko. Ez da jokabide sistematikoa, horrela idatzitako testua ernegarri izaten baitzaio ortografiara ohituta dagoenari, baina oso erabilgarria da zaindu beharreko ebakerei arreta emateko. “Ori-o” edo “Deri-o” ikusten duenak, esate baterako, nekez ahoskatuko du [órjo] edo [dérjo]; bai, ordea, [orio] edo [derio].

Sasoi batean sekulako iskanbila sortu zen ETBn /saraxebo/ esaten genuelako. Haatik, [órjo] edo [dérjo] entzuteagatik ez du inork ezer esan inoiz. Edonola ere, ebakera horiek erdarak eta erdal komunikabideek euskaldunengan du-

ten eraginaren adibide bat baino ez dira, baina euskal komunikabideetako beharginek ahalegin handia egiten dute uztarri hori gainetik kentzeko. Denbora asko ez dela, esate baterako, ETBn direnak eta ez direnak egin genituen /ben-xamin netanĵau/ ala /beniamin netanĵahu/ esan behar den argitzeko.

Dena dela, horiek eta antzeko beste hainbat banan-banako ahalegin apalak baino ez dira. Helburu nagusia handiagoa da: egunetik egunera euskara ego-kiagoa, zainduagoa eta egoeran-egoerakoagoa erabiltzea.



## ARAUAK EGUNEROKOTASUNEAN

*Doneztebe, 1998-IX-26*

*Julian Beloki,  
Euskadi Irratia/Euskadi Gaztea. Zuzendaria*

Euskarazko irratigintza ez da atzo goizekoa, beste batzuekiko gaztea bada ere. Esteban Irigoien Aranazko erretore zela, herritarrentzako irradi-emanaldiak euskaraz egiten hasi edo-ta *Loiola irratia-k* lehen saioak aideratu zituenetik eta orduko *La Voz de Guipúzcoa*-n baserri-giroko berriketaldi haiek entzun zitezkeen garaitik, urte asko joan dira eta ibilaldi luzea egin da. Gaur da eguna, euskarazko irratigintza inoiz baino indartsuago eta oparoago agertzen zaiguna.

Enpresa-egitura, lan-talde, zabalkunde-indar eta diru-baliapidez, Autonomia Erkidegoko irradi publikoak, *Euskadi Irratia* eta *Euskadi Gaztea* guztien buru, ia Euskal Herri osoan ez ezik, gure mugez gaindi ere entzun daitezkeela. Baina, beste izen nagusi asko dago gaurregun euskarazko irratigintzan, zein bere esparruan: Baionako *Gure Irratia*, *Irulegikoa*, *Xuberoko Boza* Maulen, Iruñako *Euskal Herria Irratia* eta, beste batzuk gogoratuz, *Bizkaia Irratia*, *Oñatiko Udal Irratia*, *Xorroxin Irratia*, *Arrate Irratia*, *Lekunberriko Udal Irratia*... Horiek guztiak behintzat bai —eta litekeena da bakarren bat ahaztu izana ere—, euskaraz baino egiten ez duten irratien artean.

Garai batean, Nemesio Etxaniz, Maria Dolores Agirre, Atxukarro, Iñaki Eizmendi “Basarri”, Jose Mari Iriondo, Zesareo Elgarresta, Juan Mari Iraola-goitia, Karmelo Otaegi, Eguzki, Ixiar Sagarzazu, Iñaki Zubizarreta, Jose Ramon Beloki eta, orotara ere, izen nagusi gutxi batzuk baino ez ziren lekuan, irradi idazle eta hizlari mordoak dabil gaurregun, modu askotako gai, albiste eta kontakizuen peskisan. Lantzen eta aideratzen diren irradi-generoak ere hein berean ugaldu direlarik.

Hori bai, lehen bezala gaurregun ere, galtzak bete lan izaten dugu, entzuleak erakartzen, entzulea gureganatzen, horretarako gaiak aukeratzen, informazio-iturriak lantzen, saioak itxura erakargarri jazten eta mikrofono aurreko emanaldiak txukuntzen. Ez baita entzulea batere kontentaeraza. Alderantziz: gauza iheskorra baita entzulea eta gero eta iheskorragoa gainera. Eta irratien arteko kompetentzia berriz, haundia. Eta, apenas, ia, inork, euskaraz aritze hutsagatik hautatzen gaituen.

Dena den, soziologoeok eta entzulegoari buruzko ikerketek diotenez, emaitzak, orohar, onak dira. Eman dezagun, bagarela seiehun mila euskaldun. Ba hirutik batek euskarazko irratiren bat entzuten du egunean zehar. Hori asko da, gure gizartean irratia entzuteko dauden bataz-besteoko ohiturak kontuan hartzen baldin baditugu. Egin kontu, entzule gehien biltzen den orduan, goizeko 11-ak inguru hortan, bataz beste 430 mila lagunek entzuten dutela irratia, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan, eta horietatik 70 mila pasatxok euskarazko irratiren bat hautatzen dutela. Euskadi Irratiak berak bakarrik, 40.000 entzule elkartzen ditu goizeko ordu horretan, 11-ak inguru.

Esan gabe doha, beraz, gaurregun, gurasoen ahoz-ahokoak eta irakaskuntzak duten garrantzi eta indarraren osagarri, telebista eta gero, seguruenik, irratia dela hizkuntzaren zabalkunderako tresna edo baliapide haundietako bat. Hala ote, benetan? Erantzun-modu bat badago hor, Euskara Batuaren ahoskera zainduari buruzko arauak jasotzen dituen idatziaren atarikoan. Hitzez hitz: "Irrati eta telebista euskaldunak ditugunetik bereziki ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezko iruditzen zaio bati baino gehiagori. Eskari horri erantzunez ematen ditu ondoko arauak Euskaltzaindiak...".

Arauok, ekainean onartu eta udazkenarekin batera iritsi zaizkigu jendartera, aurten, beraz, 1998an. Hau da, Euskadi Irratia bera, ia hamasei urte betetzera doanean eta Euskadi Gazteak berak ere 8 urte badaramatzanean. Hau da, guk geuk bakarrik, bi irratiosk bakarrik, 180.000 irradi-ordutik gora bete eta gero, lau haizetara zabaldu eta gero. Ehundaka hizlari-erredaktore, aditu, laguntzaile, entzule eta gonbidaturen hitzak, urte guzti horietan, entzule izan ditugunen belarri-ertzetan utzi ditugunean. Eta honekin, hauxe baino ez dut esan nahi. Guk ibilian-ibilian, bide luzea egin dugula eta ibilaldi luze horretan, irratigintza bera bere osotasunean izan dugula kezka nagusi, halabeharrez, hizkuntzaren zuzentasun eta egokitasunak, ildo sakon, akademiko bakarretik bideratzen saiatzea baino areago. Eta ez lehen eta ez orain, ez ditugu beti ongi lotu izan irratilari edo kazetari-sena eta euskal sena, hau da, etxeko bular-altzoetan ikasi eta naturaltasun osoz eguneroko bizitza ia erabat euskaraz egin izan dutenek hain aberats gorde izan duten berezko sen hori. Eta, tamalez, esperientziak behintzat hala erakutsi digu, kazetaritza ikasketak egin eta EGA tituluaren jabe direnengan ere, hizkuntzarekiko begirunea, erabilerarako zuzentasuna eta egokitasuna ez dira beti gure belarrien gozagarri izan ohi.

Horregatik, Euskara Batuaren Ahoskera Zainduari buruzko arauon atarikoan irakurria gogoratu baino ez dut egin nahi: "Ahoskera kontuetan ohiturak aldatzea zein zaila den kontuan izanik, ohartzen gara, oraingo arau hauek denbora gehiago eskatuko dutela idatzirako ematen direnek baino".

Hori esanik, esan dezadan baitare, sentitzen eta pentsatzen dudana bezalaxe: ongietorri bitez arauok, karpeta eta CD-ROM-etan jasotzen ohituak gauden beste guztiak bezalaxe eta egin dezagun, orain, zubigintza, Euskaltzaindiaren —kasu honetan ahoskerari buruzko arauok landu dituen batzordearen— eta

irratietako hizlarien artean, hau da, araugintzaren eta erabilpenaren, hizlarien eta entzulegoaren artean. Eta esandakoak, nik hala uste, euskaraz diharduten irрати guztientzako balio beharko luke.

Arauei dagokionez, zenbait ataletan, gehienetan, hurbiltasun haundia dagoela esango nuke, proposatzen eta erabiltzen ari garenaren artean. Eta hemen bai Euskadi Irratiaz eta Euskadi Gazteaz ari naizela, horietxen ardura daukadanez. Gure esaterien artean, gehiengoak darabil ahoskera aski zaindua; alde horretatik, nahikoa arautua dagoela esan genezake. Baina, bestalde, badira atal edo arau batzuk, erabiltzen ari garenaren eta proposatzen denaren arteko alde haundiarekin; haundiegia ere bai, agian.

Ni gaiotan aditua ez naizenez —egia esan, ia hobe nuke ixilik egotea, baina, tira...—, antzeman ditudan gai batzuk aipatu besterik ez ditut egingo:

— Esatari batzuk, hezur-muinetan txertatua daukate “yeismoa”. “Autopis-tako bigarren *karriya* itxi dute”. “Juan Carlos Ayi, CDNko presidentek *biyera* izan du”. “*Makayaua* jaten hasi gara...”. Ezingo dugu ontzat eman, ez, baina, apenas, belar gaiztoaren antzera, sorotik erabat desagertazterik badagoen.

— *Behi, nahi, ahula... bei-nai-aula*, horiek diptongo egiteko joera haundia dago. “*Bei* euskaldun baten memoriak”, maizago esaten dugu horrela “*Behi* euskaldun baten memoriak” baino. Hortan utzi beharko al genuke?

— Pertsonak alditan *pertxona* izaten dira eta, gero, *personalitatea* ere izaten dute. Eta Felipe Gonzalez *socialista* da. *Ciudadea. Unibersitatea. Falsua. Z/S - TS-TZ-TX* bereizten, *tasia, sexua* eta antzekoetan, arazoak agertzen dira bai, baina, bakanago. Orohar, izen propien gorabehak kenduz gero, arrastoan gabiltzala esango nuke.

Egia esan, ez ditugu beti betetzen arauak aitatutako kasu horietan, baina, badago oraindik ere urrutiago daukagun araurik:

— Garcia Marquez-ek, hainbat zipristin harrotu zuen “*Botella al mar para el Dios de las palabras*”, artikulua ospetsu hartan, gazteleraren ortografiak ziharduela, besteak beste, zera zioen: “*Firmemos un tratado de límites entre la ge y la jota*”. Egia aitortu behar badizuet, ahoskerari dagokionez, horko *geologia, geografia* eta gainerakoak, den-denak jotaren erreinura eramango nituzke nik, neuregatik balitz, eta *joku, jokalaria, janari, jaun, jai, jarraipen* eta besteak ere talde berean utziko, *zijoan eta zijoazen* eta horiek bezala *jertse, jira, jipoi, ijito* eta abar horrelaxe esateko lizentzia eskertuz. Honekin adierazi nahi dudana, hortan, orohar, proposatzen den araubidetik urrunago gabiltzala, urrunegi ez esatearren.

Gainerakoan, *ezkara, ezpada, etzara, etzetozela, esantzuen, emantzion, enaiz* eta horrelakoak, hizlari bakoitzaren jatorriaren arabera dago asko, bai, baina, orohar eskuraerazago ikusten ditut erabilera horiek.

Baina, tira, ez nadin luza, bistakoa denez, nik baino irizpide zuzen eta zorrotzagoz aztertu dituzue eta kontuok. Ez dagokit niri, arau horien alderdi formalaz mintzatzea, hortaz jakin ere ez dakit eta.

Esan dizuet lehen ere. Gure eguneroko martxan, galtzak bete lan izaten dugula, hizkuntzaren egokitasun/zuzentasunak azken xehetasunetaraino zaintzen baino areago, beste betebeharrak batzutan. Eta, komunikabideok hizkuntzaz egiten dugun erabilpenaren kezka, ba egia esan, ez da gurea bakarrik.

Lazaro Carreter hizkuntzalari ospetsuak, adibidez, erredakzio guztietarako estilo liburu bakarra eskatzen zuen, oraindik orain, hizkuntzaren, gaztelaren egokitasun eta zuzentasunaren mesedetan. Bestalde, jakina da, Ipar Ameriketara, hizkuntzalari eta idazle asko eta askok hainbat gaitzesten duten *spainish*-aren oihartzun bilakatuak direla hainbat hedabide, entzun-ikusizko hedabide. Espainolaren erabiltzale jakitun askok gaitzesten dutenari, indar berriak eman eta entzuleen artean arrakasta lortuz gainera.

Quebec-eko Gobernuko Edith Bedard-en hitzok gogorarazi dizkit egunotako gogoetak:

“Depuis 25 ans, c’est l’oralisation du français qui marque, par le poids de son omniprésence dans les échanges, les normes usuelles de la langue”.

“Cette transformation répond assurément aux impératifs de la vie contemporaine et à la préoccupation constante de communiquer. La transmission orale s’est imposée pour traiter ‘à chaud’ et de façon immédiate les informations d’actualité... (...) Les nouveaux messages ont des caractères communs, ceux d’un français plus lâche, moins élaboré, plus pauvre au niveau de chaque locuteur, mais qui, globalement, autorise la multiplicité des variantes antérieurement écartées au titre de vulgarismes” (1).

Hor nonbait gabiltza ba, gu ere.

Gure eguneroko esperientziara itzuliz. Gero eta kazetari eta esatari gehiago dago, ume-umetatik hasita, ikasketa guztiak euskaraz egin dituenak, EGA tituluduna, baina, tamalez, sarri askotan, ez dira pareko izaten kazetari sena eta euskararen sena. Idatzizkoari lotuegia, prosodia eskasekoa, errejistrorik gabea... Eta hori ahoskerari dagokionean ere antzeman ohi da.

Nik baino hobeto izendatzen dituzte hizkuntzalariek, adituek, gure gabezia horiek. Eta hor daude. Baina, kalean ere, euskaldunon artean ere, hizkuntzaren erabilera xeberre asko entzuten da. Bazenekite neure etxean bertan 5 urteko alabari nolakoak entzuten dizkiodan! Eta hirugarren urtea aurten egunero ikastolara joanez!

(1) *La problématique de l'improvisation* 39. or. *La qualité de las langues: survol des préoccupations récentes* - Édith Bédard. Gouvernement du Québec. Conseil de la langue française 1979.

Arazo eta kezkabiderik ez da falta. Baina inoiz baino biziago ari gara. Horregatik, Euskaltzaindia argitaratzen ari den arau guztion inguruan, orain, bereziki Euskara Batuaren ahoskera zainduari buruzkootan, lehen aipatzen nuen zubigintza horretan saiatu beharko dugu. Baita euskarazko irration ikuspegitik ere. Eta arduradun naizenez, Euskadi Irratiaren eta Euskadi Gaztearen ikuspegitik ere bai, zehazki. Lehenik eta behin, gu geu, irrati euskaldunetako esatariok bide egokian jartzeko eta, gainera, entzuleekiko zubigintza modu egoki eta erosoan egiteko.

Irratilariorik, telebista aurkezle, pelikula bikoizle, errezzitzaile, ipuin kontalari, irakasle, sermolari, antzesle eta abarrekin batera, bitartekari egokiak izan gitezke, Nursiako San Benitok bere monastegiko fraideen artean ezarri zuen eta geuk ere ezagutu izan dugun hura, hau da, otorduetan ozen, boz-gora irakurtzearena gure egunotara egokitzeko. XIX. mendean Kubako zigarrögileen artean ere, fabriketan alegia, modan egon zen puruak egiten ari ziren bitartean kontu entretenigarriak entzunaraziko zizkien irakurle profesionalak edukitzea. Gaur mundu guztiak irratia edo telebista pizten du. Hor behar ditugu, beraz, Euskara Batuaren ahoskera zainduaren eredu izango diren irakurle onak. Zinez, diotzuet, Euskadi Irratiak badauzkala eredu on askoak, entzuten dituzuen guztiak erredugarri ez izan arren.

Arratsaldeon izan dezazuela!



## IV. AHOSKERA JARDUNALDIAK:

### Ondorioak

*Doneztebe, 1998-IX-26*

1. Ahoskera lantaldea hizkuntzalari, hedabide-ordezkarari eta lau probintzietako irakasleek osatu dute, 1994rako Ahoskera batzordeak proposatua denon artean landu delarik. Elkarlana benetan aberasgarri gertatu da eta emaitza hemen eskaini da. Hemendik aurrera ikertzaile, irakasle eta prentsa eremuko profesionalok lan-bilkura gehiago burutu behar genuke jardunaldiotan aipatu direnak ikertu eta sakontzeko.

2. Beraz, ahoskera lantalde hau bezalako beste asko sortu beharko lirake ahoskeraren inguruko lanak egin, ikertu eta bultzatzeko: Euskaltzaindiaren arauak nola erabili, zabaldu eta osatu tokian-tokiko eta kasuan-kasukoaren arabera. Triste izango litzateke arau-emaile, ikerlari eta erabiltzaileen arteko zubitusunaren abiapuntua izan gura izan duen lantalde honek bere lana bukatuta, besterik sortuko ez balitz.

3. Donezteben egindako jardunaldion antzekoak gehiago antolatu beharko litzuzke Euskaltzaindiak gerora ere, honelakoak besteon lanaren akuilu izan baitaitezke. Besteoi, ordea, lana gelditzen zaigu. Mundua ezin da arau-saltzaile eta arau-erosle taldeetan, besterik gabe, zatitu. Hemen hasitako eztabaidak jarraipena behar du. Ezin gara ezer egin gabe gelditu ea Euskaltzaindiak ahoskera arazoak nola konpontzen dizkigun. Denok dugu zeresana gai hauetan, ahoskera erabilera esparruen finkatzea, arauen irakaskuntzaren nondik-norakoan sakontzea, eta abar erabiltzaile profesionalen lana dira.

4. Aipatu puntuok kontuan izanik, on litzateke hurrengo jardunaldietan partaidetza aktibo handiagoa izatea bai esatari, kazetari, ikertzaile, ikasle eta irakasleen aldetik. Izan ere, eztabaidaren bidez arau daiteke ahoskera eta ez arau zerrenda itsuen bidez. Batetik, asko dugu denok honetan elkarrengandik ikasteko. Bestetik, ahoskeraren arautzea behar bezala egingo bada, beharrezko da arau-emaile eta hartzaileen arteko komunikazio garbi eta zuzena.

*Miren Lourdes Oñederra,  
Ahoskera azpibatzaile arduraduna*





**JUAN ANTONIO MOGELI OMENALDIA**



## JUAN ANTONIO MOGELI OROITARRIA ETA OMENALDIA

*Markina, 1998-IX-29*

*Jose Antonio Arana Martija*

Ordu batean egin zen Xiri Andonegi eskultoreak egindako oroitarriaren inaugurazioa. Berrogeita hamar harri-bloke dira zeinen gainean agertzen den Mogelen *Peru Abarkatik* hartutako testu bat, harri bakoitzean letra bat jarriz. Oroitarri hau Lea-Artibai Teknik-Ikastetxeko parkean jarri dute, Xemeingo elizaren aurrez aurre. Berezia da benetan eta laberinto eran jarriak direnez harriak, modu bitxian irakurri behar da testua.

Ikastetxeko zuzendaria den Juan Urrutia Txopiteak egin zuen eginkizunaren aurkezpena, eta Lauren Aretxabaleta Goikoetxea, Markinako alkateak ere hitz egin zuen markinarrei eta Euskal Herriari eskainiz oroitarria eta Mogelen mezua.

Hizlariak ordena honetan aritu izan ziren: Jose Antonio Arana Martija, Euskaltzaindiaren izenean “Juan Antonio Mogel eta Markinako euskara” gaia erabiliz. Xabier Elorriaga, eskultoreak eta EHUKo irakasleak azaldu zuen eskulturaren berezitasuna artearen aldetik. Gero mintzatu ziren Josune Ariztondo, Tomas Uribeetxebarria eta Eneko Oregi. Azkenean hitz egin zuen Xiri Andonegi eskultoreak.

Ahamen batekin bukatu zen ekitaldia. Hizlariak, aginteak eta beste aukeraturako batzuk (50 pertsona inguru) Itsas Lur izeneko jatetxean bazkaltzera gonbidatuak izan ziren.

Alboan doa euskaltzainak irakurri zuen hitzaldia.

### **Juan Antonio Mogel eta Markinako euskara**

Duela hiru urte, 1995.eko abenduaren 22an, ospatu genuen hemen, Markinan, Juan Antonio Mogel Urkiza (1745-1804) jaio zenetik 250. urteurrena, Euskaltzaindiak antolatutako erakusketa batekin eta Mari Karmen Garmendiak emandako hitzaldiarekin. Segida ematen genion Eibar jaioerrian hil bereko 6an egindako ekitaldiari. Urteurrena ospakizun hori borobiltzeko, Labayru Ikastetxeak argitaratutako liburua kaleratu zen egun haietan: *Ipuinak*, non Xabier Al-

tzibar Aretxabaleta, euskaltzain urgazleak, Etxebarriko semeak bestalde, bildu zituen Mogelek idatziriko ipuinak, argitaratuak batzuk, baina sakabanatuak, eta argitaragabeak besteak. Gero esango dudanari aurrea hartzeko esan dezadan orain Altzibar adiskideak eman zizkigula 1992an hainbat datu eta xehetasun Mogelen bizitza, idazlan eta berarekiko bibliografiaz Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu zuen *Bizkaierazko idazle klasikoak* liburuan.

Mogeli buruzko ikerlanak asko izan direla aitortu behar da, baina bi aukeratu ditut, euskaltzainek idatzitakoak baitira eta eduki handikoak. Juan San Martinek, Juan Antonio bezala eibartarrak, kaleratu zuen 1959an *Juan Antonio Mogel eta Urkitza. Bere bizitza eta lanak* liburua. Hogeita hamalau urte lehenago, 1925.eko ekainaren 25ean, Karmelo Etxegaraik Euskaltzaindian sarre-ra hitzaldian, *Mogeldarrak eta euskera* erabili zuen aztergai. Eta izenburu honek ematen dit aukera, aurrera jo baino lehen, hiru idazle Mogeldarrak labor baino ez bada ere aipatzeko. Juan Antonio, abadea eta hurrengo osabaz ez naiz orain arituko. Lobak zituen Juan Jose eta Bizenta, nebarrebak. Lehena (1781-1849) Deban jaioa, osabarekin ikasketak egin zituena, hura bezala abade eta 1811tik aurrera Xemeingo parrokoa. Bigarrena, Bizenta (1782-1854) Azkoitian jaio zen, baina haurtzaroan osabarekin bizi izan zen Markinan. *Ipuionak* liburua argitaratu zuen Donostian 1804an, gehienak osabaren eskuizkribuetatik hartuak. Beraz, Mogeldarrak (osaba eta loba) izan ziren Euskal Herriko lehen ipuinlariak, Juan Antonio osaba idazterakoan eta Bizenta loba inprimatzerakoan. Markinatik sortzen zaigu bada euskal ipuinlaritza.

Markinan mintzatzen omen da bizkaieraren hizkerarik hoberena. Ez noa markinarren aurrean esate eta sineste hori ukatzen. Baina bai aitortu behar dut hemen sortu zela bizkaiera literario edo idatziaren gunea. Pedro Antonio Añibarro areatarra eta frantziskotarra (1748-1830) aparte utzita (aurten eskaini dio Euskaltzaindiak Areatza jaioterrian omenaldia, jaio zenetik 250 urte bete direnean), eta Mogeldarren iruzkinak gerorako utzita, esan dezagun hemen bizi izan zela eta idatzi zuela Etxebarriko Bartolome Madariagak (1768-1835), Prai Bartolome de Santa Teresa izenarekin, karmeldarren artean ohitura denez, ezagutua. Ama markinarra zelako, hemen bizi izan ziren eta Markinako euskara erabili zuten Pedro Astarloa frantziskotarrak (1751-1821) eta honen anaia zen Pedro Pablo Astarloa (1752-1806) apologistak. Ezin dugu ahaztu Jose Antonio Uriarte (1812-1869) Arrigorriagan jaioa, frantziskotarra hau ere, esklaustrazio garaian, hots, 1840an Markinara etorri zela eta hemen jardun zuela euskararekiko lanetan 1859an Bermeoko komentura joan arte. Bizkaiko zein herritan aurki dezakegu halako euskararen mintegi eta lorategia?

Wilhelm Humboldt hizkuntzalari alemana Euskal Herritik ibili zenean 1801ean, Markinako euskara garbiena zela eta, urte horren maiatzaren 4an Bizkaiko hiri honetara etorri zen, Muniberen jauregian ostatua hartuz. Juan Antonio Mogelek bilerak egin zituen eta gero gutunezko harremanak izan zituzten. Mogelek berak diosku Markinan ezagutu zuela eta luze mintzatu zirela euskarari buruz eta iberismoaz. Humboldten eta Mogelen arteko harremanak

Justo Garatek aztertu ziteun *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel* (1936) liburu ederrean. Louis-Lucien Bonaparte printzea ere, Markinako euskara garbiena zela eta hiri honetan agertu zen 1856.eko irailean. Han zegoen lehen aipatu Jose Antonio Uriarte eta idazle eta itzultzaile honetaz baliatu zen *San Mateoren Ebangelioa* (1857), *Salomonen Kantuen Kantua* (1858) eta *Asteteren Dotrina* (1862) Markinako euskararen Londresen argitaratzeko.

Euskaltzaindiak *Euskalzaleen Biltzarra* antolatu zuen Mogelen gorazarrez Eibarren 1959.eko azaroan. Hainbat euskaltzain eta euskalzale bildu eta mintzatu ziren, eta Arantzazuko bilera famatua baino lehen (1968koa) Euskaltzaindiaren eginkizun bati ekin zioten, euskara batuari noski, Mogelek honetaz izan zuen iritzia aztertuz. “Mogel arduratu zen —esan zuen Irigarai— idazteko tankeraz, maileguez eta euskalkien hurbiltzeaz. Berak jarritako bidea jarraitu bagenuen, ez ginen euskara idatziaren batasunetik hain urrun izango”. Euskal ortografiari dagokionetik Mogel, Añibarro eta Duhalde ditugu berriztatzailak XIX. mendearen hasieran. Martin Duhalde (1753-1804) lapurtarraren *Meditacioneac gei premiatsuen gainean* liburua bera hil ondoren (Mogel hil zen urte berean hila) 1809an argitaratu zen. *b, g, z, k* kontsonanteen erabilera proposatzen du. Mogelek, ostera, arrazoi pedagogikoengandik, ez ditu *k* eta iparraldekoen *h* onartzen; eta Markinako ahoskera eredutzat hartuz, *f* ere baztertzen du. Juan Antonio Mogel gehiago lotua zen Markinako euskararekin eta Pedro Antonio Añibarro -Villasantek dioenez- baturako bide hobean zebilen: markinarrak *betia, maitia, osua, ogija, eztija, buruba* idazten zituen, eta besteak, ordea, *betea, maitea, osoa, ogia, eztia, burua*. Euskara batura heltzeko bidean, Añibarro dugu eredu hobea, hain zuzen. Dena den, R. M. Azkuek biak hartu zituen eredutzat, eta Mogelen *Konfesiño ona* eta Añibarroren *Esku-Liburua* berargitaratuz. *Peru Abarca*-ren hitzaurrean dioskunez, Markinan, Lekeition eta Elorrioren bakarrik erabiltzen dira Bizkaian *-ia, -ja* eta *-ba*, baina Añibarroren formak hobeak diren arren, ez da ausartzen Markinako seme baten ahoan ahoskera arrunta jartzen.

*Peru Abarca* aipatu dut. Mogelen idaz-tankeraz, baseritarren mintzairan zeudela euskararen iturri gardenak baieztatzen zuela esan behar, idazterakoan ere hau zela oinarria sinesten zuen eta: Peru Abarka baseritarra da euskara ondo dakiena eta ez Maisu Juan bizargina, euskara traketsa darabilena. Hara hor Basarte Unibertsitateko irakasle eta ikaslea. Edozein gaiz idazteko euskararen aberastasuna erakutsi eta irakatsi nahi digu Mogelek, ez lexikoan bakarrik, beste hizkeraren arloetan ere. Bestalde garbizalea eta ez garbikeriazalea zen Mogel. Euskara ulergarri on bat nahi zuen, euskaldunak euskaraz hitz egi-tera eta idaztera bultzatuz. Euskaldunen alferkeria eta nagikeria astindu nahian zebilen idazkietan, eta horretan ziharduen eten gabe.

*Peru Abarca* ezagutzen zutenek gutxi ziren, 1881ean Durangon argitara eman arte bizpahiru eskuizkribu ibili ziren eskuz-esku eta. Kaleratu ondoren irakurriko zuen liburu hau Migel Unamunok, behar bada Gernikan, Concha Lizarraga emaztegaiaren etxean. Unamunoren hitzak dira hauek: “Peru Abarca

egundaino idatzi den libururik edo behintzat nobelarik onena da". Ez zuen irakurri Unamunok Domingo Agirre ondarrutarraren *Auñemendiko Lorea*, Azkueren *Euskalzale* aldizkarian saritua eta aurten argitaratu zenetik ehun urte betetzen dituen. Baina Unamuno aipatu badut, ez da euskal literaturan bere iritziak pisuzkoak direlako. Beste bide batetik dator aipua: Unamunok euskaraz idatzi zuen apurra Markinako euskaraz idatzia da. Arrazoiak? Mogel maite zuelako, Humboldt eta Bonaparteren iritziak, hizkuntzaren kalitateaz, onartzen zituelako, baina, gehien bat, emaztegai eta emaztearen etxean markineraz egiten zelako. Concha Lizarragaren ama Josefa Ezenarro zen, eta hau Markinan jaio-tako Balentin Ezenaroren alaba. Balentinek zeredozer euskaraz argitaratu omen zuen, eta euskal dantzen maisua izan zen. Concharen aitona hau Unamunorekin ezkondu baino urte bete lehenago hil zen Gernikan. Hara hor zein zen emaztegaiaren etxean zegoen giro euskalduna. Baina beste hipotesi bat ere atera dezakegu Ezenarrotarren jatorritik. Etxebarriko *Atzorin* etxeokak ziren. Pio Baroja, Zestoako sendagilea, eta Miguel Unamunorekin harremanak zituen Jose Martinez Ruiz idazle espainiarrak. Zestoa eta Urberuagako bainuetxeetara etorri zela badakigu, eta frogatu beharko dudan hipotesia da inoiz Atzorinen ostatua hartuko zuela bidaian, baita erabili zuen *Azorin* ezizena. Gera bedi oraingoz horretan nire susmoa.

Ehun urte lehenago, 1788an Xemeingo parroko izendatua izan zen Juan Antonio Mogel, bizkaierazko literaturari hasiera eman zion idazlea izan zen. Badu merezimenderik gaur eskaintzen diogun oroitarria eta omenaldia jasotzeko. Hala biz.

**EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENAK  
ETA AGIRIAK**





## **EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK**



## EUSKARA BATUAREN AHOSKERA ZAINDUA

### ATARIKOAK (1)

#### Batasuna zertarako

Arantzazuko Biltzarrerako prestatu zuen txostenean, Euskara Batua euskara idatzirako zela mugatu zuen Koldo Mitxelenak eta, euskara idatziaren barrutian, irakaste lanetarako. Irrati eta telebista euskaldunak ditugunetik bereziki ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezko iruditzen zaio bati baino gehiagori. Eskari horri erantzunez ematen ditu ondoko arauak Euskaltzaindiak, beti ere gogoan izanik hizkera zaindua, maila jasokoa, erabili behar denerako direla, irrati-telebistetako berri-emanaldietarako, jendaurreko hitzal dietarako, eskolako azalpenetarako eta horien antzeko egoeretarako.

Bestalde, ahoskera-kontuetan ohiturak aldatzea zein zaila den kontuan izanik, ohartzeko gara oraingo arau hauek denbora gehiago eskatuko dutela idatzirako ematen direnek baino.

#### Zer da Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua

Euskararen Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ) ahosko hizkuntza estandarra izango da, alegia hiztun orenen erreferentzia tresna, hizkuntzaren maila formaletan erabili beharko dena.

EBAZ ez da orain arteko hizkeren ordezkotzat hartu behar, osagarritzat baizik. Ez da Euskara Batua ahoskatzeko modu bakarra eta are gutxiago, noski, euskalkiak ahoskatzeko era.

Besteak beste, horrek esan nahi du EBAZ ingurukoaz edo irakaslearen ahoskera biziaz gainera irakatsi beharko dela eta ez haren ordezkari. Era berean, on da, komunikabideek ere askotariko ereduak edo eredu malguak ematea.

---

(1) Adibideetan hitzen forma ortografikoa letra etzanean agertzen dena da: *jateko* yateko. Bigarren formak ahoskera adierazten du. Batuaren ortografian ez dauden ikur batzuk erabili behar izan dira ahoskera islatzeko: <ç>: sabaiaurreko ahostuna (Lekeitioko *ogilça* azken kontsonante hori); <y>: <j> letraren ahoskera sabaikaria adierazteko gardentasunaren izenean eta askotan egiten den <j>-[x] belarrarekiko loturaren haustea grafikoki nabarmentzeko; [x] igurzkari belarra da (gazt. *jamón* hitzaren lehen kontsonantea).

## Ahoskeraren amiztasuna eta arauen malgutasuna: Arauak nola ulertu behar diren

Arauak ematean, aintzat hartu dira:

1. Euskalki ezberdinetatik datorkigun nahitaezko aniztasuna eta, EBAZ erabiltzean, ezberdintasun minimoak izango direnak (<hau> esatean, <h> ahoskatzen dutenak eta ahoskatzen ez dutenak; <agian> esatean, <ia> silaba bakarrean ahoskatzeko erritmoan hitz egiten dutenak eta hitz hori hiru silabatan neurtzen dutenak; <garaje> esatean, <j> belarra egiten dutenak egungo gaztelaniaz bezala eta egungo frantsesaren erara egiten dutenak). Aniztasun hori gaindiezina da hizketa berri bat asmatzen ez bada behintzat eta ez da euskara berri bat asmatu nahi, duguna erabilera zaindurako baliabidez jantzi baizik.

Ahoskera arauak euskalki- edo hiztegi-eremuaren araberako gutxieneko aldakortasuna islatzen du. Ahoskera zaindurako artamendatuan aukera bat baino gehiago daudenean, aukera horiek adierazten dira (2).

2. Bada hizkuntzaren bizi-iturri den aniztasunaren beste alderdi garrantzitsu bat: hitzun bakoitzarengan gertatzen den. Hizkuntzaren funtsezko ezauzgarri da, izan ere, hizketa gertatzen den egoerara, gai duen edukiari, entzulearen ezaugarriari, hizketa-lagunen arteko distantziari eta abarri egokitzea. Horregatik, hizketa egokia hizketa malgua da: ahoskerari dagokionez oso garrantzitsu da (eta erabat beharrezko EBAZak euskara aberastuko badu) ongi ulertzea euskaraz ere, beste edozein hizkuntza osotan bezala, ez dela berdin ahoskatu behar testu akademiko baten jendaurreko irakurketan eta adiskide edo senideekiko elkarrizketan, berrien mikrofono aurreko aurkezpenean eta ama eta haurren arteko elkarrizketan. EBAZen lekua lehenengo erabilera horietan dago ez bigarrenetan.

*Minus* sarrera dagoen bezala uztea erabaki da.

*Mosu* sartzea onartu da: *mosu\** e. **musu**.

*Murmurio* hitza sartzeko eskatzen du ohargileak. Ez da onartu oraingoan. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Mustur* hitza ere zerrendan sartzea onartu da: *mustur\** e. **mutur**.

*Mutazio* hitza sartzea onartu da. Biol. marka ezarriko zaio. *Mutatu* aditza sartzea, berriz, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Mutxurdin* hitzari lagunartekoa delako oharra ezartzea ez da onartu. Dagoen bezala utzi da, hortaz.

*Nabo* sarreraz ere eztabaida izan da. Azkenean, zerrendatik kentzea onartu da.

Ondoren, H. Knörr-en oharrak aztertu dira.

*Mira* sarreran izen kategoriakoa dela adieraztea eskatzen du ohargileak. Onartu da: **mira**, iz. 'mirespena' gisa agertuko da.

*Miratu*-ren sarreran puntuazioa behar bezala ezarriko da.

*Mirakulu*-ren kasuan, ohargileak eskatu bezala, "batez ere Ipar." oharra jarriko da.

Ohargileak galdezen du ea seguru den *tximeleta* hobetsi behar dela *mitxeleta* hitzaren kaltean. Baietz erantzun zaio, dudarik gabe. *Mitxirrika* hitzarekin ere gauza bera. Zerrenda dagoen bezala gelditu da, hortaz.

*Mizkatu*-k bizkaieraz duen adiera berezia (hots: 'bizimodu erosoari emana') jasotzea nahi du ohargileak. Izatekotan, bigarren itzulirako uztea proposatu da.

*Modelo* sarrerari ez zaio inolako oharrik ezarriko, Knörr jaunak eskatuaren kontra.

*Moja* sarreran *serora* hitzarekin berdintzea eskatzen du ohargileak. Ez da onartu oharra. Oraingoz, dagoen bezala uztea erabaki da. Gero gerokoak.

*Moila* hitzari "Bizk." oharra gehitzea ez da onartu.

*Monarkiko* sarreran hitz hau *erregetiar*-en baliokide dela adieraztea onartu da.

*Morkotu* hitza sartzea bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Mostaza*-ren sarreran "h. ziape" aditzera emango da.

*Mozkin* sarreran 'etekina' dela adieraztea onartu da.

*Mozolo*-ri buruzko oharra onartu da. Horrela, hegaztiari erreferentzia egiteko ez ezik, bigarren adiera ere jasoko da: "2. irain hitza".

*Mugarritzatu* aditzari zerrendan leku egitea onartu da.

*Mundutar* sarrera aldatzea ez da onartu.

*Musker* sarreran kolorea ere badela esatea onartu da: **musker** 1. iz. *Lacertidae*; 2. izond. jas. 'berdea'.

*Mutiri* zerrendan ageri den bezala uztea erabaki da.

*Mutxiko* hitza sartzea onartu da, dantza mota bat dela esanaz.

*Muzinka*, alfabetoz dagokion lekura eramango da.

*Nabas*, bigarren itzulirako utzi da.

*Nahasi* izenondo ere izan daitekeela esango da, adibide eta guzti: "2. izond. *arazo nahasia da hori*."

*Nahaste* hitza izen eta adizlagun, biak, izan daitekeela adieraziko da. Bigarren honetarako adibide hau proposatu da: *gizon eta emakume nahaste dantzan ibiltzea*.

Hirugarren ohargilea A. Urrutia jauna izan da.

Honako hitz hauek zerrendaratzea onartu da: *miokardio*, *miopia*, *misanthropo* eta *mitiko*.

*Mitra* hitzaren azpisarrera gisa *mitradun* ere sartzea onartu da.

*Misto*, 'pospolo' adierarekin, bigarren itzulirako utzi da.

*Modernismo* hitza sartzea onartu da.

*Mokil* ere sartzea onartu da, Bizk. dela esanaz eta 'mokorra', 'zokila' adiera duela azalduz.

*Molestatu* hitzaren adiera eta erabilera-maila hobeki zehaztea eskatzen du ohargileak. Dagoen bezala uztea erabaki da.

*Monogamia* eta *monolito* hitzei ere sarrera eskaintzea onartu da.

Bestalde, *more* izenondoaren parean *moretu* aditza ere sartzea eskatzen du ohargileak. Ontzat eman da: **moretu**, more(tu), moretzen *da-du* ad.

*Moskatel* bigarren itzulirako utzi da.

*Motz egin* aditzari sarrera ematea bigarren itzulirako utzi da. Erabaki bera hartu da *mugaegun*, *mugape* eta *nabaritasun* hitzei buruz.

Hortaz aparte, puntuazio oker batzuk badira *muin eman* eta *murmurazio* sarreretan. Horiek zuzenduko dira.

Azkenik, eztabaidarako utziak ziren hitzak hartu dira aztergai.

*Misionest* hitzari buruz, zalantza dago ea *misiolari* hobetsi behar den ala ez. Iritzi desberdinak entzun ondoren, zerrendan hitz hori dagoen bezala uztea erabaki da.

Ondorengo eztabaida luzea *moneda/moneta*-ri buruzkoa izan da. Ekonomia kon-tuetan aritzen direnek behar duten hitza omen da. Ez omen da aski *diru* hitzarekin, nahiz eta hau izan den gehien erabili izan dena. Azkenean berdindu dira iritziak eta hona hemen hartutako erabakia: *moneda*\* e. **moneta** batetik. Eta bestetik, berriz, **moneta**, 1. h. **diru**, **dibisa**; 2. \* e. **txanpon**, **xeha**. *Dirua bi monetatan daukat*, h. *dirua bi dibisatan daukat*; *Europako moneta batasuna*, h. *Europako diru batasuna*.

*Moropil(o)* hitza “begiratzeko” bezala markaturik ageri da zerrendan. *Moropilo* erabaki da.

*Motor/motore* eztabaida etorri da ondoren. Eztabaidan motorrak ongi berotu ondoren, bozetara jo da. *Motor* formaren alde agertu dira hamahiru boto. Beraz, forma hau onartu da: **motor** 1. makina; 2. motozikleta.

*Muin/mun* ere eztabaidarako jarria zetorren. *Muin* forma onartu da. Bide batez, mahai gainean jarri da *muna* hitza ere eta sartzea ongi ikusi da. Adibideak hurrengo bilera ekarriko dira.

*Nabal(a)* sarreraz ere zalantza zegoen. Azkenean *nabala* forma eman da ontzat.

*Naharo/naro* auzian tradizio ugariagoa du bigarrenak. Gaurko lekukotasunak kon-tuan hartuz gero, berriz, erdi bana dabiltzala dirudi. Horrenbestez, *naro* forma onartzea erabaki da. Zerrendan ageri den bezala, hortaz.

Azkenik, *nabarmen izan* aditzari buruzko informazioa osatzeko utzi zen zerrendan. Berrir begiratuko du batzordeak.

*Santu, san, done eta ingurukoak txostenaren aurkezpena.*

Santu izendegia onartu ondoren, Euskaltzaindiak izen horien lagun ageri diren izenondoaren forma arautzea beharrezko ikusi du. Hori dela eta Onomastika batzordearen txostena jarri zaie euskaltzainei eskuetan hurrengo batzarrean eztabaidatzeko.

*Zuzendaritza berritzea.*

Oraingo zuzendaritzak arauzko epea bete duelarik hauteskundeak iragarri ditu euskaltzainburuak. Datorren hileko bilkura ohikoaren ondoren izango den batzar berezian egingo dira hauteskunde horiek. Deia behar bezala eta behar den epean helaraziko zaie euskaltzinei.

*Azken ordukoak.*

Satrustegi jaunak Armeniatik egin duen bidaiaren berri eman du. Baskologia hemendik aurrera bere nortasunarekin agertuko omen da hango unibertsitatean, Hispanistikatik bereiziko baitute. Mahai inguru bat ere izan zela azaldu du eta galdetu du ea zertan den Euskaltzaindiaren eta hango euskalarien arteko lotura. Euskaltzaindiak errekonozimendu idatzi bat agindu omen zien. H. Knörrek erantzun dio esanaz bere garaian bidali zela gutun bat baina ez zela, nonbait, bere helburura iritsi. Berrito egingo zaiela.

Ordu biak laurden gutxiagotan amaitu da bilkura.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

**EUSKALTZAINDIA ETA IBERDROLA-REN  
ARTEKO ELKARLANERAKO *HITZARMENA***





# **EUSKALTZAINDIA ETA IBERDROLA-REN ARTEKO ELKARLANERAKO *HITZARMENA***

*Bilbo, 1998-VI-12*

## **BILDURIK**

Alde batetik, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak EUSKALTZAINDIAren izenean eta berau ordezkaturik, lanbide-helbidea Bilbon, Plaza Barria 15ean duena, eta NIF G48-091961 izanik, zera ziurtatzen du:

Buru den Erakundea Euskal Herriko Fundazioetako 12/1994 ekainaren 17ko Legeak erregulatua dela, eta beronen betebeharra Bizkaiko Foru Aldundiko 9/95-05-12ko Foru Arauaren 5.1. artikulua erregulatzen duenaren barruan batzen dela.

Eta bestetik, Joaquin Ochoa jauna, IBERDROLA, E.A.ren izenean eta beronen Ordezkoa Euskal Herrirako izanik, helbidea Bilbon, Gardoqui, 8, eta A-48-010615 Entitate Juridikoaren Fiskal Identifikazio-Kodea izanik,

## **ZERA AZALTZEN DUTE:**

EUSKALTZAINDIA dirurik irabazteko asmorik gabeko Erakundea izanik, beste helburu batzuren artean, Euskeraren ikerketa eta jagotea dela. Eta honekin guztionekin lotuta, Euskaltzaindiak Bilboko egoitza eta Euskal Herriko beste hiribuetan dauzkan ordezkarietzako informatizazioa aurrera eramateko asmoa daukala.

IBERDROLA, E.A. enpresak EUSKALTZAINDIArekin Elkar Lanerako *Hitzarmena* izenpetzeko asmoa daukala, lehen aipaturiko 9/95 Foru Arauaren 26.1.C artik. aurrikusitakoaren arabera. Eta honen guztionen helburua lehen adierazitako informatizazioa aurrera eramatea dela.

Honela ba, *Hitzarmena* alde biek sinatzen dute, berau jarraian adierazten denarekin zuzenduko delarik, alegia:

## ESTIPULAZIOAK

Lehena.—IBERDROLA, E.A. enpresak EUSKALTZAINDIA/EUSKARAREN ERRET AKADEMIA diruz lagunduko du lau milioi lauhun eta zortzi mila pezetaz (4.408.000 pta.).

Bigarrena.—EUSKALTZAINDIA/EUSKARAREN ERRET AKADEMIAK zera aldarrikatuko du, alegia, IBERDROLA, E.A. enpresak aipatu informatizazio ekintzan parte hartzen duela.

Eta goian aipaturikoa onartzen dutela adieraziz *Hitzarmen* hau sinatzen dute bikoiztuz adierazitako toki eta datan.

EUSKALTZAINDIA

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

IBERDROLA

Joaquin Ochoa,  
Iberdrola-ren ordezkaria

**CONVENIO DE COLABORACION ENTRE  
EUSKALTZAINDIA E IBERDROLA**

*En Bilbao, a 12 de junio de 1998*

REUNIDOS

De una parte Jean Haritschelhar, en nombre y representación de la REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA, como Presidente de la misma, con domicilio en Bilbao, Plaza Barria, 15 y NIF G48-091961, quien certifica que:

Es una entidad regulada por la Ley 12/1994 de 17 de junio de Fundaciones del País Vasco, cuya actividad se recoge dentro de las que regula el artículo 5.1 de la Norma Foral 9/95 del 05.12 de la Diputación Foral de Bizkaia.

Y de otra D. Joaquín Ochoa, en nombre y representación de IBERDROLA, S.A., como Delegado de la misma para el País Vasco, con domicilio en Bilbao, Gardoqui, n.º 8, y con Código de Identificación Fiscal de Entidades Jurídicas A-48-010615.

EXPONEN:

Que EUSKALTZAINDIA es una Institución sin ánimo de lucro y cuyo objetivo consiste, entre otros fines, en investigar y tutelar el Euskera. Y que

va a llevar a cabo la informatización de su sede de Bilbao y de las delegaciones establecidas en las otras capitales vascas.

Que IBERDROLA, S.A. está interesada en suscribir con EUSKALTZAINDIA, un *Convenio* de Colaboración Empresarial, de acuerdo con lo previsto en el art. 26.1.C de la Norma Foral 9/95, antes mencionada, cuyo objeto es realizar la informatización antes mencionada.

Por lo que ambas partes suscriben el presente *Convenio* que se registrá por las siguientes:

### ESTIPULACIONES

Primera.—Que IBERDROLA, S.A., se obliga a ayudar económicamente a la REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA, con la cantidad de CUATRO MILLONES CUATROCIENTAS OCHO MIL PRESETAS (4.408.000,- ptas.).

Segunda.—Que la REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA, se compromete a difundir la participación de IBERDROLA, S.A., en esta actividad.

Y en prueba de conformidad y aceptación firman el presente ejemplar, por duplicado en lugar y fecha arriba indicado.

EUSKALTZAINDIA

Jean Haritschelhar,  
presidente

IBERDROLA

Joaquín Ochoa,  
representante de Iberdrola



**BESTE TXOSTEN BATZUK**



## **AZKUE BIBLIOTEKA:**

### **Liburuak mailegatzeari buruzko arau osagarriak**

Barne Erregela Nagusien arabera *“Euskaltzainek, Herri Aginteen eta Euskal Herriko unibertsitateek eskubidea izango dute, zuzendariaren iritziz utz daitezkeen liburuak maileguz eramateko, hilabeteko epean itzuli beharko dituztelarik”* (9. Art., 1993-9-30). Hortik ondorioztatzen dugu aipaturikoez eskubidea badute, beste guztiak ez dutela. Interpretazio hori berretsi zuten bi urte geroago onartu ziren Barne Arauek, zeinen arabera: *“Ez dago mailegu zerbitzurik eta ezin da ezer kanpora atera”* (Barne arauak, 3. Art., 1995-2-2), alegia, Erregela Nagusietan aipaturikoez gain inork ez du ezer ateratzeko eskubiderik.

Baina mailegu zerbitzua bere osotasunean horrela nahiko ondo mugatuta gelditzen bada ere, beharrezkoa da liburuak ateratzeko eskubidea dutenei buruzkoa apur bat gehiago zehaztea, ezen, idatzita dagoen bezala, 9. artikulua orokorregia da eta nahasketarako bidea eman dezake. Horretara datoz ondoko arauak.

1. Maileguari dagokionez, euskaltzain osoek lehentasuna dute. Mailegu-baldintzak hauexek dira: nahi beste liburu hilabetez.

2. Ohorezko euskaltzainek eta urgazleek ere mailegu eskubidea dute. Mailegu-baldintzak hauexek dira: hamar liburu hilabetez.

3. Euskaltzaindiko batzordeek ere mailegu-eskubidea dute, alegia, hamar liburu hilabetez. Honek esan nahi du batzorde bateko edozein kidek edo languntzailek duela mailegu-eskubidea, beti ere bere batzordean egiten diren lanetan baliatzeko.

4. Euskaltzaindiko batzordeek eskatu ahal izango dute mailegu bereziak egitea bere lanak aurrera eramanez ahal izateko. Mailegu berezi hauek eskuartean izan beharreko liburu multzoek osatuko dute, eta baldintza hauetan emango dira:

4.1. Batzordeburuak egingo du eskaera.

4.2. Kopuruz ez da mugarik izango.

4.3. Maileguaren iraupena gehienez urtebetekoa izango da, ondoren liburuak itzuli beharko direlarik, edo beste eskari idatzi bat egin.

4.4. Liburuen gaineko erantzukizuna batzordeburuarena izango da.

5. Euskaltzaindiko langileek ere mailegu-eskubidea izango dute, alegia, hamar liburu hilabetez, beti ere Euskaltzaindiko lanetan baliatzeko helburuz.

6. Herri Aginteei dagokienez, mailegu-eskariak erakunde bakoitzean horretarako ahala duenak egingo ditu. Bereziki erakusketei dagokienez, erakusketaren katalogoa eskatuko zaie antolatzaileei. Kontuan hartuko da delako erakundeak Euskaltzaindiarekin duen ohiko harremana.

7. Unibertsitatei dagokienez, mailegu-eskaria horretarako ahala duenak egingo du. Kontuan hartuko da delako erakundeak Euskaltzaindiarekin duen ohiko harremana.

8. Eskari guztiak, salbuespenik gabe, idatziz egingo dira, sinatzailea izango delarik maileguaren erantzule.

9. Kasu guztietan, Azkue Bibliotekako zuzendariaren esku dago liburuen mailegua ukatzea. Liburu bitxi eta bereziak kasu berezietan baino ez dira maileguan utziko. Era berean, zuzendariaren esku dago mailegu-epea pasatu aurretik erreklamatzeko, gorago zehaztu denaren arabera.

10. Liburuak berandu itzultzea, bereziki erreklamazioak jaso ondoren, arduragabekeria larritzat hartuko da, behin eta berriro errepikatuz gero mailegu-eskubidea galtzea ekar dezakeelarik.

Azkue Biblioteka batzordeak 98-6-19ko bileran onartua.



## **EUSKO LEGEBILTZARRA - EUSKALTZAINDIA**

### **Eusko Legebiltzarrari egindako bisitaldi ofiziala**

1998ko uztailaren 28an Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bisitaldi ofiziala egin zion Eusko Legebiltzarrari, Parlamentu Mahaiak, Leizaola jauna buru, hartu zuelarik. Bisitaldiaren helburua bi erakundeon arteko harremana eta elkar-laguntza bultzatzea zen. Horretarako, ekitaldi horren baitan, Euskaltzaindiak proposamen zehatz bat luzatu zion Legebiltzarrari, bi erakundeon biblioteketan zaintzen den ondare zahar edo berezia hitzarmen baten bidez digitalizatzeko, bildutako guztion arreta eta begirunea jasoz. Bereziki Leizaola jaunak atsegin handiz jaso zuen proposamena, haren alde garbiki mintzatu zelarik. Edonola ere, gaiari dagokion segida ematea erabaki zen.



## **ONOMASTIKA**



Mikel Gorrotxategi Nieto, Licenciado en Filología Vasca y Secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

**CERTIFICA:**

Que el nombre euskérico de la Junta Administrativa de *Hijona*, del municipio de Burgelu / El Burgo, es según acuerdo de esta comisión académica: *Ixona*.

El nombre aparece en la historia con distintas formas, principalmente:

*Iscona*, año 1205.

*Excona*, años 1257.

*Ixona*, en diversos documentos.

*Hizona*, año 1602.

*Ijona*, año 1798.

No es cuestión de entenderse sobre el origen del nombre, que no es claro. La forma oficial castellana viene provista de una hache sin valor alguno en la pronunciación.

Por lo que respecta a la adecuación del nombre a la actual legislación bilingüe, parece aconsejable, al existir cierta distancia entre ambas, una doble forma, a saber:

**Ixona / Hijona**

Ha de recordarse que la denominación *Ixona* fue la recomendada años atrás por esta Real Academia, y así figura en el libro preparado por la Comisión de Onomástica de la Institución, y editado por el Gobierno Vasco, *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco / Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak*, Vitoria/Gasteiz 1986.

Cabe añadir que el gentilicio es en lengua vasca *ixonar*.

Y para que conste y surta efectos, se expide el presente Dictamen, en Bilbao, a doce de junio de mil novecientos noventa y ocho.

H. Knörr,  
presidente de la Comisión de  
Onomástica

Mikel Gorrotxategi,  
secretario de la Comisión de  
Onomástica



## BIZKAIKO ERREPIDEEN MAPA BERRIA/ NUEVO MAPA DE CARRETERAS DE BIZKAIA

*Bilbo, 1998-VII-15*  
*Mikel Gorrotxategi, Nieto,*  
*Onomastika batzordeko idazkaria*

Gaur hemen aurkezten den Bizkaiko Errepideen mapa berria Erakunde biren arteko elkarlanaren emaitza da: Bizkaiko Foru Aldundia, maparen egilea eta Euskaltzaindia, onomastika alorrean aholku emalea dena, eta alde horretatik aipagarria eta aintzindaria. Arrazoa argia da Aldundiak baitu legez errepideen ardura eta Akademiak onomastikarena, hau da izenen normalizazioa.

Normalizatze lan hau ez da edonola eta irizpiderik gabe egiten den zerbait, arau linguistiko zehatzak segituz eta legea betez gauzatzen den lana baizik. Legea, kasu honetan Euskararen Legearen 10. Artikulua. Irizpideak ez dira lan honetarako bereziki paratu, amankomuneko irizpideak Euskal Herri osorako baliogarriak baitira, Nafarroan zein Bizkaian erabili izan direnak, tokian tokiko berezitasueni so eginez. Arau zehatzetan sartu gabe ere, hainbat puntu azpimarratu behar dugula uste dut.

Lehengo irizpidea jatorrizko izenak jatorrizko hizkuntzaren idazkeraz ematea dugu (euskaraz euskarazkoak, eta gaztelaniaz gaztelaniazkoak) nahiz eta zalantzazkoak ere badiren. Irizpide honek hiritarren bizitza errazteaz gain hizkuntzei bere duintasuna ematen die, inolako funtzionaltasunik ez duten bikote zentzugabeak saihestu, hori bailitzateke kasu guztietan izen biak eman beharra, izan ere *Aldeakueba* euskal idazkeraz ematea gaitzesgarria bada maila berean dago *Ametzola* zeta hutsez (*Amezola*) ematea; gogora dezagun *Ametzola* dela ofiziala, nahiz eta batzuek jakin ez.

Hori dela eta *Artatza* eta ez *Artaza* jarri da erabat gardena den izen hau finkatzean hori baita bertako jaiotako euskaldunek darabiltena. *Artaza* gaztelaniazko ahoskera dugu z-rekin gaztelaniak aspaldi galdu baitzuen soinu afrikaria. Gogoratu, bestaldetik, hori dela Leioako Udalak onartutako izen ofizial bakarra, Onomastika Batzordeari eskatutako ikerketa hobetsiz. Arrazoi beragatik *Cadagua*, ez hain aspaldi *Salcedon* ere deitu izan zen ibaia, hobetsi zen eta ez azken urteotan zabaldutako *Kadagua*, erabat erromantzezkoa den izen honentzat desegokia baita.

Hala ere honek ez du inondik inora egungo ahozko laburdurak onatzen direnik esan nahi, *Arguia*, *Arrigorriaga*-ren orde, esatareko. Era berean de-

klinatzean sortutako *-gane* moduko amaierak, bestaldetik tradizio laburrekoak direnak, bere forma osotara eraman dira, horren adibidea *Autzagana* dugularik.

Izen osoak onartuko dira, baina ez da etimologikerietan ibili, izenak zuzendu direnean ongi frogatutako datuen gainean lan egin da, eta puntu honetan aipagarria da *Arrontegi*. Bere garaian Herri Aginteez ebazpena eskatu zutenean batzordeak ez zuen gaur egun beste daturik eta euskaraz hasieran *r-rik* ez dela onartzen jakin arren, ez zuen etimologikerietan sartu nahi izan (eta egokiena *Arrontegi* irudi arren) eta itxaron zuen datu gehiago izan arte. Geroago egindako ikerketek frogatu dute *Arrontegi* zela izena eta ondorioz hori izan da arestian proposatu duena.

Etengabeko ikerketa honen beste adibide bat *Atxuriaga/La Aceña* dugu. Bere garaian Euskaltzaindiak ez zuen itzulpen edo moldaketarik egin eta ez zuela euskal kiderik aitortu zuen. Geroago egindako ikerketek ongi frogatu zuten bertako izen jatorra *Atxuriaga* zela eta hori da bertan egin zen parkea izendatzeko hobetsi zena.

Azkenik bada bere garrantziagatik aipatu behar den izen bat, Bizkaiko ibai handiarena, eta zehatzago Basauritik Abrarainoko tartearena. Gauza ezaguna da azken mende honetan *Nervión* izena eta geroago horren euskal izena *Nerbioi* erabili dela, baina hala eta guztiz ere izen jatorra eta etimologia aldetik inolako zalantzarik ematen ez duena, eta Bilbo sortu zenetik ezaguna, erabat baztertu gabe *Ibaizabal* da. Aldaketa honen historia laburra da eta joan den mendean egindako geografia hiztegieta ikus daiteke, bertan nahiz eta izen jatorra *Ibaizabal* zela aitortu ez zuten inolako lotsarik izena aldatzeko eta Real Academia de la Historiarenean, esaterako, honako hau irakur daiteke: *Nerva, río el más considerable del señorío llamado también por algunos Nervión y más generalmente Ibaizabal*.

\* \* \*

He de resaltar brevemente que este Mapa de carreteras es el fruto de la colaboración de dos instituciones: la DFB y la RALV. Es un proyecto pionero y un ejemplo de la labor a seguir, en el que la institución foral recabó la colaboración de la Academia como órgano consultivo en la normalización de topónimos.

Esta normalización, en cuyo detalle no entraremos pues sería largo y tedioso, se fundamenta en la legislación de la Comunidad Autónoma y los criterios desarrollados por la Comisión, que respetando las particularidades locales, son válidos para todo Euskal Herria.

El primero y fundamental criterio es el respeto a la grafía propia de la lengua del topónimo (en euskera los euskéricos y en castellano los romances), aunque en algunos casos puedan surgir dudas. Este criterio, en mi opinión sín-



toma de sentido común, es de gran utilidad para el ciudadano, al evitar costosas y molestas dobles denominaciones, puesto que si sería reprobable una grafía como *Aldeakueba*, también lo debe ser *Amézola* por *Ametzola*, grafía oficial pese a que algunos no se deben de haber enterado.

Por esta misma razón se ha oficializado *Artatza*, pues esta forma es la que utilizan los vascófonos de la zona para un topónimo, diáfano, en el que *Artaza* sería la grafía castellana. Por otra parte, hay que recordar que dicha forma fue la oficializada por el ayuntamiento de Leioa de acuerdo con el informe sollicitado a la RALV. Por esto mismo es *Cadagua* y no *Kadagua*, como se ha difundido en los últimos años la grafía apropiada para dicho río, que no hay que olvidar se llamó también *Salcedón*.

De todas formas, esto no significa que se dé preferencia a la forma oral. Tal proceder nos llevaría a formas como *Arguia*, en lugar de *Arrigorriaga*. Del mismo modo, las terminaciones acabadas en *-gane*, producto de la declinación vasca y en general de escasa tradición, han sido repuestos a su forma correcta; tal sería el caso de *Autzagana*.

Pero la normalización no es un trabajo de etimología, y para la realización de propuestas la comisión no entra en ese campo, realizando reconstrucciones, sino sobre datos fehacientes. De esta forma, cuando la institución pertinente solicitó, hace unos cuantos años, el dictamen sobre *Rontegi*, pese a ser obvia la incorrección de este nombre puesto que en euskera no existen palabras empezadas por *r-*, la comisión no quiso realizar juicios aventurados. Posteriores estudios han demostrado que *Arrontegi* es la forma correcta y como tal se informó a las instituciones correspondientes, fundamentalmente la Diputación de Bizkaia, que lógicamente ha procedido a su oficialización.

Otro ejemplo de este trabajo de investigación es *Atxuriaga/La Aceña*. En su momento Euskaltzaindia no realizó ningún intento de traducir o adaptar un nombre tan diáfano y lo catalogó como carente de equivalente euskérico conocido. Afortunadamente los estudios actuales nos han descubierto su nombre original, que no es otro que *Atxuriaga*, oficializado hace unos años para el parque allí creado.

Finalmente, hay que mencionar un nombre que por su repercusión en Bizkaia tiene especial relevancia, el de su principal río, y más concretamente el tramo comprendido entre Basauri y el Abra. Es conocido que en los últimos años ha sido conocido como *Nervión*, en euskera *Nerbioi*, aunque su nombre original, registrado ya en la fundación de la villa de Bilbao, *Ibaizabal*, no ha desaparecido. La historia de este cambio no se puede ignorar y así los diccionarios geográficos del siglo pasado, a pesar de reconocer que el nombre de dicho río es *Ibaizabal*, no dudan en cambiárselo por el de *Nervión*. Un ejemplo lo tenemos en el Diccionario de la Real Academia de la Historia (1802): *Nerva, río el más considerable del señorío llamado también por algunos Nervión y más generalmente Ibaizabal*.



## ARCE / ARTZIBAR

Andres Iñigo Ariztegi, Delegado de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia en Navarra y vocal de su Comisión de Onomástica,

### CERTIFICA

Que la Comisión académica de Onomástica, reunida el día 3 de julio en esta Delegación de Navarra, aprobó entre otros el siguiente dictamen, que traducido al castellano sería:

“2.3.2. Denominaciones del Ayuntamiento, Concejos y lugares del Valle de Arce/Artzibar.”

#### En euskara

|                 |                  |
|-----------------|------------------|
| Arce (Valle)    | Artzibar         |
| Arce (Pueblo)   | Artzi            |
| Arizcuren       | Arizkuren        |
| Arrieta         | Arrieta          |
| Artozqui        | Artozki          |
| Asnoz           | Asnotz           |
| Azparren        | Azparren         |
| Equieta         | Ekieta           |
| Equiza          | Ekiza            |
| Espoz           | Espotz           |
| Gorraiz         | Gorraitz         |
| Gurpegui        | Gurpegi          |
| Imizcoz         | Imizkotz         |
| Lacabe          | Lakabe           |
| Lusarreta       | Lusarreta        |
| Muniáin         | Muniain          |
| Muniáin de Arce | Muniain-Artzibar |
| Nagore          | Nagore           |
| Olóriz Alto     | Olorizgoiti      |
| Olóriz Bajo     | Olorizbeiti      |
| Osa             | Otsa             |
| Saragüeta       | Saragueta        |

|                    |                    |
|--------------------|--------------------|
| Uloci              | Olozi              |
| Uli Alto           | Uliberri           |
| Urdíroz            | Urdirutz           |
| Uriz               | Uritz              |
| Urrobi             | Urrobi             |
| Usoz               | Usotz              |
| Villanueva         | Hiriberri          |
| Villanueva de Arce | Hiriberri-Artzibar |
| Zandueta           | Zandueta           |
| Zazpe              | Zazpe              |

Y para que conste y surta efecto, expido la presente en Pamplona, a cuatro de julio de mil novecientos noventa y ocho.

Andres Iñigo,  
Delegado en Navarra

## **GRAMATIKA**



## HAUSGARRI eta HAUSKOR-EN ERABILERA DELA ETA

Gasteizen, 1998ko urriaren 21ean.

Diego Tobarri erantzuna

Gramatika batzordearen ustez, *hauskor* erabili beharko litzateke gutunean ematen den adibidean (*kontuz edalontziarekin, hausgarria / hauskorra da eta*).

Baliteke zenbait hiztegitan (batez ere oinarritzat eta abiapuntuztat euskal testuak izan ez dituztenetan) *hausgarri* ere agertzea, erraz hausten den edo hauts daitekeen zerbait adierazteko; izan ere, hori ere bada *-garri* atzizkiaren erabileretako bat (gaztelaniazko *-ble*-ren ordain izan daitekeena). Hala ere, ez da balio hori *-garri* atzizkiak duen bakarra ez eta ere nagusia. Horretaz jabetuko gara literatur tradizioko datuak aztertzen baditugu. Ohartuko gara ez dagoela erabilera horren lekukotasun bat bera ere *hautsi* aditzarekin; beti agertzen da *-kor* (34 agerraldi *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusean) atzizkia duela. Adibidez:

- *Txirula hauskor.*
- *Ontzi hauskor.*
- *Kristala baino hauskorragoa den Jainkosa ...*
- *Bid(e)ria baino hauskorragoak gara ...*
- eta abar

*Hausgarri* forma, aldiz, bi alditan bakarrik agertzen da literaturan; beste erabilera batekoak biak, ordea. Kasu hauetan ez du esan 'erraz hausten dena', baizik eta 'hautsi egiten dena', balio eragilea duena. Hori da, hain zuzen ere, *-garri* atzizkiaren erabilera nagusia, aktiboa (hautsi egiten du) eta ez pasiboa (hautsi egiten da). Ikus ditzagun horren adierazgarri literaturako bi adibideak:

— *Enetzat bihotz-hausgarri da ikhustea asko laborari ardirik gabe txarki bizitzen, izan letzazketelarik, berak nor balira, ongi bizitzeko behar bezenbat.* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 268).

— *Erromako gortetik, Aita Saindua ganik, Jin dire berriak Pontifo berrientzat, Apez zin egilentzat, bihotz hautsgarriak eta latzgarriak.* (S. Monho, *Poemak*, 26).

Bi adibide hauetan bihotzak ez dira “hausten errazak” edo “hauts daitezkeenak”; “laborariak ardirik gabe ikusteak” hausten du bihotza lehen adibidean eta “Pontifo berrientzat jin diren berriek” hausten dute eta lazten bihotza, bigarren adibidean.

Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria



## ZERTAN OINARRITZEN ZARA HORI ESATEKO?

Gasteizen, 1998ko urriaren 21ean.

Galdera dela eta, Gramatika batzordearen erantzuna Ramiro de Maeztu Batxilergo Institutuko Euskara mintegikoei.

“Zertan oinarritzen zara hori esateko? Nola erantzun behar zaio galdera hori aditz batez?”.

Gramatika batzordearen ustez, galdera horri erantzuteko bide arruntena eta erabiliena inesiboko kasu-marka duen izen sintagma bat erabiltzea da.

Adibidez: “*Liburu horretan* oinarritzen naiz esan dizudana esateko”.

Aditz bat erabili behar izanez gero (beti ere gogoraziz ez dela bide ohikoena) nominalizazioa erabili beharko genuke, inesiboko kasu-markarekin ere.

Adibidez: “*Esatean, entzutean, egitean ...*”.

Hala ere, goiko galderari aditz edo perpausen baten bidez erantzun nahi edo behar izanez gero, hizkuntzaren baliabideak ongi ezagutzen dituen hiztunak izango ditu aukeran egitura arruntagoak eta naturalagoak erantzuna emateko (beti ere gaztelaniazko egiturei hertsiki jarraitzeak dakarzkien kalkoak alde batera utziz). Hona hemen horietako bat:

— Zertan oinarritzen zara azterketa gaizki egin duzula esateko?

— Ikasteko astirik izan ez dudala.

Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria



## GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUNA UZEI-KO LEIRE ZENARRUZABEITIRI, EPAITEGIETAKO INPRIMAKI BATZUETARAKO EUSKAL EGITURA BATZUEZ

Gasteizen, 1998ko azaroaren 2an.

Bi ezeztapen dituen egitura baten itzulpenaz egiten diguzue galdera: “de no comparecer ni alegar causa justa que se lo impida...”.

Egia da perpaus batean bi ezeztapen ditugunean esanahia ez dugula ongi ulertzen kasu asko eta askotan (adibidez, “*dirurik gabe etortzen ez bazara, ez duzu liburua erosiko*”; azkenean ez da erraza izaten zer esan nahi izan den jakitea). Hala ere, kontsultan eman duzuen kasuan ez dirudi zailtasun berezirik dagoenik ongi ulertzeko (ulergarriak eta egokiak lirateke zuek egindako itzulpena bezalakoak, “*eta bidezko arrazoirik eman gabe judizioan agertzen ez bazara*”).

Arazo hori saihesteko ematen duzuen egitura (“*agertu ezean bidezko arrazoirik alegatzen ez bada*”) baino errazagoa da gure ustez goian eman dugun lehena. Hori bai, agian ordena aldatuta erraztu liteke kontua (“*judizioan agertzen ez bada bidezko arrazoirik eman gabe*”).

Bestalde, Gramatika batzordearen ustez, beste egitura batzuk ere izan litezke kasu honetarako baliagarri. Hala nola,

— “*judizioan agertzen ez bazara bidezko arrazoirik ematen ez duzula*”, edo

— koordinazioaren bidez, “*bidezko arrazoirik (eman) ez eta judizioan agertzen ez bazara*”.

Adeitasunez, agur.

Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria



**BERRIAK**



## **AURKEZPENAK / PRESENTACIONES**





## DEITURA IZENDEGIAZ

Bilbo, 1998-VII-13

Mikel Gorrotxategi Nieto,  
Onomastika batzordeko idazkaria

Gaur hemen aurkezten dugun liburu hau Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen urteetako lana da, baina inondik inora amaitutzat eman daitekeena lehenengo aurrera pausoa, handia, baina lehengoa baino ez. Argi utzi behar dugu puntu hau liburuan agertzen diren deitura guztiak euskal deiturak izan arren ez baitira dauden guztiak.

Lege aldaketak deiturak euskaraz jartzeko bidea zabaldu zuenean hasi ziren banakako eskaerak etortzen eta batzordeak ikertu behar izaten zuen banan-banan zein zen idazkera egokia jakiteko, baina eskaeren kopurua etengabe handitu eta ondorioz banakako lana ezinezkoa izan zenez bi lagun lan horretan aritzea erabaki zen, eraz eta egoki erantzuteko.

Ikerketa lan horrek lau alderditan banatu behar izan zen, deituren *corpus* zabaldua lortzea, deitura horien jatorria zehaztea, bertako ahoskera ezagutzeta, eta normalizazio proposamena egitea, Batzordeak hala bazeritzon bere onikusia emateko. Lan hori gauzatzeko bi alde jorratu behar zirela ikusi zen, batetik, historikoa, erroldak eta sutegiak ikertzeko, horiek ematen baitigute jatorria ezagutzeko bidea. Lan hori Txema Fernandez Anakabe historialariari egoki zitzaien. Bestetik, filologikoa, idazkera proposamena gauzatzeko, neuk burutu nuena, hain zuzen ere.

Baina bilketa lan honek oinarrizko arazo bat zuen, hain zuzen euskal deitura zer den argi zehaztea, Euskal Herrian hiru hizkuntza nagusi (euskara, gaztelania eta gaskoiera) elkartzan baitira, onomastikan nahas-mahas handia sortuz. Beraz, argi utzi behar da ez dela gauza bera euskal deitura, hots, euskaraz sortu izan dena, eta Euskal Herriko deitura. Izan ere, euskal deitura ia guztiak Euskal Herrikoak izan arren Euskal Herriko guztiak ez baitira euskarazko eremukoak. Gauzak horrela, *Arguedas*, *Espronceda*, *Salcedo* edo *Llantada* erromantzearen esparruko deiturak, *Gorrotxategi*, *Salaberri* edo *Ariztegi* bezain baskoak dira, nahiz eta euskal deiturak (hots euskarazkoak) ez izan.

Tamalez, begibistakoa den irizpide hau uste baino askoz ere ilunagoa da, zenbait kasutan hizkuntzen arteko harremanengatik maileguak egon direlako (*kamino*, edo *palazio*, jatorragoak diren *bide* eta *jauregi* ondoan), edo eta esa-

nahi desberdina izan arren itxura bera izan dezaketelako deitura bik. Horren adibide *Duarte* abizena dugu, jatorria E.H.an eta Portugalen duena, gure kasuan *Uharte* deitura gehi erromantzezko preposizioa eta Portugalekoan *Eduardo* izenaren aldaketa dena.

Aurreko horrengatik euskal deiturak izan arren nahasgarriak izan daitezkeenak alde batera utzi dira jendea ez nahasteko.

Normalizatze lana burutzeko lehenengo eta behin deituren jatorria finkatu behar zen, geroago bertako ahoskera ezagutu eta proposamena finkatzeko. Itxuraz erraza den lan honek berebiziko oztopoak zituen bereziki gaztelaniaz ez dauden soinuak bereiztean. Ezbairik gabe normalizatzean zailenak *afrikariak* ditugu (*ts* eta *tz*) kasu gehienetan soinu afrikatuarekin bat egin arren (*Eguzqui*za edo *Pikaza*, jatorrizko *Eguzkitza* eta *Pikatza*), batzuetan gaztelaniazko *ch* erabiliz ere ordezkatuak izan zirelako; horren adibide *Muntsaratz* dugu, egun *Muntzaatz*, baina gaztelaniaz *Muncharaz*. Holakoetan egungo testigantza ezinbestekoa izan zaigu.

Baina batzuetan euskararen barneko arauak ere izan daitezke arazo emaleak eta gaztelaniaz itxura bera duen deitura batek euskaraz bi ahoskera izan, eta ondorioz idazkera bi izan dezakeela ikusi genuen, *Arzubiaga/ Artzubiaga* ren kasuan bezala. Holakoetan bi aukerak dira egokiak eta biak proposatu dira, nahiz eta hedatuenari lehentasuna heman.

Tamalez, egungo ahoskera askotan erabat desitxuratuta zegoen edo base-rria galduta eta holakoetan arazo larriak izan ditugu, eta inoiz normalizatze proposamena hurrengo argitalpenerako utzi.

Ezin ditugu banan banan arazo guztiak azaldu, baina bada beste bat, jendearengan duen eraginagatik plazaratu behar dena, gaztelaniazko *j* grafemarena. Idazkeran, eta berez egungo ahoskeran, idatziaren eragina euskal deituren kasuan erabatekoa baita, grafema honek jatorrizko euskal soinu desberdinak islatzen ditugu, batzuetan *x* (*ixa*) eta besteetan *jota*. Gogoratu behar da gaztelaniaz ere bazela *x* soinua eta *j*-ra pasatu zena, horra hor *Quixote*. Kasu horretan *Muxika* deitura dugu eta besteetan *jota*, *Oianguren* edo *Goienola* deituretan bezala. Batzordeak argi ikusi zuen normalitze honetan ez zegoela erromantze hizkuntzek sortutako aldaketak onartzerik eta horrengatik ez zuen erdibideko moldaketa izango zen *Mujika* (*jota* eta *kaz*) onartu. Gogoan izan, bestaldetik, deitura honek iturburu zituen etxe izenetan erabateko adostasuna dagolea *Muxika* ahoskatzean. Antzeko kasua da *Gogenola* deiturarena; berez euskaraz *Goienola* eta ez *Gojenola* dena.

Arreko adibide horiek argi erakusten dute normalizatze prozesu honek dituen arazoak, batetik erromantzeen eragina aztertu, eta bestetik, arazo soziologikoak; zenbait kasutan jendeak gaztelaniarekiko morroitzaz gorde nahi izaten du deiturari euskal itxura emanez, baina azken finean erdaraz utziz. Gorago aipatutako *Mujika* eta *Eguzkiza* deiturak edo *Garzia* lirarteke jarrera horren adi-

bide argiak, baina hizkuntza guztiak duintasuna dute eta ez dago horrelako sai-hesbiderik onartzerik. Bide batez gogoratu behar da *Gartzia* berez euskal deitura dela, Nafarroakoa hain zuzen ere, geroago gaztelaniaz izen eta deitura moduan zabaldu zena.

Normalizazioa ez da norberaren gustura gauzatzen den zerbait, hizkuntza baten sistemaren zati bat baizik, eta aldaketak erabat onargarriak badira ere ezin da eskatzailearen gogara egin. Bestaldetik, gogoratu behar da deiturak ez direla mendeen zehar inolako aldaketarik gabe datozkigun izenak, batik bat idazkerari dagokionez, eta normalizazio prozesu hau gaztelaniak ere egin duela Espainiako erresumako deitura guztiekin, baita kanpotik etorritakoekin ere, gaztelaniaren arauetara makurtuz edo arauak aldatzen zirenean (ç desagertaraztean, esaterako) aldatuz.

Berez egin den lana idatzia bada ere ezin dugu alde batera ahoskera kontua utzi. Euskarak ofizialtasunik ez izateak ahoskatze okerrak sortu zituen, berezirik deitura sorlekutik kanpo joatean, etxea eta deituraren arteko harremana hausten baitzen. Honek lehenago aipatutako erromantzearekiko morroitzua sortu zuen deiturak erdaraz erabiliz, baina argi dago ahoskatze hori ezin dela euskara besterik gabe bihurtu, askoz ere sakonago desitxuratuko bailituzke deiturak, zentzugabeko izenak sortuz.

Hori da labur esanda orain arte egindako lana, baina lan hau ez da oraindik amaitu. Lehen liburu honetan egoitzan izandako eskaeren arabera maiztasun handienekoak sartu dira, eta bide batez saiatu gara beste asko sartzan, nahiz eta askok aldaketarik behar ez, jabeei laguntza ematearren. Hala ere liburu osatua izan arren ez daude euskal deitura guztiak eta hori da Onomastika batzordearen lana osatzea, eta datu falta edo dena delagatik alde batera utzitako guztiak sartzeari, beti ere euskara eta euskal herritarren mesedetan.

Amaitu aurretik eskerrak eman behar dizkiet lankideei, agintariei, bai Eusko Jaurlaritzari eta Madrilgo Justizia Ministerioari eta ezin aipatu gabe utzi Santurtziko Udal Euskaltegia lan honetan aritu ahal izateko emandako erraztasunengatik.

Mikel Gorrotxategi Nieto,  
Onomastika batzorde-idazkaria



## DEITURA IZENDEGIAREN AURKEZTEAN

*Bilbo, 1998-VII-13*

*Henrike Knörr,  
Onomastika batzordeburua*

Sabin Intxaurraga Justizia sailburu jaun txit argia;  
Manuel M.<sup>a</sup> Zorrilla Euskal Herriko Epaitegi Gorenaren presidente jaun txit argia;  
Jaun-andreak, agur.

Biziro pozten nau gaurko aurkezpen honek. Testua gure eskuetatik aspaldixko jalgi ondoren, hemen dugu azkenean liburua, *Euskal deituren izendegia*, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta Justitizia Ministerioak argitaratua.

Ez da oraingoa hiritarren eskaria, deiturak paper ofizialetan euskal grafiarekin izateko. Azken urteotan nabarmen-nabarmena izan da eskari eta irriki honen gorakada. Eta ezin gintezkeen mutu egon. Horregatik jo genuen agintarietara, eta bai haiek asmoari begitarte ona egin ere.

Deituren alorra ez da, ez, lur segurua. Aitzitik, irristakorra da, iluna da, maiz zaila da jakiten oina non pausatu. Baina egin beharra zen, herabetu gabe, eta egin dugu.

Langintza honetan luzaro aritu da Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea. Hauxe izan du egiteko nagusia bi urtez. Giza- eta diru-baliabide urriekin, dena esateko, baina gogoz jarduten genuelarik, izen-zerrendak aztertuz eta eztabaidatuz, beti lekukotasunen bila, beren ebakerekin, han eta hemen, eta asmakeria guztietatik ihesi. Asmakeria eta Urkixo aztoratzen zuten *berreraikuntza* guztietatik.

Badateke agian esango duenik iraganaren, bestela esan: tradizioaren aurka ari gara, orrialde hauetan idazkera berriak proposatzen baitira. Halakoek beharko lukete jakin korritzen duten idazkerek ere badutela beren sorrera-data, eta deitura horiek beste soineko bat izan dutela aurreko mendeetan, aldiari aldiko soinekoa.

Gainerakoan, garbi dago ez dela inor ere behartzen bere euskal deitura grafiaz aldatzeko. Norberaren esku dago, norberaren eskubidea denez gero. Ez da aiantzi behar, bestalde, grafia aldatuek grafia aldatugabekoek bezainbeste balio dutela eta izango dutela aurrerantzean epaitegietan eta justiziaren eremuan, oinordeko izateko, demagun.

Jakina, ez da hemen gelditzen gure lana. Liburuan ageri direnak baino anitzez gehiago dira euskal deiturak. Gehiago bildu eta aztertu ditugu dagoeneko, eta ugari dira azterkizun. Bihoa liburu hau aitzindari gisa, Urdazubikoak zioen bezala, nor nola mintzo den abisu eman diezagun.

### En la presentación del *Nomenclátor de apellidos vascos*

No puedo ocultar la alegría con que la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia presenta hoy este *Nomenclátor de Apellidos Vascos*, obra de cuya utilidad nadie dudará.

Hay que temer, desde luego, los dardos que pueden llegar. El escritor catalán Quim Monzó, hablando de este mismo asunto, es decir, de la grafía de los apellidos, mencionaba hace poco lo que con gracia llamaba la —“División Brunete político-massmediática”—, refiriéndose a quienes están dispuestos a cargar contra iniciativas como la presente. Y sin embargo, a pesar de los agoreros y de los inmovilistas, hay que decir bien claro que los apellidos también han estado y están sometidos a los usos (orto)gráficos de las diferentes épocas, por no hablar de los diferentes lugares. Probablemente nos dirán que con esto se rompe España y no sé qué otras cosas. Lo único que hay es el derecho del ciudadano vasco a que su apellido esté en la grafía correspondiente de la lengua.

Aprovechando esta oportunidad, no estará de más volver a indicar que Euskaltzaindia no es una sociedad de genealogía y heráldica. Guardamos, desde luego, la mayor consideración para estas ciencias auxiliares, pero la Academia no puede atender a peticiones de esa índole, para las cuales, dicho sea de paso, en los últimos años parecen haber surgido cantidad de Petrikillos. Y recordaremos también que no es función de Euskaltzaindia traducir apellidos de naturaleza romance (u otra) ni vestir con traje vasco apellidos que no pertenecen a nuestro acervo lingüístico, si bien la frontera no es siempre fácil de fijar. El mismo respeto que solicitamos para nuestros apellidos lo pedimos para los apellidos no vascos, a los cuales debe asignarse su grafía. En este punto nuestro País, abierto como ha estado y está a influjos diferentes, debe mostrar esa misma personalidad diversa, sin ocultarla en modo alguno, pues es parte de su patrimonio.

En este libro no se toca una materia del máximo interés, a saber: la pronunciación de estos apellidos. Un buen amigo, natural de Areatza (Villaro), me suele decir que él no es *Onaindía*, sino *Onáindia*. Y tiene toda la razón. Más crudas son las pronunciaciones del tipo *Hiriguán*, para quien se llama *Hirigoïn*.

Terminaré reiterando el agradecimiento de Euskaltzaindia al Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y al Ministerio de Justicia. Sin su comprensión y ayuda este libro no se habría publicado.

## **NOMENCLATOR DE APELLIDOS VASCOS EUSKAL DEITUREN IZENDEGIA**

*Bilbo, 1998-07-13*

*Sabin Intxaurreaga,  
Consejero de Justicia, Economía, Trabajo  
y Seguridad Social del Gobierno Vasco/  
Eusko Jaularitzako Justizia,  
Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua*

### **PRESENTACION DEL NOMENCLATOR DE APELLIDOS VASCOS**

Excmas. e Ilmas. autoridades académicas, autoridades de la administración de Justicia y de los organismos relacionados con la misma:

Es un honor para quien les habla que el primer acto en el que participa como Consejero de Justicia, lo sea en esta ilustre casa y en un acto de promoción del euskara en este ámbito.

El derecho de todo ciudadano a poseer un nombre es un derecho personalísimo contemplado por el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos de 19 de diciembre de 1966, y que reconoce la actual Ley de Registro Civil al disponer en su artículo 53 que “las personas son designadas por su nombre y apellidos, paterno y materno, que la Ley ampara frente a todos”.

Según el texto de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, se trata de reconocer la lengua propia del pueblo vasco como el signo más visible y objetivo de identidad de la comunidad de Euskal Herria, y un instrumento de integración plena del individuo en ella a través de su conocimiento y uso, siendo obligación de los poderes públicos impulsar y garantizar de forma progresiva el ejercicio de ese derecho, reconocido en el artículo 6.º, y en el artículo 9 para el ámbito de la Administración de Justicia.

Se trata, por tanto, de dar cumplimiento al régimen de cooficialidad lingüística del euskara consagrado en el Estatuto de Autonomía y del derecho de los habitantes del País Vasco a utilizar dicha lengua en sus relaciones con la Administración, arbitrando las medidas y medios necesarios para asegurar dichos derechos lingüísticos.

Ciertamente, si algo contribuye a la normalización del euskara, a su reconocimiento como signo visible de la identidad colectiva e instrumento de

integración del individuo en la comunidad, es el derecho de los ciudadanos vascos a utilizar su lengua propia en la determinación de su nombre y de sus apellidos.

Por lo que atañe directamente a los nombres propios, hay que convenir que la normalización de la lengua vasca es hoy una pacífica realidad entre nosotros. Nada dificulta el que los padres elijan para sus hijos onomásticos consignados en euskara, ni existe traba alguna para que una persona cambie su nombre propio sustituyendo aquél con el que fue inscrito en el Registro Civil por otro vasco.

En lo tocante a los apellidos, la necesaria normalización de euskera pasa por recuperar la correcta grafía de los apellidos de origen euskérico.

Como es fácilmente comprensible, tanto el principio de seguridad jurídica en la imposición y cambio de los apellidos de las personas, como el propio respeto a la lengua vasca, aconsejan que estos expedientes de adaptación gráfica de los apellidos al euskara se resuelvan atendiendo no sólo a la voluntad, que puede ser en ocasiones arbitraria, del solicitante, sino al previo informe favorable de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Hasta el momento presente, cuando un ciudadano pretendía modificar la grafía euskaldun de su apellido, al amparo del artículo 206 del Reglamento de la Ley de Registro Civil, además de iniciar el oportuno expediente en el Registro Civil, había de procurarse el oportuno certificado expedido por Euskaltzaindia que acreditaba la corrección del cambio. A partir de esta publicación, únicamente será preciso que dicho cambio figure amparado por la compilación realizada en este nomenclator.

El precedente que ya abría la puerta a esa posibilidad, que permite un mejor y más ágil servicio a nuestros ciudadanos, parte de una resolución del Director General de los Registros y del Notariado de fecha 23 de abril de 1996, que declaraba con carácter general que en la tramitación de los expedientes de cambio de apellidos vascos, no será necesario aportar el certificado de la Real Academia de Lengua Vasca / Euskaltzaindia, cuando, por estar incluido el apellido en el Nomenclátor elaborado por aquélla, ya queda justificado por este medio la ortografía correcta del apellido solicitado.

Bien es verdad, que por causas absolutamente ajenas a la voluntad del Departamento de Justicia y de Euskaltzaindia, ese proceso de publicación ha sido algo más lento del deseado.

Consecuencia de esa voluntad inequívoca de procurar a los ciudadanos este instrumento, el Ministerio de Justicia y el Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco decidieron la publicación de



esta obra a través de la propia imprenta del Boletín Oficial del Estado, al considerar que su difusión y su uso contribuirán a la normalización del euskara.

Nos encontramos, finalmente ante una obra que pretende la normalización de los apellidos, corrigiendo las alteraciones que otros sistemas gráficos introdujeron en ellos al amparo de la no oficialidad del euskera.

La formación de este primer nomenclátor de apellidos vascos supone una obra relevante de la Real Academia de la Lengua Vasca, desarrollada por la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, siendo dicho esfuerzo merecedor de todo nuestro reconocimiento y felicitación por el acierto, en sintonía con una demanda de nuestros ciudadanos.

Su publicación facilitará a todos los ciudadanos vascos deseosos de cambiar los apellidos que resulten tener origen euskérico el adecuarlos a la expresión de su grafía fijada por Euskaltzaindia. Para los jueces miembros de la Carrera Fiscal y funcionarios públicos que hayan de intervenir en los expedientes de cambio de apellidos, el nomenclátor elaborado por la Real Academia de la Lengua Vasca constituirá sin lugar a dudas el referente que permita acompañar la necesidad de seguridad jurídica con el respeto a la lengua vasca. Y ya en los próximos días será remitida a todos los Registros Civiles de la Comunidad Autónoma y a todos los Juzgados de Paz para su utilización.

Aprovecho, al tiempo, esta oportunidad para solicitar la intervención de todos Ustedes, representantes de todos los colectivos en los que este Nomenclátor ha de resultar de interés para nuestros ciudadanos, para que procuren la difusión y el conocimiento del mismo en sus respectivos ámbitos, ya que esa es la verdadera garantía de su efectividad.

Para finalizar, me van a permitir que haga una pequeña referencia a la conveniencia de que se sigan apoyando las iniciativas de varios grupos parlamentarios en el Parlamento Español, para que dentro de un horizonte, esperemos cercano, se modifiquen el artículo 57 de la Ley de Registro Civil y 209 de su Reglamento para que dichos expedientes de cambio de apellido, puedan sustanciarse por completo en los Juzgados de Primera Instancia encargados del Registro Civil correspondientes al domicilio del solicitante, en lugar de precisar su remisión posterior al Ministerio de Justicia, para posibilitar, precisamente, ese mayor acercamiento de la administración de justicia a nuestros ciudadanos y un mejor servicio público.

Muchas gracias, y reitero mi felicitación a Euskaltzaindia por este magnífico trabajo.

\* \* \*

## ***EUSKAL DEITUREN IZENDEGIAREN AURKEZPENA***

Euskaltzain jaun-andere agurgarriok, eta Justizia administrazioko eta era-kundeetako agintariok:

Ohorea da niretzat Justizi sailburu gisa egiten dudan lehenengo hitzaldia etxe gailen honetan egitea; are gehiago, euskara Justiziaren arloan sustatzeko ekitaldi batean.

Herritar orok izen bat izateko duen eskubidea oso eskubide pertsonala da, eta horrelaxe dago jasota Eskubide Zibilei eta Politikoei buruzko 1966ko abenduaren 19ko Nazioarteko Itunean. Egungo Erregistro Zibilaren Legeak ere eskubide hori aitortzen du, 53. artikuluan honako hau esaten baitu: “Pertsonak beren izenaz eta aita-amen deiturez izendatzen dira, eta izen-deitura horiek Legeak babesten ditu denen aurrean”.

Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Onarrizko Legearen testuak dioenez, euskal herriaren ama-hizkuntza Euskal Herriko komunitatearen adierazgarrikeri agerikoena eta objektiboena da, eta, hizkuntza hori ezagutuz eta erabiliz, gizabanakoa komunitatean erabat integratzeko tresna. Beraz, herri-aginteez eskubide hau arian-arian bultzatu eta bermatu behar dute, Legearen 6. artikulua eta 9. artikulua Justizi Administrazioarentzat agintzen duena kontuan izanik.

Kontua, beraz, honako hau dugu: Autonomia Estatutuan euskarari aitortzen zaion ofizialkidetasuna betearazi egin behar da, eta euskal herritarrek Administrazioarekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko daukaten eskubidea bermatu behar da, hizkuntz eskubideak ziurtatzeko beharrezko neurriak eta baliabideak ezarriz.

Euskal herritarrek beren izen-deiturak erabakitzerakoan ama-hizkuntza erabiltzeko daukaten eskubideak laguntzen dio —ezerk laguntzekotan— euskararen normalizazioari, bai eta euskara nortasun kolektiboaren adierazgarri dela eta gizabanakoa komunitatean integratzeko tresna dela aitortzeari ere.

Izen bereziei dagokienez, euskararen normalizazioa errealitate baketsua da gurean. Izan ere, gurasoek ez dute eragozpenik beren seme-alabentzat euskarazko onomastikoa aukeratzeko, eta ez dago inolako trabarik edonork Erregistro Zibilean zeukan izena euskarazko izenaz aldatzeko.

Deiturei dagokienean, ordea, euskal jatorriko deituren grafia zuzena berreskuratu beharra dago, euskararen normalizazioa osoagoa izan dadin.


Erraz adi daitekeenez, pertsonen deiturak euskarazko grafia egokitzeko egiten diren espedienteak erabakitzerakoan, ez da eskatzailearen borondatea kontuan izan behar soilik —borondatea batzuetan arbitrarioa izan baitaiteke—, baizik eta Euskaltzaindiak aurretiaz egindako aldeko txostena ere komeni da, pertsonen deiturak ezartzeko eta aldatzeko segurtasun juridikoaren printzipioa, eta euskarari zor zaion errespetua, aintzat harturik.

Orain arte, herritar batek, Erregistro Zibilaren Legearen Araudiko 206. artikuluan oinarri hartuta, bere deituraren grafia euskalduna aldatu nahi bazuen, Erregistro Zibilean espediente bat hasi beharra zeukan, eta, gainera, Euskaltzaindiak egindako egiaztagiria aurkeztu beharra zeukan, aldaketa zuzena zela erakusteko. Oraingoan, ordea, nahikoa izango da aldaketa hori izendegi honetan bildutako deiturekin bat etortzea.

Erregistroen eta Notariotzaren zuzendari nagusiak 1996ko apirilaren 23an emandako erabaki batek ireki zion atea aukera horri, gure herritarrei zerbitzu hobea eta bizkorragoa eskaintzeko bide ematen baitu. Erabaki hartan, hain zuzen, honako hau esan zen: euskal deiturak aldatzeko espedienteak bideratzerakoan, ez da Euskaltzaindiaren egiaztagiria aurkeztu beharrik izango; izan ere, Euskaltzaindiak prestatutako izendegian jasota egoteak egiaztatzen baitu eskatutako deituraren ortografla zuzena dela.

Egia esan, Justizia Sailak eta Euskaltzaindiak nahi baino motelago burutu da lan hau argitaratzeko prozesua.

Dudarik gabe, herritarrei deiturak taxuz egokitzeko tresna eskaintzea zen gure asmoa. Hori dela-eta, Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak Estatuko Aldizkari Ofizialaren inprimategian argitaratzea erabaki zuten, euskara normalizatzeko tresna ezin-hobea zelakoan.



Azken finean, lan honek deiturak normalizatzea du helburu, eta, horretarako, euskara ofiziala ez zenean grafia-sistema arrotzek gure hizkuntzan eragindako aldaketak zuzendu ditu.

Euskal deituren lehenengo izendegia Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak burututako lan aipagarria dugu, eta, horrenbestez, egindako ahaleginak gure eskerrona merezi du, herritarren eskaerari bete-betean erantzun baitio.

Izan ere, argitalpen honi esker, euskal jatorrizko deiturak Euskaltzaindiak finkatutako grafiara egokitzeko irrikitan dauden euskal herritar guztiek aukera izango dute nahi hori asebetetzeko. Bestetik, deiturak aldatzeko espedienteetan esku hartu behar duten epaile, fiskal eta funtzionario publikoek, berriz, segurtasun juridikoa eta euskara uztartzeko erreferente izango dute Euskaltzaindiaren izendegia. Horregatik, datozen egunotan Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro zibil eta bake-epaitegi guztietara bidaliko da, erabil dezaten.

Era berean, aukera aprobetxatu nahi dut zuek guztiek ere (gure herritarren taldeen ordezkariak zaretenez) parte har dezazuen eskatzeko. Hortaz, saia zaitzte zuen arloetan izendegia hedatzen eta ezagutarazten, horixe izango baita bere eraginkortasuna bermatzeko bide bakarra.

Amaitzeko, beste aipamen bat egin nahi nuke. Komenigarria dirudit Espainako Parlamentuko hainbat taldek, epe jakin baten barruan (luzea ez izatea espero dut), Erregistro Zibileko Legearen 57. artikulua eta haren Araudiaren 209.a aldatzeko izandako ekimenak bultzatzen jarraitzea, deiturak aldatzeko espedienteak eskatzailearen bizilekuari dagokion Lehen Auzialdiko Epaitegietan erabat gauzatu ahal izateko. Hori guztia, jakina, justizia-administrazioa gure herritarrengana gerturatzeko eta, era berean, zerbitzu publiko hobea eskaintzeko asmoz.

Eskerririk asko, eta berriro ere nire eskerrona Euskaltzaindiari, egin duen lan bikainagatik.

## **ARAUAK: I. KARPETA: CD-ROM:**

**(ARAUAK 1-75): 1994-1997eko UZTAILERA ARTEAN EUSKALTZAINEK  
ONARTURIKOAK CD-ROM INTERAKTIBOAN**

*Bilbo, egoitza, 1998-IX-15*

*Ricardo Badiola Uriarte,  
argitalpen eragilea(\*)*

### **AURKEZPENA**

CD-ROM honetako edukia jarraiko oharretan azaltzea gura genuke, alegia, euskarri informatiko honetan zer nolako materiala azaltzen den hizkuntzari lotua. Beraz, CD-ROM-aren laburpena, punturik garrantzitsuenak azpimarratuz, jarraikoa dugu, hots:

1. Gaia: Euskaltzaindiaren *ARAUAK I.* karpetakako materiala, CD-ROM interaktiboan.

2. MAC OS ordenadorearen INGURUNEAN ERABILTEKO GUTXIENeko BETEKIZUNAK:

2.1. Macintosh edo Power Macintosh ordenagailua, 68020 prozesadorea edo modernoagoa behar du izan.

2.2. MAC OS 7.0 edo modernoagoa.

2.3. 3.300 Kbyteko RAM memoria daukana, Macintosh 680 x 0 edo Power Macintosh ordenagailuetarako, memoria birtuala indarrean dela; 5 227 Kbyte, Power Macintosh ordenagailuetarako, memoria birtuala indargabetua dela.

2.4. 8 Mbyteko lekua duen disko gogorrek eta 4.4 Mbyteko lekuak izan behar du, instalazioa egiten den garaian.

2.5. CD-ROM irakurgailua.

3. WINDOWS INGURUNEAN ERABILTEKO GUTXIENeko BETEKIZUNAK:

3.1. Ordenagailu pertsonala x 86 prozesadorea daukana (386, gutxienez; baina 486, Pentium, Pentium Pro edo Pentium II gomendatzen dira).

3.2. Microsoft Windows 3.1 taldean lan egiteko Microsoft Windows, Microsoft Windows 95 edo Microsoft Windows NT 3.51 edo 4.0.

3.3. Instalazioan 4 Mbyteko RAM memoria daukana izan behar du.

3.4. Instalazioa egitean 5 Mbyteko lekua daukan disko gogorrek edo eta 7 Mbyteko tokia daukana izan behar du.

3.5. CD-ROM irakurgailua.

---

(\*) *Oharra:* Joseba de Franciscok ARAUAK: I. karpeta-ren CD-ROM-aren prestatzaile-teknikiariak bai entzule eta bai kazetariei erabilera-azalpenak eskaini dizkie.

4. Erabilitako sistema: 'Acrobat Reader 3.0 artxiboa' deritzana dugu.
5. PC edo Macintosh ordenagiluetarako balio du.
6. NOLA ERABILI BEHAR DEN:
  - 6.1. Laguntza deritzan pantailara jo eta berton agertzen zaizkigu sisteman aritzeko —nabigatzeko— oharrak.
  - 6.2. Bi aukibide dauzka:
    - a) Aukibide kronologikoa, alegia, ARAUAK onartu diren arabera, hilabetez hilabete, lehen/1. Aurutik 75 punturaino.
    - b) AURKIBIDE ALFABETIKOA.
    - c) 'Euskaltzainburuaren hitzak', alegia, Jean Haritschelhar-ek idatziriko berbak ARAUAK direla eta.
  7. Eskuetan dugun CD-ROM honek *'laguntza'* deritzan pantaila dauka eta bertan programa erabili eta instalatzeari buruzko informazio edo argibide jakingarria aurkitzen dugu. Goian adierazitako pantailetatik sail bakoitzera jo ahal dugu. Sail edo eremu bakoitzaren hasieran 'aukibideetara' itzul gaitzke goian azaltzen den botoietan sakatu edo jo ondoren. Beraz, edozein orrialdetatik 'ARAUAK' pantailara itzuli ahal dugu behe aldeko botoiari emanaz gero, eta edozein seinaletera zuzenki jo ezker aldean aurkitzen diren markadoreetan joz gero. Aipatu markadoreok triangeluetan jo ondoren narbarmetzen zaizkigu.



8. Jarraian CD-ROM sistemako lanabesen azalpena datorkigu.

9. ARAUAK CD-ROM honetako bilaketa indexatuak ditugu ondoren, alegia, 'Search' edo 'buscar / explorar' komandoa deritzanak ARAUen testu osoa bilatzeko balio du indexatuta dauden Acrobat agirietan edo agiri multzoetan. Eta berauen aurki-bidea-datutegia da, hots, agiri horien testua duena.

\* \* \*

Fitxa teknikoa:

ARAUAK: 1. karpeta: CD-ROM  
EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A. L. B.

Eskabideak egiteko:

Euskaltzaindia / R.A.L.V.  
Argitalpen zerbitzua

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

Tlf. 94. 415 81 55

Fax: 94. 415 81 44

e-mail: euskalbilbo @ jet.es

Salneurria:

ARAUAK karpeta harpidedunentzat: 1500 pta.

Bestelakoentzat: 8.000 pta.

\* \* \*

## NORMATIVA EN CD-ROM DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

**PERIODO COMPRENDIDO: OCTUBRE DE 1994-  
-JULIO DE 1997**

**CARPETA 1.ª: 1-75 DE LA NORMATIVA DE LA LENGUA VASCA**

*Bilbao, 15-09-1998*

*Ricardo Badiola Uriarte,  
ejecutivo del Servicio de Publicaciones*

Partes comprendidas en el CD-ROM:

- a) Índice cronológico de la NORMATIVA impresa y publicada en la Carpeta 1.ª titulada ARAUAK-1.
- b) Índice alfabético de la NORMATIVA.
- c) Introducción del Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/ Euskaltzaindia Jean Haritschelhar Duhalde.

Aparte de estos tres apartados el CD-ROM *ARAUAK-1* posee un apartado denominado 'Laguntza / Ayuda' con unos índices generales que aparecen en la pantalla cuando se consulta una NORMA de la Lengua Vasca.

Disciplinas principales del CD-ROM:

1. Gramática: uso del partitivo, régimen de ciertos verbos: GONBIDATU, ITXOIN, LAGUNDU...
2. Diccionario unificado desde la letra A hasta la I: A... ALKOHOL... BEGIRALE... DENDARI... ESLEIPEN... FORU... GIDARI... HARPIDEDUN, HANTURA, HARRIDURA...IGUZKI.
3. Declinación: v.g. posesivos: NI, NIRI, NIREKIN...; singular cercano: HAU GUZ(T)IA...
4. Ortografía-Morfología: (ARRAIN y no *arrai*, ARTZAIN y no *artzai*...; Graffía del prefijo BA- y de la preposición GABE, etc.).
5. Composición de vocablos y su graffía: BENETAKO, OHIKO, BETIKO...
6. Formas alocutivas del verbo: DUK / DUN... LIEKEK / LIEKEN... ZAIOK/ ZAION... LEZAKEK / LEZAKEN... GABILTZAK / GABILTZAN... ZIOTSEK / ZIOTSEN...
7. Graffía de la raíz de ciertos verbos: IKAS, IBIL, JAIKI, BETE, EKAR...



8. Onomástica:

a) Nombres de las diferentes provincias y comarcas de España y de Francia: AN-DALUZIA, MADRIL, ALACANT, ERRIOXA, EIVISSA, VALENTZIA, SIBILIA...; ALSAZIA, LORRENA, PIKARDIA...; ALPE GARAIK, BORDELE, ARROXELA, MARTINIKA, AKIZE, TARBE, SAVOIA, TOLOSA...

b) Denominación de los nombres propios de los diferentes estados del mundo, capitales y gentilicios: ARMENIA, ARMENIAR, EREVAN, EREVANDAR; BELIZE, BELIZETAR, BELMOPAN, BELMOPANDAR; BRUNEIKO ESTATUA, BRUNEI-TAR, BANDAR SERI BEGAWAN, BEGAWANDAR; ERRUSIA, ERRUSIAR, MOS-KU, MOSKUTAR; ESTONIA, ESTONIAR, TALLINN, TALLINNDAR; GEORGIA, GEORGIAR, TBILISI, TBILISTAR; JAPONIA, JAPONIAR, TOKIO, TOKIOTAR; KANADA, KANADAR, OTTAWA, OTTAWAR; KROAZIA, KROAZIAR, ZA-GREB, ZAGREBAR; KUBAKO ERREPUBLIKA, KUBATAR, HABANA, HABANA-R; LETONIA, LETONIAR, RIGA, RIGATAR; LITUANIA, LITUANIAR, VIL-NIUS, VILNIUSTAR; NORVEGIAKO ERRESUMA, NORVEGIAR, OSLO, OSLOAR; UKRAINA, UKRAINAR, KIEV, KIEVTAR; YEMENGO ERREPUBLI-KA, YEMENDAR, ADEN, ADENDAR; ZIPREKO ERREPUBLIKA, ZIPRETAR, NI-KOSIA, NIKOSIAR...

c) Graffía de los diferentes continentes del mundo, nombre de algunos nombres geográficos y gentilicios: EUROPA, EUROPAR; MENDEBALDEKO EUROPA; OZEANIA, EKIALDE HURBILA, OZEANIAR; EURASIA, EURASIAR; IPAR AME-RIKA, HEGO AMERIKA, ERDIALDEKO AMERIKA, AMERIKAR; AFRIKA, AFRIKAR...

d) Graffía de diversos nombres de montes, ríos, mares... del mundo: mendiak: AL-PEAK (ALPE mendiak), PIRINIOAK (PIRINIO mendiak), KARPATOAK (KARPA-TO mendiak)...; Ibaiak: DANUBIO, IBAI HORIA, MOSELA, RHIN, RODANO, TAJO, VOLGA, YONNE, ZAMBEZI...; Itsasoak: BIZKAIKO GOLKOA, ITSASO BELTZA, IPAR ITSASOA, ITSASO GORRIA, ITSASO HILA, ITSASO ZURIA, ITSASO JONIKOA, LIONGO GOLKOA, MEDITERRANEOA (Mediterraneo itsa-soa)...

e) Graffía de las principales islas del mundo: ANTILLAK, BIKINI, GOMERA, HAITI, JERSEY, MADEIRA, MIKONOS, SALOMON, SONDA, TIMOR, ZIKLA-DEAK, ZIPRE...

f) Nombres de lagos: BALATON, COMO, ERIE (Ipar Amerika), LADOGA, LE-MAN; ONEGA, TITIKAKA (Hego Amerika), GARDAKO aintzira, KARIBA (Afrika), MICHIGAN (Ipar Amerika), TXAD (Afrika), URMIAKO aintzira (Persia), WINNIPEG (Ipar Amerika)...

g) Graffía de las diferentes provincias del País Vasco / Euskal Herria y de los diferentes dialectos del Vasconce/Euskera: ARABA, ARABAR, ARABAKO EUS-KARA; BIZKAIA, BIZKAITAR, BIZKAIERA; LAPURDI, LAPURTAR, LAPUR-TERA; ZUBEROA, ZUBEROTAR, ZUBERERA.

h) Nombres comunes del santoral: AGATA, ANASTASIA, ARNAUT, BAR-NABE, BRIGITA, ELOI, ERRAMUN, FELIZIA, GILEN, HENRIKE, HUNBERTO, ISIDORO (Sibiliakoa), JURGI, KARLOTA, LAURENDI, MARTZELINO, NARTZI-

SO, PETRI, ROKE, SIGISMUNDO, TADEO, VIKTOR, XABIER, ZELEDON, ZOSIMO...

Características técnicas del CD-ROM:

1. Instalación del programa READER (Instalación en un ordenador Apple (o Macintosh compatible).
2. Instalación en un ordenador PC (o Windows compatible).
3. Sistema de navegación: programa Acrobat Reader.
4. Descripción de las herramientas de Acrobat Reader.
5. Búsquedas indexadas: comando SEARCH, Acrobat Search.= 'buscar, explorar'.

## ARAUAK-1 CD-ROM-EAN AURKEZTEAN

*Egoitzan, 1998-IX-15*

*Jose Antonio Arana Martija*

*Arauk-1* euskarri informatikoan aurkeztu ondoren, Patxi Goenaga, Euskaltzaindiaren idazkariak eta Ricardo Badiola argitalpen eragileak esandakoei zerbait erantsi nahi diet. Teknika berriek eskatzen duten bidean sartua dela Euskaltzaindia eta Arauen aurkezpen hau lehen urrats bat baizik ez dela edierazi nahi nuke.

Izatez, ekintza zabal, ugari eta emankorrago batean ari dela gure Akademia esan behar dut. Bilboko egoitza honetan eta Euskal Herriko beste hiriburuetan, hots, Iruñean, Donostian, Gasteizen eta Baionan dituen ordezkartzetan, gaur eguneko teknikari dagokion informatizazioaz asmoz eta gogoz plangintza burutzen ari dela. *Orotariko Euskal Hiztegia*, Hiztegi Batua, Euskararen Hizkuntz Atlasa, Gramatika, Onomastika eta beste batzorde batzuek ekoizten dituztenak datubase batean bildu eta edonork bilatzeko eran jartzeko azpiegitura informatikoa osotu. Une historiko honetan, eta Euskal Herri osoari begira, Euskaltzaindiari dagokio hizkuntzaren arauak ematea, euskalkiak bere bidean utziz eta sendotuz, baina denontzat baliagarria eta ulergarria den euskara batua bultzatuz.

Badago beste arlo bat ere, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekak ikertzen eta zainitzen duena: Euskal Herriko biblioteka publikoen eta liburutegien katalogazioan bateratu behar dena, gure kulturaren mesedetan. Azkue Biblioteka da une honetan euskarazko katalogoa egiten ari den instituzio bakarra. Bibliotekonomiako hitz teknikoak eta esaldiak euskara egoki batera itzuli behar dira eta lan horretan ari da, jadanik ia mila hitz eta esaldi itzuli dituelarik. Eta ez bakarrik bere katalogoa burutzeko dituen beharri zehar erantzuna emateko, beste batzuk euskarazko katalogoa egiteko eredu akademikoa izango delako baizik. Honek ere badu informatizazioaren plangintzarekin zerikusirik, sare orokorrean sartu eta edonorentzat kontsultagarri izango delako. Euskal Bibliografia Interneten sartzeko ezinbesteko bidea izango da hau.

Baina beste berri bat ere eman nahi dizuet, bibliografia munduan hasiera baino ez dena. Euskal kultura bultzatzerakoan, gure herriko biblioteka eta liburutegien katalogo orokorra burutu beharrean gaude, munduan zehar gure bibliografia zabaltzeko, “eman ta zabal zazu munduan fruitua” egia bihur dadin. Eta horretarako beste erakunde batzuekin harremanetan hasia da Euskaltzaindia, beraien ondare bibliografikoak euskaraz katalogatzeko eta euskarari eta euskal kulturari dagozkien testuak ordenagailuen pantailetan irakurgai jartzeko. Lehen urratsa eman du eta Legebiltzarrean dagoen Juan Ramon Urkixo jaunaren liburutegi aberatsa digitalizatzeko hitzarmena sinatuko du. Informatizazioaren emaitza aberasgarria izan dedila espero dugu, beste erakunde batzuekin bide beretik jarraituz.



**BESTE BERRI BATZUK**



## **EUSKALTZAINDIKO ZUZENDARITZAREN OHARRA**

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak gaur, ekainaren 11an, Angelun egin duen bilkuran, beste gai batzuen artean, Patxi Goenaga idazkari eta zuzendaritzakidearen eta Pello Salaburu Euskara Batuko batzordeburuaren aurkako irainez eta mehatxuez aritu da.

Zuzendaritza honek bortizki gaitzesten ditu ekintza hauek eta dauka ez dela inondik ere zilegi horrelako bideak erabiltzea.

Bat egiten dugu, bada, bi euskaltzain hauekin, zeinen ikerlanak eta euskararen aldeko ahaleginak ezagunak baitira.

Baionan, 1998ko ekainaren 12an.

## **NOTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA**

La Junta Rectora de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, reunida hoy, 11 de junio, en Anglet, ha tratado, entre otros asuntos, de los insultos y amenazas proferidos contra Patxi Goenaga, secretario de la Institución y miembro de esta Junta de Gobierno, y Pello Salaburu, presidente de la comisión de Euskara Unificado.

Esta Junta condena rotundamente tales acciones y considera que no es de ningún modo lícito emplear esos procedimientos.

Manifiestamos, pues, nuestra solidaridad con los dos académicos citados, cuya labor de investigación y sus esfuerzos en favor del euskara son conocidos.

Baiona, 12 de junio de 1998.





## **NAFARROAKO IRRATIEN BAIMENEN GAINEAN EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA**

Euskaltzaindiak, Areatzan egindako osoko batzarrean, uztailaren 23an, erabili zuen, beste gai batzuen artean, Nafarroako Gobernuaren erabakia, modulazio-frekuentziako irrati baimenei buruz. Erabaki hori dela eta, hau aditzera nahi du eman Euskaltzaindiak jendaurrean:

1. Euskaltzaindiak, zeinen arautegian baitago hizkuntzaren eskubideak zaintzeko xedea, 1976ko otsailaren 26ko Erret Aginduaren arabera, adierazi zuen bere kezka larria, 1990ean, euskara baztertu zelako irrati baimenak erabaki zirenean, inola ere onartu ez zuzenetsi ahal zen eran. Ikus *Euskera*, Euskaltzaindiaren aldizkari ofiziala, 36, 1991, 73-74.

2. Oraingo banaketan, espero zitekeenaren kontra, berriro ere baztertu da euskara, ezen Euskal Herria Irratia, Nafarroako euskaldun gehienak bizi diren Iruñerrian euskaraz ari dena, baimenik gabe gelditu da.

3. Euskaltzaindiak, begirunerik handienaz, baina orobat kemen handienaz ere, banaketa bidegabe hau gaitzesten du, Nafarroako hiritarren aurkako laidoa, euskara delarik Foru Erkidegoaren ondare bizia.

4. Honegatik guztiagatik, Erret Akademia honek Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen berrikus dezan irrati baimenen banaketa hori.

Areatza, 1998ko uztailaren 23an.

## **DECLARACION DE EUSKALTZAINDIA SOBRE EL REPARTO DE LICENCIAS RADIOFONICAS EN NAVARRA**

La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, reunida en sesión plenaria en Areatza / Villaro, el 23 de julio, trató, entre otros asuntos, de la decisión del Gobierno de Navarra sobre el reparto de licencias de Frecuencia Modulada en esa Comunidad. Nuestra Institución desea manifestar ante la opinión pública lo siguiente:

1.º Euskaltzaindia, entre cuyos fines estatutarios, según el Real Decreto de 26 de febrero de 1976, consta la tutela de los derechos de la lengua, ya expresó en 1990 su grave preocupación por el hecho, inadmisibile e injustificable, de que se postergara a la lengua vasca en la distribución de las licencias en aquel año. Véase la revista *Euskera*, órgano oficial de Euskaltzaindia, número 36, páginas 73-74.

2.º Las esperanzas puestas en el presente reparto se han visto nuevamente defraudadas, al no haberse concedido licencia a una emisora vascófona, Euskal Herria Irratia, con área de actividad en Iruñerria / Cuenca de Pamplona, donde reside la mayor parte de los euskaldunes navarros.

3.º Euskaltzaindia, con el mayor respeto, pero también con la mayor firmeza, rechaza este reparto injusto, en que se ha cometido un agravio a los derechos lingüísticos de los ciudadanos navarros, siendo como es el euskara patrimonio vivo de la Comunidad Foral.

4.º Por todo ello, esta Real Academia solicita del Gobierno de Navarra la revisión urgente de la adjudicación acordada de licencias radiofónicas.

Areatza, 23 de julio de 1998.

## **HIL BERRIAK**



## MARIA DOLORES AGIRRE AIZPURU (1903-1997) \*

Euskaltzaindiaren eskariari ezin nion ezezkorik eman: batetik, Maria Dolores Agirrerri diodan miresmenagatik; bestetik, belaunaldi horri diodan zorragatik, belaunaldi horretako gizon-emakumeek egin baininduten euskaltzale eta abertzale.

Maria Dolores Agirre Aizpuru 1903eko ekainaren 8an jaio zen Errezilgo Etxeberrin; denda, almazena, estankoa eta abar zituen etxean. Pablo Agirrek hiru seme eta alaba bat zituen, gazterik hil zen Urdalleta emaztearenak. Ondoren, Manuela Aizpurrekin ezkondu zen Pablo. Eta Maria Dolores Agirre Aizpuru jaio zen, etxeko bosgarrena; «Barrenso» idazlearen ondorengoa.

Hamalau urte bete zituenean irten zen Errezildik Donostiara maistra karrera egitera, normaletik ezer ez zuen Mandaseko Dukearen kaleko «Escuela Normal»ean. *La casa de la praderako* neskatoaren pare sentitu zela Donostian esan ohi zuen, umore haundiz. “Ez nekien erdara haundirik baina oso onartua izan nintzen” aitortu ohi zuen. Eta Errezil, bere sorterria, sekulan ahaztu ez bazitzaion ere Donostian egin zuen habia betiko.

Hementxe ezkondu zen 1924an, Marianistetan Xabier Zubiriren ikaslaguna izan zen Eugenio Lasheras donostiarrarekin. Aitaren eta amaren izen bereko semea eta alaba izan zituzten. Eta Donostian hil zen, Urbietan kaleko etxean, iazko uztailearen 26ko ordu txikitetan, Santiago jaiaren bukaeran eta Santa Ana egunaren hasieran, ohi bezala, bere alaba Maria Dolores mojarrekin kontu-kontari ari zela. Eta senarrak lagunak zituztelako, bizitzan elkarren adiskide izan ziren Carmen Castro eta Maria Dolores Agirre elkarrekin joan ziren mundu honetatik ere, egun gutxiren aldearekin.

### EUSKARAZKO PLAZAREN JABE

Gaurko gazteentzat sinesteak lan badu ere, Maria Dolores Agirre maistra karrera egiten duen lehenengoetakoa da; Julene Azpeitia, Katalina Eleizegi, El-

---

\* Ikus *Euskera* 43:1, 1998, 299-302. Hor, argitaratu zen Mikel Atxagak Maria Dolores Agirre zenari buruz egindako txostena. Baina sorginek orri bat eraman zuten beren erratzez, agidanean: Maria Doloresek irratigintzan egindakoaren aipamena hain zuten. Haren lan eskerbaren zati garrantzitsua galdu denez, berriro argitaratzen dugu Maria Dolores Agirre zenari buruzko txosten osoa.

bira Zipitria, Elixabete Maiztegi, Maria Dolores Goia, Rufina Azkue, Julia Fernandez Zabaleta eta abarrekin.

Gaurko gazteei oso aspaldikoak irudituko zaizkie Magisterio Eskolak. Baina joan den mendearen erdi aldera hasiak dira gizonezkoenak. Emakumezkoenak, berriz, geroxeago. Bizkaian 1901ean zabaldu zen emakumezkoentzat magisterio eskola. Gipuzkoan, 1865tik 69ra zabalik izan zena itxi eta handik 30 urtera ireki zen, 1899an hain zuzen. Maistra karrera egiteko aukera duen lehen belaunaldia da, ia-ia. Bestalde, ordurako hasiak ziren arrenkurak: *umeen eskolak eta irakasleak erdaldunak direlako ari da euskara galtzen*. Giro horretan osatu zen, beraz, euskal maistra taldea.

Karrera amaitu ahala Antiguako eskolan hasi zen maistratzen. Baina Maria Dolores Agirrek nahiago zuen beste era batera euskararen alde lan egitea. Eta *Euskal Izkerak eta Iztunde Ikastolara bildu zen*; Toribio Altzaga, Abelino Barriola eta abarren ondora. Horretarako, berriz, Iztunde Ikastolako euskal irakasle plazara aurkeztu zen, gizonezko mordoskarekin batera. Juan Jose Arrue Larrañaga *Argia* astekariaren zuzendaria ez beste gizonezko guztiak erretiratu egin ziren, Maria Dolores Agirre ikusitakoan.



Maria Dolores Eugenio Lasherak senarrarekin

Bost eguneko azterketak egin behar izan zituzten biek, txandan. Baina epaimahaiak erabaki aurretik ohartu zen Juan Jose Arrue, bere aurretik lehiatu zen Maria Dolores zela irabazle: *Zorionak, zuk irabazi duzu* aitortu baitzion. Alferrik izan ziren azpeitiarraren doktore jakinduria guztiak Errezilgo maistra argiaren ondoan. Hori bai, Juan Jose apaizak, Santa Maria parrokiako apaizak, kartzelan eta Donostiatik kanpora ordaindu behar izan zuen 15 urteko zigorraldia bere euskaltzetasunagatik, 1936ko gerraren erasoz. Maria Dolores, berriz, udaletxeko obretara zokoratu zuten. Eta Iztunde Ikastolako lehiaketan atzetik izan zuen Juan Jose Arrue, hiltzeko orduan ere atzetik izan du Maria Doloresek sei hilabetez, abenduaren 28an hil baitzen Arrue, *Argiako* zuzendari ohia, 94 urterekin.

Itzul nadin lehengo bidera. Lehen euskaltegi publikoko lehen irakasle bihurtu zen Maria Dolores. Baina *Euskal Izkerak eta Iztunde Ikastolako* plazaren jabe egiterako hasia zen, bere etxean, euskara irakasten. Oraingo askok bezalaxe denda batean jarri zuen iragarkia. Barre egin zioten: *euskara ikastera inor joango zaizula uste al duzu?* Baina bizitza osoan iraungo zion lana sortu zitzaion. Inguratu ere era guztietakoak inguratu baitzizaizkion: Antonio Agirre kontsula, Usandizaga Inazio, Karlos Santamaria, Miguel Castells notarioa, Orkolaga eta beste edozein maila eta lanbidetakoak. Etxean, Euskal Iztunde Eskolan, Ateneoan, Alargunen Klubean, Emakumeen Kultur Etxean eta abarretan ematen zituen euskarazko klaseak. Batean eta bestean, ehunen bat ikasle izaten omen zituen.

Ikastaro bereziak ere ematen zituen, jakina. Miren Egañak, oraindik orain, gogoratzen zidanez, 1960ko abuztuan egin zuten Elbira Zipitria eta Maria Dolores Agirrerekin ikastaro bat andereño eta andereñoagaiek. Gaur nork eskainiko ote luke ikastaro bat, Donostian, abuztuan, musu truk?

Eta ia hil arte jarraitu zuen euskara irakasten. Laurogeita bederetzi urte bete behar zituen bezperan egin nion elkarrizketa bat Maria Doloresi. Ikasle talde baten euskarazko lanak zuzentzen ari zen. Eta ez zen azkeneko taldea, geroztik ere euskara irakasten jarraitu baitzuen.

Hor utzi du paper mardoa, euskara irakasteko erabiltzen zituen metodoekin. Baina Maria Dolores Agirreren metodo guztien oinarria bakarra da: ikasleari, entzuleari, irakurleari euskara atsegina, gustagarria eta maitagarria egin. Hori zen bere sekretua euskarazko klaseetan, antzerkietan eta irratsaioetan. Izan ere, Maria Dolores Agirrek bere hitzetan eta bere ekintzetan erakusten zuen bere bihotz gozoa: gaixoak zaintzerakoan, atzeratuei laguntzerakoan eta euskararentzat lagunak egiterakoan. Harrigarria badirudi ere Elbira Zipitria eta Maria Dolores Agirre izan ziren atzeratuekin ere lanean hasi ziren lehenengoetakoak. Beren etxera bezala joaten ziren Maria Doloresen etxera edozein egunetan.

## TORIBIO ALTZAGAREN LEKURA

Euskararen kontrako eraso gogorra zerbait baretu orduko itzuli zen «Euskal Izkera eta Iztunde Ikastola»ra udaletxeko obretara baztertua izan zen Maria Dolores Agirre. Azpeitiko Nekazari Alkartasunak antolatutako sariketara aurkeztu zen aurrena, 1949an, *Aukeraren maukera, azkenian... okerra* obrarekin. Eta handik lau urtera itzuli zen Iztunde Ikastolara, 1941ean hil zen Toribio Altzagaren eginkizunari eta bidari jarraitzeko.

Maria Dolores Agirrek 1975ean utzi zuen kargua, Joxemari Etxebeste eta Felipe Jurramendiren eskuetan: antzerkigintza, lehenengoaren eskuetan; euskararen irakaskuntza, bigarrenaren eskuetan. Baina 1981era arte ez zuen antzerki lana erabat utzi. Eta bere gidaritzapean ehunen bat antzerki-emanaldi eskaini zituen bere taldeak. Donostian egun jakina izan ohi zuen: Santo Tomas eguna. Horretarako, berriz, Soroa, Barriola, Altzaga, Lekuona, Lartzabal, Monzon eta abarrenak agortu ahala, Garcia Lorca, Tagore, Lozano, Casona, Buero Vallejo eta abarrenak euskaratu eta moldatu behar izan zituen: *Iturri-agor*, *Lurdesko lorea*, *Amal*, *Txalupak jaberik ez*, *Oriko txoria Orin*, *Txapela bete euri*, *Illunpe goritan*, *Altzateko jaun eta abar*.

Garcia Lorca aipatu dudanez, esan dezadan bidenabar, Lauaxeta bere adisikide mina bezala, frankistek hil zuten idazle hau jaio zela aurten beteko direla ehun urte. Omenaldiren bat eskaini beharko genioke euskaldunok ere. Eta Maria Dolores Agirrek *Iturri-agor* izenez euskaratutako «Yerma» antzerkia baino hoberik zer?



Maria Dolores Agirre (1903-1997)



## IRRATIGINTZAN

Baina Maria Dolores Agirre ez zen antzerkigintzara eta euskararen irakasuntzara bakarrik mugatu, irratigintzari lotu baitzitzaion 1954-56 aldera. Hogeita bost urtetan eskaini zituen euskarazko irratsaioak, Basarri, Manu Oñatibia, Endrike Zurutuza, Joxemari Etxebeste eta abarrekin.

Izan ere, Maria Doloresek badaki erabiltzen ez den hizkuntza kamustu egiten dela. Hala idatzi zuen *Egan*-en, 1956an: “Egonak eta arretaz erabili ezak erdoitzen dizkigu burni-tresnak; orretxek itxuragabetu oi ditu mintzairak ere; orrek berak zarpildu dezaiguke gure euskera”.

Eta euskara edozein arlotarako gai dela baietsi ondoren, *sukaldeko txokotik atera ta eraman dezagun tokirik gallurrenetara* aholkatzen du, *Egan*-eko artikuluan. Horretarako, berriz, irratia, ikastolak, aldizkariak, euskaltegiak eta abar ezinbestekotzat jotzen ditu. Eta horretan dihardu. Eta bere garaiko euskaltzaileen lagun da: Alzaga, Barriola, Lekuona, Barandiaran, Orixe, Zipitria, Nemesio Etxaniz, Elixabete Maiztegi, Faustina Karril, Basarri, Oñatibia, Etxebeste eta abarren lagun. Antzerkiaren inguruan, berriz, berrogeita hamarren bat euskaltzale biltzen zituen.

Izan ere, bere ustez, bide guztiak eta lagun guztiak ditu beharrezko euskarak. Eta ezaguera haundiko emakumea denez, badaki gai guztietan ez dezakegula euskara berdina erabili. Badaki, ezin daitekeela jakintza mailako aldizkarietan eta herriari zuzendutako komunikabideetan euskara berdina egin. Badaki, berak antzerkian eta irratian egin behar duen euskarak ulerterreza, goxoa eta jendeak erabiltzen duenaren antzekoa izan behar duela. Horregatik edukitzen zituen entzuleak ahazabalik.

## GURASOEN LAGUNTZA EZINBESTEKOA

Maria Dolores Agirrek ongi zekien, lehen esan dugun bezala, euskarak baliabide guztietaz baliatu behar zuela. Baina denen gainetik gurasoen laguntza jotzen du ezinbestekotzat, gurasoen bidez ondorengoetaratu ohi baita hizkuntza bat. *Gure seme-alabek ikasi ditzatela bi edo iru izkuntza, zenbat eta geyago obo; (...) baña etxekoa zokoratu gabe* dio lehen aipatutako idazlanean.

Hala pentsatzen du, hala idazten eta hala egiten. Maria Doloresen seme-alabak euskaraz mintzatzen dira elkarrekin, nahiz eta urte zailtako Donostian haziak eta karreradunak izan; Eugenio, mediku eta Maria Dolores, moja. Harri eta zur uzten nau batez ere alabak, Maria Dolores Lasherasek. Maistratza egin eta farmazia bukatuxea zuela sartu zen moja. Madrilen biologia eta antropologia bukatu eta Japonian eta Estatu Batuetan egin zuen lan. Ondoren, 12 urtez bizi izan zen Erroman, Mariaren Lagundi osoaren etxekoandre edo Ama Nagusi. Hala ere, harrigarri hitz egiten du oraindik euskaraz.

Bititza osoan egin du lan Maria Doloresek euskara irakasten, euskararentzat lagunak irabazten, euskara txukun eta ulergarrian euskaldunak entretenitzen eta gozatzan. Merezimendu horiengatik izendatu zuen Euskaltzaindiak, aspaldi, euskaltzain urgazle. Euskararen alde egindako lanagatik eskaini zion Donostiako udalak zilarrezko domina, Jesus Mari Alkain alkatearen eskuz. «Bagera» euskaltzaleen elkarteak ere omendu zuen. Itzultzaile Elkarteak, berriaz, ohorezko bazkide egin. Hil ondoan ere izan du ohorezko aipamenik. Hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zion Gabon egunean, Anton Abbadia saria banatzerakoan. Gaur, Euskaltzaindiak agertzen dio bere esker ona. Eskerrik asko, Maria Dolores. Sinesten zenuen zerua bekizu betiko sari.

*Mikel Atxaga*